




# Sexu-joeragatiko eta genero identitateagatiko gorroto-delituei aurre egiteko estrategiak: begirada orokor bat



SGI gorroto-delituen  
aurrean begiradak  
batuz







## Ikerketa taldea:


Udane HerFer, Eider Pérez de Heredia, Cristina Rueda, Inmaculada Mujika, Elena Olaortua eta Amparo Villar.

## Elkarte laguntzaileak:

Oasis eta Programa Feminista La Corriente


## Esker ona:

Parte hartu duten kolektiboei (Adisnit, ANIT, Casa de los Colores, CSM, Fundación Triángulo, EHko Bilgune Feminista, EHGAM-Bizkaia, Artemisa talde lesbikoa, Safo talde lesbikoa, Histeria Kolektiboa, La Cuerda, Lumagorri, Medeak, Nuevos horizontes, Odiscea, Otra Guatemala Ya, Trans en tacones), ikerlanean parte hartu duten 55 pertsoneri eta parte hartze puntualei (María Ramírez, María Salazar, Marta García, Gaizka Villar eta Joseba Martínez de Guereñu), ikerlan hau eraiketa kolektiboaren emaitza baita.



*“[beste iruditeria batzuk edukitzea] eskertuko nukeen hasieran, ze gauza bakarra zegoenez... bada, urte asko eman behar dituzu **jolas moduko horrekin: izartxoak izartxoan sartu, zirkulua zirkuluan, “eta ni, non sartzen naiz ni?, nik ez dakit horretan jolasten”.** Iruditeria berriak sortzea oso-oso kontu luzea da, prozesuak behar dira...*

María, Euskadi.



Argitalpen hau ALDARTEK landu du, honako proiektu honen baitan:  
Gorroto-delituak, begirada orokor batetik: sexu-joeragatiko edota genero  
identitateagatiko gorro-delituen aurrean, ikuspegiak uztartu sexu- eta  
genero-aniztasunaren ikuspegitik.

Finantzazioa:



**GARAPENERAKO  
LANKIDETZAREN  
EUSKAL AGENTZIA**

AGENCIA VASCA DE  
COOPERACIÓN PARA  
EL DESARROLLO



Berastegi 5-5º 48001 Bilbao

T. 944 237 296 / 665 734 428

[www.aldarte.org](http://www.aldarte.org) / [www.kooperaldarte.org](http://www.kooperaldarte.org)

[aldarte@aldarte.org](mailto:aldarte@aldarte.org)

 @AldarteOrg  AldarteZentroa-Centro

Titulua: Sexu-joeragatiko eta genero identitateagatiko gorroto-delituei  
aurre egiteko estrategiak: begirada orokor bat

Diseinua: Emociona Soluciones Creativas

Inprimaketa: Printhaus

Ilustrazioak: Perman Goñi

Itzulpena: Begoña Montorio

Edizioa: Aldarte

Lege gordailua: BI-1264-2018



# Aurkibidea

▶	Aurkezpena	7
▶	Hurbilketa teorikoa	9
	Desberdinak bainoago, askotarikoak gara pertsonak	9
	Gure genero ikuspegia: genero arautzailea eta haren bazterkeria bitarrak	11
	Garapen ez arautzaile baten alde	13
▶	Gorroto-delituak, hurbilketa bat	15
	Zer dira gorroto-delituak?	16
	Nola gauzatzen da indarkeria hori?	18
	Diskriminazioa eta gorrotoaren diskurtsoa	19
	Eragiten duten faktoreak	21
	Ikusezintasuna	22
	Estrategiak: <i>indarkerien continuum</i> horren aurrean, <i>erresistentzien continuum</i> bat.	23
▶	Ikerlanaren helburuak	29
▶	Lagina	31
▶	LGTBI komunitatearen egoera, sexu-joera edota genero identitateagatiko gorroto-delituei dagokienez	33
	EAE eta Espainiako estatua	34
	Nikaragua	35
	Guatemala	38
	Mexiko	41
▶	SJGI gorroto-delituen kontrako erresistentzia eta arintze-esperientzien azterketa	45
	Biziraupenerako erresistentziak	45
	Aurre egitea	56
	Eraldaketa	66
▶	Ondorioak	79
	Estrategiei buruzko gogoetak	79
	Ondorio orokorrak, etorkizunerako galderak	83
▶	Bibliografia	87
▶	Eranskinak	91
	Metodologia	91
	Elkarrizketa erdiegituratuen gidoia	95



## ► Aurkezpena

ALDARTE elkartean, genero- eta sexu-aniztasunaren esparruan lan egiten dugu; arreta berezia jartzen dugu Giza Eskubideen ikuspegian, eta LGTBI kolektiboarekiko aurreiritziak eta intolerantziak sortzen dituzten gatazkak konpontzeko irtenbide positiboak sortzea dugu helburu. ALDARTErentzat, gorputzak, generoak eta sexualitateak funtsezko elementuak dira, herritar osoak eta kritikoak sustatuko baditugu.

Kolektiboaren errealitatean kokaturik lan egin ezkerro, ezin da bazterrean utzi gure sexualitateagatik edo generoagatik estigmatizaturik gaudenok egunero pairatzen dugun indarkeria; araz kanpokotzat jotzen gaituzte, eta, sarritan, bereizkeriaren eta era guztietako abusu eta indarkeriaren jomuga zilegitzat hartzen gaituzte.

Horregatik, beharrezkoa iruditu zaigu Sexu-joera edota Genero Identitateagatiko gorroto-delituak (SJGI gorroto-delituak) jartzea ikerketaren muinean, LGTBI kolektiboaren kontrako eraso horien larritasunari eta inpunitateari erreparaturik uste baitugu berebiziko garrantzia duen gaia dela.

Behar horri heltzerakoan, interesgarria iruditu zaigu elkarren arteko gogoeta egitea, delitu horiek sexu- eta genero- aniztasunaren kolektiboan<sup>1</sup> dituzten eraginei ikuspegi osatu batetik begiratu ahal izateko. Aldi berean, jendartean eta politikan eragiteko zenbait baliabide eta estrategia –pertsonek zein taldekoak– ezaguturazi nahi ditugu, era horretako erasoei aurre egiteko eta haien ondorioak leuntzeko baliagarriak direlakoan.

Helburu hori gogoan, honelako galderak azaldu zaizkigu: antzekoak al dira, oro har, sexu-joera edota genero identitateagatiko gorroto-delituei aurre egiteko moduak? Ba al dago halako delituei aurre egiteko modurik, bide judizialaz harago?; hala bada, zeintzuk? Nola gauzatzen dira delitu horiek abian jartzen dituzten erresilientzia estrategiak? Zeintzuk dira LGTBI kolektiboetako errebindikaziorik behinenak? Zer erronka planteatzen dizkigute etorkizunari begira?

---

1. Gure ustez, jendarteko pertsona guztiak biltzen ditu 'sexu- eta genero-aniztasuna' esamoldeak, alabaina, ikerlan honetan zehar 'sexu- eta genero-aniztasunaren kolektiboa' esamoldea erabiliko dugu, noizean behin, 'LGTBI kolektiboa'ren ordezeko gisa; kolektibo horretako zenbait pertsonen nahiago dute lehen izendapen hura, euren buruak identifikatuago ikusten dute esamolde horretan, eta gurari hori kontuan hartu nahi izan dugu.



Esku artean, edo begien aurreko pantailan, duzun liburu honen helburua ez da SJGI gorroto-delituen diagnostiko zorrotza egitea, uste baitugu material nahikoa badagoela<sup>2</sup>. Ez du, ezta ere, errealitate guztietan aplikagarria den material gisa agertu nahi, pertsona orok baitu bere esperientzia eta bere errealitatea, eta horien arabera hautatu behar dira SJGI delituei aurre egiteko estrategia eta tresna zehatzak. Ikerlan honen abiapuntuan dagoen begirada feminista da, ez etnozentrikoa eta intereszkionala, eta onartzen dugu objektibotasuna ez dela existitzen, ezagutza ez baita, sekula, baliorik gabekoa, eta balio horiek islatu egiten dira bai ikerlanaren prozesuan baita emaitzetan ere<sup>3</sup>. Beraz, argitalpen honek ez du LGTBI aniztasun guztia biltzeko asmorik.

Alabaina, erreparatu nahi diegu era honetako indarkeriari aurre egiteko norbanakoek zein taldeek baliatu ohi dituzten estrategiei eta tresnei; modu horretara, jendartearen eraldaketarako eta jabeakuntza kolektiborako subjektu aktiboa dela onartzen diogu sexu- eta genero-aniztasunaren kolektiboari berari. Horren harira, parte hartu dugun testuinguru guztietan jasotakoa eta elkar bizitakoa bildu eta ordenatu nahi izan dugu, eta hala, Mexiko Hiriko, Guatemalako, Nikaraguako, Euskadiko eta Espainiako estatuko errealitateak agertuko ditugu.

Azterlan guztian zehar kontziente izan gara, eta gogoan hartu dugu, tokian tokiko errealitateak elkarren desberdinak direla, baina badituzte, halaber, puntu komunak, hala nola LGTBI kolektiboaren kontrako indarkeriak. Horrexegatik, argitalpen honen asmoa da **indarrak biltzea LGTBI kolektiboaren eskubideen aldeko borrokan**, gauzatu diren jardunbide arrakastatsuak partekatzeaz batera. Hala, ezagutza partekatu ahal izango dugu eta aliantza interpertsonalak eta nazioartekoak sortu ahal izango ditugu.

Sarritan kolektiboa osotasun modura hartuko badugu ere, jakinekoa da berezitasunak ere badaudela kolektiboaren beraren baitan. Horregatik, une jakin batzuetan, kolektiboaren parte bat aipatuko da berariaz, eta horren berezitasunez hitz egingo, batez ere lesbianeaz edota pertsona transgeneroez. Ikuspegi hori ere txertatzea ezinbestekoa zaio ALDARTERI, eta, gainera, ikerketan parte hartu duten pertsonen eta kolektiboek hala jarduteko eskari zehatza egin zuten.

---

2. Murgialday (2017); Eusko Jaurlaritza (2017); Mujika eta Altamira (2017); Barne Ministerioa, Segurtasunerako Estatu Idazkaritza, (2016); Observatorio Madrileño contra la LGTBfobia (2016).  
3. Fox Keller (1991) eta Harding (1987).

# ► Hurbilketa teorikoa

## — Desberdinak bainoago, askotarikoak gara pertsonak

Aniztasuna, askotarikotasuna da gure aberastasunetako bat, eta, gaur eguneko gure jendartean, segurutzat jo dezakegu generoa eta sexualitatea etengabe mugitzen direla eta mugimendu horretan aukera ugari agertzen zaizkigula geure buruak kokatzeko; aukera sorta zabal horrek barne hartzen ditu gure generoari eta gure sexualitateari buruz izan ditzakegun identitate, adierazpen edo bizipen askotarikoak, bai estereotipo tradizionalekin bat datozenak, baita horiekin lerratzen ez diren edo horietatik aldentzen direnak ere<sup>4</sup>.

LGTBI kolektiboaren historia modernoan akronimo ugari egon dira, eta badaude ordaindik ere, lesbianak, gayak, transgeneroak, bisexualak edo intersexualak izendatzeko (HL, LG, LGTB, LGTBI+, LGTTTB, LGTBQI...). Akronimoa nork baliatu behar duen, horrek baldintzatuko du bata edo bestea erabiltzea. ALDARTEn, estrategia modura, LGTBI akronimoa erabiltzea adostu dugu.

LGTBI kolektiboa osatzen duten pertsonen errealitateak sozialki heterogeneoak dira, aldakorak, eta, aldi berean, oso pertsonalak. Literatura ugari dago LGTBI izateak esan nahi duenari buruz, LGTBI izatea nolakoa den eta nolakoa ez den gai horri buruz. Hala, LGTBI zer den definitzea eztabaida sozial zabal baten gakoa izan da, eta izango da; eztabaida konplexua da, definizioak asko aldatzen baitira kulturen arabera eta historiako garaien arabera, eta esan beharra dago ez dagoela adostasun handirik ezta kolektiboa osatzen duten pertsonen artean ere. Dena dela, uste dugu adostasun handia dagoela baieztatzerakoan LGTBI etiketa erabiltzea estrategikoki oso baliagarria dela, nahiz eta etiketa hori erabiltzeak berez dakarren esperientzia askotarikoa, mugatzen zaila eta zehaztugabea izendapen bakarraren baitara ekartzea<sup>5</sup>.

Paisaia horren aurrean, LGTBI kontzeptua bere adiera osoan egin dugu geure, eta horrek esan nahi du barne hartzen dituela<sup>6</sup>:

---

4. Mujika (2008).

5. Zenbait egile (2015).

6. Gasteizko Udala (2018).

- *Lesbianak, gayak nahiz bisexualak*: hots, interes emozional, psikologiko, sozial eta sexual nagusiak euren genero bereko pertsonengana, edo euren generokoak direnengana eta ez direnengana, bideratzen dituzten pertsonak, nahiz eta agerian ez adierazi. Gainera, gure ustez, interes horiek ez dute zertan elkarren artean loturik egon, eta ez dute zertan indar berbera izan pertsona guztiengan. Testuinguru historikoagatik euren burua gaytzat baino gehiago homosexualtzat jotzen duten pertsonak bilduko genituzke hemen, baita aukera politiko modura –jendeak haiei esan ohi dizkien irainak erreibindikatzeke asmoz– euren buruari marikoi edo bollera esaten diotenak ere. Multzo honetan bilduko genituzke, halaber, queer modura agertzen diren horiek (ingelesean, “berezitxoak” esan nahi du queer hitzak), batere etiketarik nahi ez dutenak baita honelako definizioak erabiltzen dituztenak ere: bisexual ez bitarra, asexuala, demisexuala, emakume bisexuala, gizon bisexuala... eta oraindik zehaztu ez diren beste izendapen batzuk.
- *Pertsona Trans\*-ak*: trans aterki-hitza erabiltzen dugu, asteriskoarekin, azpimarratzeko bizipen askotarikoak dituztela emakumeek eta gizonak bakoitzak zer duen berezko finkatzen duten arauak gainditzen dituzten pertsona horiek; agerian utzi nahi dugu, halaber, bizi dugun genero sistema bitarraren zurruntasuna<sup>7</sup>. Multzo honetan sartzen ditugu pertsona transgeneroak, muxeak, trabestiak, genero identitate aldakor, fluido eta sortzaileetakoak, hijrak, transexualak, berdatxeak, etab. Oro har, jaiotzaz esleitutako generoa zalantzan jarri duten pertsonak, kontuan hartu gabe hormonatze prozesua izan duten edo ez, edo generoa berregokitzeko ebakuntza egin duten edo ez.
- *Pertsona intersexualak*: jaiotzatiko sexu bitartasuna zalantzan jartzen duten pertsonak, maskulinitzat edo femeninitzat erraz sailka ezin daitekeen genero anbigua dutena. Gure jendarteak sexu “benetako” bakar bat erakuts dezagun eskatzen digu, horri dagokion generoarekin eta heterosexualitatearen arau naturalari egokitutako sexualitatearekin<sup>8</sup>. Pertsona intersexualak egoteak, ordea, frogatu egiten du alde biologikoan ez dagoela hain argi maskulinoaren eta femeninoaren arteko banaketa, eta horiek dira gure ereduak eskaintzen dituen bi aukera bakarrak. Horrek adierazten du sexu aniztasuna badagoela. Biologikoki, esan daiteke sexua zabala dela, izugarri malgua eta maskulinoa/femeninoa kategorien murrizketak luzaz gainditzen dituela. Bi sexuen aruari aurka egitean bi sexu-bi genero-bi sexualitate parekatze ho-

---

7. Platero (2014).

8. Gregori (2015).

rrren koherentzia hankaz gora jartzen dela pentsatzea da ideala<sup>9</sup>. Laburtuz, pertsona intersexualek arazotsu bilakatzen dute jaiotzean egiten den sexu esleipena, eta aldaketarako erronka planteatzen diote gure sexua-generoa sistemari.

Etiketa sozialtzat hartzen dugu LGTBI izendapena, eta ez gara abiatzen ohiko definizio mediko, psikologiko edo sexologikoetatik. Gure iritziz, pertsona orok du nahi duen etiketa aukeratzea, kanpotiko begiraden menpe egon gabe; uste dugu pertsona LGTBlek etiketa hori onartzen dutela, baina esperientzia ugari biltzen dituen zerbait den aldetik, hurbilketa ugari izan ditzakeen errealitate askotarikoa, konplexua eta aldakorra biltzen duen aldetik, non etiketa horren barruan egon litezkeen pertsona guztiek ez dieten esanahi bera ematen euren bizipenei.

Horrez gainera, ikuspegi interseksional batetik heldu diegu LGTBI errealitateei, eta horrek ulertzen lagunduko digu kolektiboetako pertsona horiek zer egoera zehatz bizi dituzten beste antolatzaile sozialei dagokienez: adina, jatorri geografiko nahiz kulturala, aniztasun funtzionala, baliabideetara iristeko aukerak, etab.

## — Gure genero ikuspegia: genero arautzailea eta haren bazterkeria bitarrak

Sexua eta generoa kontzeptuak, sarritan, trukagarriak bailiran erabiltzen dira, eta hala jokatzeara traba da kontzeptu bien azterketa egiteko. Kontzeptuok bereizteko, esango genuke sexua biologiar dagokiola, eta generoa, kulturari. Oro har, hori esan genezake, nahiz eta hurbilketa hori ere sinplista den, sinplista baita pentsatzea sexua bat datorrela naturarekin, eta generoa, kulturarekin. Gaur egun eztabaida handia dago ikuspuntu horren inguruan, eta ezeztatzen ari da sexua kultura baino lehen edo kulturatik bereizita kokatzen duen ideia. Generorako gizona/emakumea hitzak erabiltzen baditugu eta sexuaz jarduteko emea/arra, bide segurutik ibiliko gara. Baina, beti ere, gogoan hartuta bai sexuak bai generoak badutela euren tokia kulturaren baitan. Denok jaiotzen gara gorputz mota batekin, eta gure kulturak “sexu” esaten dio horri, baina inor ez da neskaitila edo mutiko, emakume edo gizon jaiotzen, genero esleipen bat da hori, eta sozializazio prozesu konplexu baten bidez identifikatzen gara (edo ez) harekin<sup>10</sup>.

---

9. Idem.

10. Stryker (2017).

ALDARTEn baliagarriagoa gertatzen zaigu genero kontzeptua erabiltzea, baliagarriagoa, pertsonak euren egunerokoan dituzten genero identitate, genero-adierazpen eta genero-rol horiek ulertzeko, eta baliagarriagoa ikuspegia testuinguruarekin eta genero-zapalketa askotarikoekin lotzeko.

Generoa “gorputzen” sailkapen soziala da, eta zenbait pertsona-kategoria bereizten dira<sup>11</sup>. Horrek ematen dio zentzua pertsonari, eta horretan oinarritzen dira pertsonak bizi dituzten zapalketetako asko. Gaur egun, gure testuinguru kulturalan, sailkapen hori sexuan oinarritzen da (zehatzago, genitaletan), eta bitarra da.


Genero ikuspegi bat erabiltzen dugu, zentzurik zabalenean, gure egungo jendar-tean dagoen sexismoari aurre egiteko. Hala, gure abiapuntua da LGTBI kolekti-boaren errealitateei ikuspegi feministatik heldu behar zaiela, pairatzen dituzten bereizkeriak eta indarkeriak sexismoarekin lotuta ulertuko dituen ikuspegi bate-tik. Beraz, genero-sistemak hiru dimentsio dituela onartzetik abiatzen gara<sup>12</sup>.

- *Lehendabizikoa sexua da*. Gure gorputz ezaugarrien arabera bereizten gaitu, ar edo eme, eta arautik kanpo uzten ditu pertsona intersexualak, haien gorputzak ez baitatoz bat logika bitarrarekin eta horren korrespondentziekin (genitalki oso definituta dauden gorputzekin jaiotzen gara, ugalketarakoak, eta nerabezaroan, bigarren mailako karaktere sexual guztiz bereizgarriak garatuko ditugu).
- *Bigarren dimentsioa generoa da* (genero identitate/adierazpenak). Horren arabera, auresuposatzen da eme gorputza dutenek emakume gisa identifikatu behar dutela euren burua, eta ar gorputza dutenek, gizon modura. Dimentsio honetatik eratoritzen dira emakumeen eta gizonen posizioen pare-kotasun eza eta pertsona trans\*en bereizkeria, ez baitira identifikatzen sexua-ren arabera sozialki esleitu zaien generoarekin. Dimentsio honek finkatzen du identitateak bat etorri behar duela sozialki maskulino edo femeninotzat sailkatuta dagoen jokamoldearekin, eta hala, baztertu egiten dira emakume maskulinoak eta gizon femeninoak.
- *Azkenik, desira sexualari dagokionez*, heterosexualitatea auresuposatzen da, hau da, feminitatearen eta maskulinitatearen osagarritasuna. Azken di-mentsio honetatik kanpo gelditzen dira lesbianak, gayak eta bisexualak, hala nola arauz kanpoko sexualitatea duten bestelako pertsonak.

---

11. Idem.

12. Coll-Planas (2013).



Iturria: egileek landuta, *Dibujando el Género* (Coll-Planas, 2013) lanetik abiatuak

## — Garapen ez arautzaile baten alde

Ongizate estatua suntsitzen ari da krisi ekonomikoa deitu zaion hori, eta badirudi pertsonak eta haien beharrak direla garrantzi txikiena dutenak, bitarteko eta zerbitzu sozialak murrizten ari baitira irizpide ekonomiko hutsen arabera (diruzalekeria eta elkartasun eza oinarri) eta Europak, bere baitan blindaturik, harrera eta asilo eskubidea ukatzen baitie etorkinei. Nagusi den eredu, krisi sistemiko horren sortzailea den berbera, neoliberala eta etnozentrikoa da. Eta ezaugarri horiek intersekzioak sortzen dituzte planetako pertsona eta komunitateen bizitzetan, gorputzetan, generoetan eta desiretan.

Gure mendebaldeko jendarteak aurrera egin du LGBTBlen eskubideen inguruko legetan eta politika sozialetan. Alabaina, azpimarratu behar dugu ikuspegi arautzaile batetik, sistema nagusian integratzeko ikuspegitik egin duela, eta hala, arauz kanpoko gorputzak, generoak eta desirak dituzten pertsona asko baztertu ditu. Planteatzen den eredu LGBTBI hori demokrazia liberalei dagokiena da, eta ez du hausten genero- eta sexu-eredu arautzailearekin. Beraz, aurkezten diren irudietan, batetik Iparra agertzen zaigu, non aniztasun sexualaren kolektiboaren giza eskubideak errespetatzen diren (nahiz eta errealitatea oso bestelakoa izan), eta bestetik, Hegoa, non eskubide horiek sistematikoki urratzen diren (eta hori ere ez da guztiz egia). Hedabideetan eta sare sozialetan, Hegoko herrialdeak, oro har, eta Afrika eta Ekialde Ertaineko zenbait herri bereziki, “primitiboak” bailiran

agertzen dira, eta Iparreko demokrazia liberalak, ordea, eskubide horiek bermaturik dauden lurralde gisa. Aurkezten zaigun modura, arriskutsua da aniztasun hori aske bizitzea Hegoko herrialdeetan.


ALDARTEEn ez ditugu kolonialismo moduak errepikatu nahi, ezpada pertsonen eta herrien eskubideetan sakondu, uste baitugu pertsonen desiretatik landu daitezkeela sexualitatea eta generoa, pertsona horien testuinguruei eta antolaketa moduei erreparatuta, haiekin batera lan eginez, euren gorputz-aukerak, genero-aukerak eta sexu-harremanetarako aukerak eraiki ditzaten. Gure ustez, bai Ipar globaleko zein Hego globaleko pertsonen, kolektiboek eta herriek dugun erronketako bat honako hau da: lortu behar dugu bakoitzak nahi duen sexualitatea gozatzearekin edo nahi duen generoa bizitzearekin zerikusia duten eskubideak ez izatea bigarren mailako eskubideak, edo itxuraz lehentasunekoak diren beste eskubide batzuen menpekoak<sup>13</sup>.

---

13. NAHIA taldea (2016).

## ▶ Gorroto-delituak, hurbilketa bat

Aurrerago ikusiko den moduan, testuinguruen eta jarrera politikoen arabera, pertsona batzuek “gorroto-delitua” terminoa babesten dute, eta beste batzuek, berriz, “aurrejuzguengatiko delituak” edo “gorroto-krimenak” erabiltzen dute. Desberdinak dira, beraz, fenomenoia izendatzeko erabiltzen diren terminoak, eta desberdinak, halaber, azterlan honetan zehar ikusiko denez, delitu horiek zehazteko moduak eta SJGI gorroto-delituen biktima diren pertsonen bizipenak.



Zenbait legeriatan, gorroto-delituak (kontzeptu orokor modura ulertuta, tokian tokiko lege-izendapenak gorabehera) araututa daude, eta Zigor Kodean jasotzen dira. Beste herrialde askotan, ez dago era horretako delituen berariazko tipifikaziorik, baina badaude beste figura batzuk, zeintzuen arabera zigorra gogorragoa baita baldin eta delituaren arrazoia arauz kanpoko sexu-joera edo generoa dutenekiko gorrotoa izan bada; “inguruabar astungarriak” esaten zaie, eta haiektakoren bat gertatuz gero, zigorra gogorragoa izango da, delitua egitera bultzatu duten arrazoiak horiek izateagatik.

Alabaina, beste errealitate batzuetan, legeriak ez ditu kontuan hartzen sexu-joera edota genero identitateagatik erasoak. Herrialde horietan, kolektiboak, oro har, borrokan ari dira euren errealitateak eta beharrak, baita kolektibo horretako kide



izateagatik pairatzen duten eskubide urraketa, ikusarazteko; estatuak egoeraren erantzukizuna bere gain har dezan lortu nahi dute, dela zigor epaien bitartez, dela jendartea sentsibilizatu, hezi eta eraldatzeko programen bitartez.

Eta, azkenik, beste herrialde batzuetako legerietan, SJGI gorroto-delituak ez arautzeaz gain, pertsona LGBTBlak zigortuta daude, eta kolektiboko kide izateak kartzela zigorra eta are heriotza zigorra ekar dezake. “Sodomiaren” edo “lizunke-ria larriaren” kontrako legeriak dira<sup>14</sup>.

## — Zer dira gorroto-delituak?

Gorroto-delituak aipatzeko modu desberdinak daudela esan dugu, baina, hala ere, abiapuntu bat finkatze aldera, “gorroto-delituak” terminoa definitzen saiatuko gara, eta horren barruan, ikerlan honen xede diren sexu-joera edota genero identitateagatiko gorroto-delituak.

### Zedarritze kontzeptuala

Gorroto-delitua da *“zigor-arloko edozein arau-hauste, pertsonen edo jabetzen aurkako arau-hausteak barne, zeinean arau-haustearen biktima, tokia edo xedea aukeratzen baita talde bateko partaide, laguntzaile edo afiliatua izateagatik edo harekiko lotura edo sinpatia izateagatik, edo hala dela susmatzeagatik, eta taldea definitzen da hura osatzen duten pertsonak dituzten ezaugarri komunak direla medio, hala nola ‘arraza’, nazio- edo etnia-jatorria, hizkuntza, kolorea, erlijioa, adina, disfuntzio fisiko zein mentala, sexu-joera edo antzerako ezaugarri bat”*<sup>15</sup>.

Gorroto-delituak definitzen dituen ezaugarrietako bat da delitugileak, biktimari min emateaz gain, **mehatxu mezua bidali nahi diela biktimaren antzeko pertsoneri**, edo biktimaren erreferentziako kolektiboari; abisu-mezu bat da, haiei ere gauza bera gerta dakiekeela gartzigatzeko. Sexu-joera edo genero identitateagatiko gorroto-delituen kasuan, pertsona LGBTBlak osatzen duten kolektiboa estigmatizua eta errefusatua izan denez historian zehar, talde horretako kideen kontrako bortxazko erasoek (kolektiboko kide izate hutsagatik, are jarrera, janzkera eta abarren bidez taldeko kide izatea onartzeagatik) garrantzi eta eragin handi-  
goa dute kolektibo osoarengan. Hau da, pertsona jakin baten kontrako indarkeria da gauzatzen dena, baina, benetan, LGBTBI kolektibo osoaren kontrako eraso da.

---

14. Giza Eskubideen Amerika arteko Batzordea (2015).

15. Europako Segurtasun eta Lankidetzako Antolakundea (ESLA), (2003).

Sexu-joera edota genero identitateagatiko gorroto-delituak berdintasun printzipioa ukatzen dute eta giza eskubideak urratzen dituzte, sexu- eta genero-aniztasuna giza eskubideen parte baita<sup>16</sup>.

Sexu-joera eta genero identitateagatiko gorroto-delituak berariaz aipatzea nahiko errealitate berria dela esan dezakegu, eta zenbait ikerketa-testuingurutan bilakaera nabarmena izan du azken hamar urteotan. Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2008an egin zuen sexu-joera eta genero identitateari buruzko lehen adierazpenetako bat.

Adierazpen horretan, erakundeak kezka larria agertu zuen pertsona LGTBen giza eskubideen urraketa zela-eta<sup>17</sup>:

*“Nazio Batuen Batzar Nagusiak adierazten du ezen, eskualde guztietan, pertsonak indarkeria eta bereizkeria pairatzen dutela euren sexu-joera edo genero identitateagatik. Eraso horien barruan daude, nahiz eta ez diren horiek bakarrik: hilketak, bortxaketak eta eraso fisikoak, tortura, atxiloketa arbitrarioak, biltzeko eskubidea, adierazpenekoa eta informaziorakoa ukatzea, baita lanean, osasungintzan eta hezkuntzan bereizkeria pairatzea ere. Mundu guztiko pertsona LGTBlen ongizatea ezin daiteke neurtu bizi diren herrialdeko legeriaren arabera soilik. Sexu bereko helduen arteko harreman sexual onartuak zigortuta ez dauden herrialde batean bizitzeak ez dakar, berez, lesbianak, gayak edo pertsona transexualak bertan seguru egotea, indarkeria, jazarpena eta bestelako praktika diskriminatzaileak gauzatzen baitituzte estatuaz kanpoko agenteek, modu antolatuan edo ez, eta zenbaitetan baita agintarien babesarekin ere; adibidez, familiaren kasuan, gertuko jendartearenean (auzokideak/komunitatea), edo beste zenbaitetan.”*

Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Mandatari Navi Pillayk, bestalde, honako hau adierazi zuen 2012an: *“Gutziz sustraiturik dauden jarrera homofobi-koen eraginez, sarritan babes juridiko egokirik ezak lagunduta, adin guztietako eta munduko zonalde guztietako pertsona LGTB askok arrisku larria dute euren giza eskubideak urra ditzaten. Mundu guztiko herri eta hirietako kaleetan jasan ohi dituzte eraso fisikoak: jipoiak, kolpeak, abusu sexualak, torturak eta hilketak. Eta 75*

---

16. Mujika eta Villar (2009).

17. Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Mandatariaren Bulegoa (2011).

*herrialde baino gehiagotan, lege diskriminitzaileek zigortu beharreko jokaera gisa tipifikatzen dituzte sexu bereko pertsonen arteko harreman pribatu eta onartuak, eta pertsona horiek atxilotuak, auziperatuak eta kartzelatuak izateko arriskuan uzten dituzte”<sup>18</sup>.*

## — Nola gauzatzen da indarkeria hori?

Figura juridiko askotarikoei erantzuten dieten pertsonak edo taldeek gauza dezakete indarkeria hori. NBEren arabera, LGTBI komunitatearen kontrako aurrejuzguengatiko erasoak, normalean, estatuaren parte ez diren agenteek egiten dituzte: norbanakoek, talde antolatuek zein muturreko erakundeek; alabaina, ezinbestekoa da agerian jartzea estatu-agintariek, sarritan, ez dutela ez ikertzen ez zigortzen era horretako indarkeria. Hala jokaturik, estatuak ez du bere eginbeharra betetzen, pertsona guztien bizitzarako, askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea babestu behar baitu<sup>19</sup>.

Lehen ikusi dugun moduan, testuinguruaren eta begirada politikoaren arabera alda daiteke sexu-joera edota genero identitateagatiko gorroto-delituez hitz egiteko erabiltzen den terminologia. Zentzu horretan, Giza Eskubideen Amerika arteko Batzordea (Comisión Interamericana de Derechos Humanos – CIDH)<sup>20</sup> aurrejuzguengatiko indarkeria kontzeptutik abiatzen da ulertzeko nolakoa den generoaren arau tradizionalen –gizona/emakumea binomioa– urratzaile gisa hautematen diren pertsonen kontra eta ohiko gorputz “femenino” edo “maskulino” estandarrekin bat ez datozen gorputzak dituzten pertsonen kontra egiten den indarkeria. Giza eskubideetarako nazioarteko organoek ez dute oraindik finkatu sexu-joeran, genero identitatean eta gorputz-aniztasunean oinarrituriko aurrejuzguen eragindako indarkeria barne hartzen duen definiziorik.

---

18. NBE, Txostena (2012).

19. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren artikulua, eta Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituneko 6. eta 9. artikulua.

20. Giza Eskubideen Amerika arteko Batzordea (2015)

## — Diskriminazioa eta gorrotoaren diskurtsoa

**Gorroto-delitua, batzuetan, diskriminazioarekin nahas daiteke.** Hala gertatzen da testuinguru bakoitzean desberdinak direlako terminoak ulertzeko modua baita tokian tokiko legeriak eta errealitate soziokulturalak ere. ALDARTEn uste dugu, eta hortik abiatzen gara, diskriminazioaren tratamendua, oro har, maila zibilean, sozialean eta administratiboan kokatzen dela. Ez da erraza kontzeptu biak bereiztea, zeren **gorroto-delituak** diskriminazioa baitute atzean, eta, aldi berean, zenbait ekintza diskriminatzaile delitu dira.

Diskriminazioa ondorio-eragin bat gehiago da, beste intolerantzia jokamolde bat, eta halakoak dira, halaber, estigmatizazioa, difamazioa, segregazioa, marjinazioa, jazarpena, giza hilketak baita gizateriaren kontrako krimenak ere.

Europako zuzentzaruek “tratu kaltegarri” gisa definitzen dute **diskriminazioa**. Bereizkeriak edo diskriminazioak esan nahi du legearen aurreko berdintasun printzipioa ukatzea, tratu-berdintasuna edo aukera-berdintasuna ukatzea, eta hori ez da gorroto-delituaren funtsa; gorroto-delituak pertsonaren berezko duintasunari (balioari) eta Giza Eskubideen unibertsaltasunari eragiten diete<sup>21</sup>.

Gorroto-delituarekin loturik, **‘gorrotoaren diskurtsoa’** dugu. Definizioaren arabera, adierazpen bat da, eta *“barne hartzen ditu arrazagatiko gorrotoa, xenofobia, antisemitismoa zein intolerantzia oinarritutako bestelako gorroto-modu batzuk zabaltzen, sustatzen, bultzatzen edo justifikatzen dituen adierazpen oro; barruan sartzen dira, halaber, nazionalismo erasotzailearen bidez adierazitako intolerantzia, etnozentrismoa, baita gutxiengoen, immigranteen eta jatorriz immigrante diren pertsonen kontrako diskriminazioa eta etsakeria ere”*<sup>22</sup>.

---

21. Zaila da gorroto-delituetatik bereiztea, zeren diskriminatzailetzat jo dezakegun jokamolde bat delitu gisa egon baitaiteke aurreikusita zigor arautegian. Adibidez, bi neska kaleratzen badituzte taberna batetik elkarri maitasuna adierazi eta musu eman diotelako, pentsa genezake diskriminazioa izan dela. Baina Espainiako Zigor kodeak delitu modura arautzen du jokamolde hori (zerbitzua emateari uko egitea; kasu honetan, saltoki batetik kaleratzea), eta gorroto-delituen kategoria barruan sar daiteke.

22. Europako Kontseiluaren Ministroen Batzordearen 20. ebazpena, 1997.

EZ DAGO GORROTOAN  
OINARRITUZAKO  
DISKURTSORIK

GABEKO GORROTO  
DELITURIK

— versus —

## ADIERAZPEN ASKATASUNA

Giza Eskubideen Amerika arteko sistemak zenbait estandar finkatu dituen arren, nazioarteko zuzenbidean ez dago mundu guztiak onartzen duen definiziorik “gorrotoaren diskurtsoa” den horretarako. Nazioarteko zuzenbidean agertzen ziren gorrotoaren diskurtsoaren definizioak aztertu zituen UNESCOk, eta kale-ratu zuen txostenean adierazi zuen honako hauek aipatu ohi direla kontzeptua horrekin:

*“Min ematera bultzatzen duten adierazpenak (batez ere diskriminazioa, etsakeria edo indarkeria bultzatzen dutenak), biktima talde sozial edo demografiko jakin bateko kide dela oinarri hartuta. Horien barruan sar daitezke, besteak beste, indarkeriazko ekintzak egitera bultzatzen duten, horren mehatxua egiten duten edo horretarako arrazoiak ematen dituzten diskurtsoak. Dena den, zenbaitentzat, kontzeptua zabalagoa da, eta aurrejuzgu eta intolerantzia giroa bultzatzen duten adierazpenak ere hartzen ditu barne, halako giro batek pertsona jakin batzuen kontrako diskriminazioa, etsakeria eta eraso bortitzak susta baititzake”.*

Gorrotoaren diskurtsoak adierazpen askatasunarekin du muga, eta hura murriz dezake, etengabekoa baita bien arteko talka. Nolanahi ere, garrantzitsua da gorrotoaren diskurtsoa ez nahastea adierazpeneko jardunetan (mehatxuak eta sexu-indarkeria, adibidez) oinarria duten “gorroto-krimenekin”, adierazpen askatasunerako eskubidearen babesetik guztiz kanpo baitaude era horretako adierazpenak.

Horri dagokionez, Espainiako estatuko LGTBI kolektiboko kide batek nabardura bat egin zigun, berarekin egindako bakarkako elkarrizketan; hark esan zigunez, halako batean lege bat onartuko balitz, eta haren arabera posible balitz *“apaiz bat kartzelan sartzea homosexual guztiak infernura joan beharko luketela esan du-lako, haren adierazpen askatasuna murriztea litzateke, eta hori beti dator bueltan. Zeren, adierazpen askatasuna murriztea ahalbidetzen duten legeak edo arauak sortzen direnean, (...), beste aldean ere suerta baikaitzke”* (Lidia, Espainiako estatua).

## — Eragiten duten faktoreak

Gorroto-delituak ikuspegi global batetik aztertu nahi baditugu, kontuan hartu behar dugu zer egoeratan dauden munduko herri eta herrialdeak alor horri dagokionez. Hau da, SJGI gorroto-delituetara hurbilduko gara horiek sortu diren testuingurua kontuan hartuta.

**Badaude zenbait xehetasun eta bereizgarri**, era askotako egoerek sorraraziak (sozialak, erlijiozkoak, kulturalak, lege alorrekoak...), eta asko baldintzatzen dute gorroto-delituak nola gertatzen diren. Lehen une batean, testuinguru hori gertuko testuinguruaren sinonimotzat jo genezake, **baina gorroto-delituen gai honetan badago, halaber, logika global bat, zeinak begirada zabaltzera behartzen gaituen**, kontuan hartu behar baitugu delitu horiek testuinguru zabalago bat ere badutela.

Ikuspegi global batetik begiratzen badiogu LGTBI kolektiboak jasaten duen indarkeriari, hurrengo **ezaugarri komun hauek** finka ditzakegu:

**Honako hauek dira pertsona LGTBI en kontrako indarkeriaren ezaugarri eta bereizgarri nagusienak:**

1. **“Zigortu” egiten dira genero-arau eta rol tradizionalekin bat ez datozen identitateak, jokamoldeak edo gorputzak, baita gizona/emakumea sistema bitarretik kanpo, edo horren ertzetan, daudenak ere.**
2. **“Garbiketa sozialeko” kanpainenetan, sexu-langileak zonalde jakin batzuetatik joatera behartzeko egiten ziren erasoak, edo LGTBI pertsonak toki jakin batzuetan (tabernak, diskotekak...) bil ez zitezten.**

3. Norbait gay, lesbiana, bisexual edo trans modura hautemana izateak arriskuan jartzen du pertsona hori. Beraz, garrantzitsuena ez da nork bere burua nola ikusten duen, ezpada besteek nola “hautematen” duten edo talde jakin bateko kideztat hartzen ote duten.

## — Ikusezintasuna

LGTBI kolektiboaren kontrako indarkeria kasuetan, sarri askotan, zenbait arazo komun gertatzen dira, eta haien eraginez zailagoa edo ezinezkoa gertatzen da SJGI gorroto-delituak behar bezala ikertzea eta epaitzea. Arazo horien kausa nagusiak hiru hauek dira:

**1) Gorrotoak eragindako kriminalitateari buruzko datu fidagarririk ez egoteak arazoaren norainokoaz eta larritasunaz kontzientziarik ez izatea ekarri ohi du.** Botere publikoek gaien benetako garrantzi kuantitatiboa eta, batez ere, kualitatiboa zein den ez dakitenez, batzuetan ez dituzte benetako estatu-politika kriminal baterako neurri egokiak diseinatzen, elkarbizitzaren muinari zuzenean eraso egiten dion kriminalitate mota honi aurre egiteko. Eta kontzientzia ezak eragina du, halaber, poliziengan, fiskalengan eta epaile zein magistratuengan, formakuntza eta trebakuntza egokirik ez dutenez, ez baitute, zenbaitetan, gorroto-delitu bat detektatzeko, egiaztatzeko eta epaitzeko gaitasun tekniko nahikorik, eta ondorioz, ez dute ematen herritarrek euren zerbitzari publikoengandik espero duten erantzun egokia.

# IKUSEZINTASUNA



Beste DELITU  
batzuetan  
desegiten dira



**2) Giza eskubideen defendatzaileek ez jakitea, edo ez antzematea, LGBTI populazioaren kontrako indarkeria SJGI gorro-delitua dela.** Segurtasuna bermatu eta justizia eman behar duten profesionalak delitu horiek ez ezagutzeak eta ez aztertzeak halako injustizia sentimendu bat eragiten dute, baita, neurri batean, eskubideen babeserako sistemaren porrota ere; ondorioz, frustrazioa ez ezik, poliziarekiko eta justizia administratzen dutenekiko mesfidantza areagotzen da.

**3) Biktimek salaketarik ez jartzea.** Era honetako indarkeria pairatu duten pertsona asko ez dira ausartzen salaketa jartzera, bereizkeria normalizaturik dagoelako euren egunerokoan –eurek ere hala barneratu dute–, ez dutelako konfiantzarik segurtasun indarrek edo justizia funtzionarioek salaketa horiei erantzuteko ikerketak edo neurri legalak bideratuko ote dituzten (uste dute pairatu dutena ez zaiola inori interesatzen edo ez dutela euren lekukotasuna sinetsiko) eta LGBTI populazioaren gainean dauden tabuagatik eta isiltasunagatik. Salaketak ez jartzea guztiz loturik dago, baita ere, sexu- eta genero-aniztasunaren kolektiboko kide modura agertu nahi ez izatearekin.

— **Estrategiak: *indarkerien continuum* horren aurrean, *erresistentzien continuum* bat.**

Pertsona LGBTIek indarkeria askotarikoak pairatu dituzte familiaren esparruan, eskolakoan, lanekoan, komunitatekoan, gune publikoetan, etab.; hau da, indarkeriaren continuum bat. Hautaketa irizpide batzuen eraginez, zenbait pertsonak erasoak jasateko probabilitate handiagoa dute, eta hauek dira irizpideok: ikusgaitasun handiagoa, nor bere sexu-joera jendaurrean onartzea, genero ez arautzailerik adieraztea edota LGBTIen eskubideen aldeko talde edo kolektiboren batekoa izatea.

Irizpide horiek, askotan, estuki lotuta daude erresistentziarekin, eta, indarkeriaren continuum horren aurrean, LGBTI kolektiboak erresistentzia eta estrategia *continuum* bat osatu du indarkeriari eta gorroto-delituei aurre egiteko. Erresistentzien *continuum* hori abiatzen da jendeak genero- eta sexu-ordenari buru egiten diotenean eta heteroarautik aldentzen denean.

Modu eta gradu askotarikoak dituzte erresistentzia horiek, eta hiru multzo nagusitan sailka ditzakegu: biziraupenerako ekintzak, aurre egiteko mekanismoak eta eraldaketarako estrategiak<sup>23</sup>.

---

23. Memoria Historikoaren Zentro Nazionalea (2015).



Estrategia mota	Nola gauzatzen den
Biziraupenerako ekintzak	Jendeak bere osotasun fisikoa edo segurtasuna babesteko hartzen dituen neurri puntual eta berehalakoak.
Aurre egiteko mekanismoak	Pairatutako erasoak eta indarkeria gainditzeko erabiltzen edo praktikan jartzen diren bitartekoak; norbanakoek zein taldeek baliatzeko mekanismoak izan daitezke.
Eraldaketarako estrategiak	Ordura arteko bizi baldintzak eraldatzeko xedez eta denbora tarte batez gauzatzen diren erantzun eta ekintza antolatuak.

## Biziraupenerako ekintzak

“**Biziraupenerako ekintzak**” dira jendeak bere segurtasuna babesteko hartzen dituen neurri puntual eta berehalakoak. Hala, indarkeria baliatu duten haiekin lehenagotik zeuden loturak edo harremanak ere balia daitezke, lotura afektiboak indartzuz edota negoziazioak eginez zuzeneko liskarrak saihesteko. Beste bide bat da “kamuflajea” erabiltzea arriskuak murrizteko; hots, oharkabean pasatzen saiatzea. Modu horretan heteroaraua erreproduzitzen da, nagusi den maskulinitasuna edo emetasuna birsortzen, eta jendea eredu horietara egokitzen da.

Lehen esan dugunez, indarkeria pairatzeko arrisku handiagoa dago zenbait hautaketa irizpideren arabera, eta haietako batean, pertsona ezagun eta nabaria izate horretan du abiapuntua estrategia honek; beraz, “kamuflajea” erabiltzen da jendarte eta ingurune gertuenekoak balia lezakeen bereizkeria, estigmatizazio eta bakartze radarra saihesteko.

Nolanahi ere, kolektiboko pertsona ageriko guztiek ez dute indarkeria pairatzen, komunitateak babesa eta laguntza ere eskain baitezake; jabekuntzarako eragilea izan daiteke. Pertsona batzuek, nor bere gertueneko inguruak eta bere erabakiak bultzaturik, ikusezintasuna aukeratzen dute, eta beste batzuek, berriz, hipe-ragerikoak izatea, bakoitzak sentitzen dituen beharren eta erosoan bizi duen estrategiaren arabera.

Zenbaitetan, aurka egitea edo zuzeneko konfrontazioa ere erabiltzen dira. Ekintza horiek **ekintza-erreakzioa** mugimenduak bultzaturik egon ohi dira, eta bortizke-

ria jakin baten aurreko berehalako erantzuna izaten dira, une horretan **jarrera aktiboa** hautatzen baita. Aurre egiteko modu horrek beldurra gainditzea eskatzen du, eta duintasun handiagoa ematen dio erasoak pairatu duen pertsonari. Nork bere giza eskubideak behin eta berriro urratuta ikustearen nekeak aktibatzen du, sarritan, estrategia hau.

Kemen handia behar da erasoak burutu duen pertsonari edo kolektiboari aurka egiteko, eta modu askotara egin daitezke: ahoz erantzunez, erasoak egin duenaren aurrean ekintza sinbolikoak eta zuzenak eginez, jendaurrean salatuz, indarkeriari erresistentzia eginez, kolektiboki buru eginez edo erantzun legalak eta judizialak bideratuz.

## **Aurre egiteko mekanismoak**

**“Aurre egiteko mekanismoak”** dira pairatutako erasoak gainditzeko, jasandako indarkeriari beste esanahi bat emateko, ondorioak onartzeko eta bizi proiektuak berreraikitzeke erabiltzen edo praktikan jartzen diren bitartekoak; norbanakoek zein taldeek baliatzeko mekanismoak izan daitezke.

Erabiltzen diren estrategietako batzuk dira: sareak eta loturak sortzea, gune kolektiboetan eta formakuntzakoetan parte hartzea, lan eta hezkuntza inguruneak duintzea eta bizi izandako errealitateari aurre egiten laguntzen duten espiritualtasun moduak lantzea. Aurre egiteko mekanismoek euskarri emozionala eta materiala ematen diete gorroto-delituak jasan dituzten pertsonari, eta pairatutako indarkeriaren ondorioak leuntzeko aukera eskaintzen.

Erresistentziarako sareak eta harremanak, familiakoak, komunitatekoak, lagunek zein erotiko-afektiboak, jabekuntzarako eragile gertatzen dira, eta indarkeria LGTBIfobikoaren eragina leuntzeko balio dute. Lokarri horiek sendoak direnean, aktibatu izan ohi dira, eta babesa ematen dute zenbait mailatan: sozialean, emozionalean eta ekonomiko-materialean. Horrek bere burua berreraikitzen laguntzen dio indarkeria jasandako pertsonari. Gainera, kontuan hartzen badugu sexu- eta genero-aniztasunaren kolektiboko kide diren pertsonen, askotan, euren ingurune gertuenekotik aldendu behar izan dutela eta familiarekiko eta komunitatearekiko harremanak ahuldu direla, sare afektibo sendo eta osasuntsu bat eraikitzea sostengu handia da haientzat, eta bakardade sentimenduekin hausteko lagungarri gertatzen zaie.

Hautsitako lokarri afektiboak berreraikitzeak bizi-proiektu pertsonalak indartzeko laguntzen du, eta sarritan, funtsezkoa gertatzen da errehabilitazio prozesurako. Hala, lokarri horiek aurre egiteko eta gainditzeko bitarteko bilakatzen dira. Lokarriak ez egoteak, ordea, bazterketa egoerak errazten ditu, eta eraso bortitzek eragindako ondorioak larritzen.

Lokarri afektiboen bidez, elkarlaneko dinamikak sortzen dira, dela berehalako behar oinarritzkoen inguruan, dela epe ertain eta luzeko laguntzari eta babesari dagokienez. **“Familia sozial”** horiek gaitzespenari eta indarkeriari buru egiteko mekanismo modura erabiltzen den alternatibetako bat dira, eta emozionalki zein materialki biziraun ahal izateko jendarte bat sortzen dute. Sare horrek eragin nabarmena izan du, halaber, hezkuntza edo lan alorrean hobekuntzak bilatzerakoan, eta horrek baldintza ekonomikoak hobetzeko aukera ere badakar.

Horrekin batera, azpimarratu behar da oso garrantzitsua dela LGTBI kolektiboaren kontrako indarkeriaren *continuum* hori hausten duten lan- eta hezkuntza-gune egokiak edukitzea, non posiblea den bakoitza den modukoa izatea, norberaren sexu-joera eta genero identitate eta adierazpena ezkatatu beharrik gabe.

Lehenago esan den moduan, LGTBI kolektiboko beste pertsona batzuekin bilgune, talde eta erakundeetan aktiboki parte hartzearen estrategiak bidea ematen du norberaren esperientziez gogoeta egiteko eta bizi izandako indarkeriari beste esanahi bat emateko. Hala, eragiletza bultzatzen da, eta kolektiboaren parte izatearen sentimendua sortzen da.

## **Eraldaketarako estrategiak**

**“Eraldaketarako estrategiak”** denbora tarte batez gauzatzen diren erantzun eta ekintza antolatutakoak dira, eta haien helburua da ordura arteko bizi baldintzak eraldatzea eta sexu- eta genero-aniztasunaren kolektiboa inguratzen duten estereotipoak deuseztatzea. Indarkeria LGTBIfobikoa sorrazten eta sostengatzen duten iruditeria sozialak hautsi nahi dituzte “mendetasunetik askatzeko errebel-dia” jarrera eta jardunbide hauek. Estrategia hauek jendaurreko alorrean baliatu ohi dira, eta bestelako antolaketa modu batzuk eta boterea erabiltzeko bestelako praktika batzuk garatzea dute helburu.

Eraldaketaren bilaketarako lehen gakoetako bat ikusgaitasuna da. Alabaina, ikusgaitasuna ez da modu bakar batean gauzatzen, eta zenbait mailatik jardun daiteke. Horietako bat da nork bere sexu-joera eta generoa agerian azaltzea, ikusgai

bilakatzea; beste bat, pairatutako indarkeria ikusaraztea, dela modu pertsonalean dela taldean, eta beste hirugarren bat marginalitatekanpoko eta nolabaiteko boterea duten espazio eta errealitateak okupatzea.

Zenbait bide erabil daitezke horretarako, eta ibilienetako bat da arteak baliatzea eraldaketarako tresna gisa. Arteak bozgorailu sozial bilakatzen dira, eta aukera ematen dute isildurik egon diren ahotsak entzun daitezen; arteek forma eskaintzen dute indarkeria eta erresistentzia errelatoak kontatzeko, eta jendearen mobilizazio prozesuak ere sorraraz ditzakete. Horrez gainera, arteek duten alde pedagogikoari esker, estereotipoak zalantzan jartzeko eta lesbiana, gay, trans eta bisexualei buruzko iruditeria berriak sortzeko balio dezakete.

Eraldaketerako beste dimentsio bat antolaketa soziala eta parte hartze politikoa dira, prozesu horretan biktima izatearen ideia bizirik atera izanaren ideia bilaka dadin. Erresistentzia estrategia honekin elkarlana sortzea, berreskuratzea eta indartzea bilatzen da, baita taldearen eta pertsonen formakuntza eta hazkunderako guneak sortzea ere. Beti ere, eraldaketa sozialari begira.

Talde antolaketak botere handiagoa ematen du, presentzia handiagoa eta jendartera, oro har, heltzeko gaitasun handiagoa, hala exijitu ahal izateko LGBTI populazioaren giza eskubideak ere errespetatu eta bete daitezen. Indar horri esker, posible gertatzen da, sarritan, norberak ezaguna duen ingurunetik alde egin behar ez izatea, eta norbera hazi den toki horretan, bizitzeko aukeratu den toki horretan indar eta presentzia handiagoaz jarraitu ahal izatea.

Azkenik, eta memoria historikoaren ikuspegitik, eraldaketa sozialerako guztiz funtsezkoa da indarrean dagoen ordena sozialaren-pertsonen subjektibotasunetatik eraikia-gaineko gogoetari helduko dioten dimentsio sozialak eta politikoak eskaintzea. Modu horretan, ikuspegi eta angelu askotarikoetatik berreraikiko da historia. Garrantzitsua da, batez ere, funtsean politikoa eta eraldatzailea delako indarkeria euren larruan paraitu duten eta SJGI gorroto-delituetatik bizirik atera diren horiei ahotsa ematea.



## ► Ikerlanaren helburuak

Bi helburu finkatu dira ikerlan honetarako; batetik, “SJGI gorroto-delituei aurre egiteko bakarka nahiz kolektiboki garatzen diren estrategiak –delituok desagerrarazteko, leuntzeko eta horietan eragiteko estrategiak– ezagutu, ikusarazi eta partekatze modua eskainiko duen diagnostiko eguneratu bat egitea”, eta bestetik, “dauden erronkak identifikatzea, eta sexu-joeragatiko edota genero identitateagatiko gorroto-delituoen kontrako ekintza kolektiboak hobetzeko moduak antzematea”.

Sexu-joeragatiko edota genero identitateagatiko gorroto-delituei aurre egiteko estrategiak ikusarazi eta partekatzeari dagokienez, arreta berezia jarri da hiru puntu hauetan: “pertsonek LGTBLek bizirauteko edo euren segurtasuna babesteko erabiltzen dituzten estrategia eta ekintza puntualak ezagutzea”, “jasandako eraso eta indarkeriei aurre egin eta horiek gainditzeko baliatzen diren tresna eta bitartekoak –banakakoak zein taldekoak– identifikatzea” eta “bizi baldintzak eraldatzeko eta indarkeria eta estereotipoak desagerrarazteko baliatzen diren erantzun, ekintza eta neurri antolatutako definitzea”.

Orainari ez ezik etorkizunari ere begiratu nahi diogunez, xedetzat planteatu dugu, halaber, “giza eskubideen defentsarako kolektiboaren (mugimenduak sozialak, herri mugimenduak eta mugimendu instituzionalak) eta LGTBI kolektiboaren artean dauden elkarrekintzak ezagutzea”, gaur egun dauden sareak ezagutzeko eta “maila guztietako aliantzak sortzen laguntzeko: tokian tokikoak, nazionalak, eskualdekoak zein nazioartekoak”.



## ► Lagina

Egindako landa-lanean, guztira, sexu- eta genero- aniztasunaren kolektiboko 55 pertsonak hartu zuten parte. Parte hartzeko bi modu egon ziren; 21 pertsonari elkarrizketa egin zitzaion, eta 34 pertsonak eztabaida-mahaietan hartu zuten parte.

Nahiz eta egia izan parte hartu duten pertsona guztiak ez direla LGBTI kolekti-boetako langileak edo militanteak, guztiak dira kolektibo horietakoren batetik oso gertu dauden pertsonak. Jarraian dagoen taulan ikus daitekeenez, elkarrizke-tatu diren pertsonen artean sexu- eta genero-aniztasunaren 13 kolektibo azaldu dira, eta eztabaida-mahaietan parte hartu dutenen artean 14 kolektibo zenbatu ditugu.

	<b>Partaideen kopura</b>	<b>Kolektiboen kopurua</b>	<b>Ekintzaileen kopurua</b>
<b>Elkarrizketak</b>	21	13	14
<b>Eztabaida-mahaiak</b>	34	14	17
<b>Guztira</b>	<b>55</b>	<b>27</b>	<b>31</b>

Generoa edo desira izendatzeko moduari dagokionez, esan dezakegu nahiko talde askotarikoa izan dela, nahiz eta badakigun beti geratzen dela kanpoan errealitatearen bat, beti geratzen dela ahotsen bat jaso gabe. Gure ikerlan honetan, ezinezkoa izan zaigu gizon transen kolektiboko ordezkariaren bat inguratzea, nahiz eta horretan saiatu garen eta harremanen bat ere izan dugun. Argi adierazten du horrek noraino den ikusezin kolektibo hori. Adierazi behar dugu, halaber, ikerlan-ean parte hartu duten pertsona guztiak ez dutela euren burua identifikatu nahi izan generoari edo desirari dagokienez, eta beraz, genero eta desirari buruzko sailkapenetako batuketak egitean behin ere ez dugu 55 emaitza lortuko, parte hartu duten pertsonen kopurua hori izan arren.



	Generoa				Sexu-joera				
	Gz	E	T	B	H	L	G	Bi	B
<b>Elkarrizketak</b>	3	9	4	2	3	10	2	2	1
<b>Eztabaida-mahaiak</b>	8	15	7	5	3	13	10	3	5
<b>Guztira</b>	<b>11</b>	<b>24</b>	<b>11</b>	<b>7</b>	<b>6</b>	<b>23</b>	<b>12</b>	<b>5</b>	<b>6</b>

Gz=Gizona | E=Emakumea | T=Trans | H=Heteroa | L=Lesbiana | G=Gay | Bi=Bisexual | B=Bestelakoa

Parte hartzaileen adin tartea oso zabala izan da, 22 urtetik 61era bitartekoa. Bitxikeria modura esan dezakegu jende gazteak, 35 urtetik beherakoak, elkarrizketa-mahaietan hartu duela parte gehien bat, eta 25 urtetik beherako pertsona bakar bati ere ez zaio elkarrizketa egin.

	Adina			
	-25	25-35	35-45	45
<b>Elkarrizketak</b>	0	6	7	5
<b>Eztabaida-mahaiak</b>	9	14	2	9
<b>Guztira</b>	<b>9</b>	<b>20</b>	<b>9</b>	<b>14</b>

Lehenago esan dugun moduan, badakigu beti gelditzen direla kanpoan errealtate batzuk, eta adineko pertsonekin osa zitekeen lagina, zailagoa gertatu baitzaigu haiengana heltzea. Horrek adierazten du, halaber, ikusgaitasun eta erreferentzia eskasa duela adin tarte horrek kolektiboaren barruan.

Azkenik, parte hartu duten pertsonen eguneroko testuinguruari dagokionez, horietatik % 79,25 hirietan eta hiri inguruetan bizi da gaur egun, eta % 20,75 landa eremuetan. Horrekin batera, migrazioak ere egon direla ikusi ahal izan dugu, jatorrizko estatuen barruan baita estatu horietatik kanpora ere. Guztira, sei barne migrazio egon dira, eta jatorrizko estatutik kanporako hiru migrazio.

## ► LGTBI komunitatearen egoera, sexu-joera edota genero identitateagatiko gorroto-delituei dagokienez

Atal honetan, labur bada ere, liburu honen lanketan parte hartu duten testuinguruetako errealitateak jaso nahi izan ditugu, eta, horretarako, haietako bakoitzaren egoera zehatza agertuko dugu. Lehenago esan dugun moduan, gorroto-delituak ez dituzte berdin ulertzen testuinguru guztietan, ezta pertsona guztiek edo jarrera politiko guztiek ere; desberdinak dira, halaber, gertaera bereberei ematen zaien izendapen juridikoa. Hala, errealitate bakoitza aztertuko dugu: kolektiboek aipatu dituzten gertaera historiko garrantzitsuenei erreparatuko diegu, eta sexu-joera eta genero identitateagatiko delituen argazki txiki bat eskainiko dugu<sup>24</sup>.

Azaldu behar dugu, halaber, hala baieztatzen baitute txosten eta erakunde sozial ugari, muga handiak daudela zehazteko zein den LGTBI komunitatearen kontrako gorroto-delituen problematikaren benetako dimentsioa, ez baitago delitu horiek eta euren ezaugarriak biltzen dituen erregistro ofizialik. Hori dela eta, pertsona LGTBlen eskubideen defentsan eta sustapen-lanetan diharduten erakundeak eurak izan dira, giza eskubideen erakundeen laguntzarekin, gorroto-delitu horiek argitara ekartzeko eta haien segimendua egiteko zereginari ekin diotenak<sup>25</sup>.


Latinoamerikan, Giza Eskubideen Amerika arteko Batzordeak (Comisión Interamericana de Derechos Humanos – CIDH) kezka bizia agertu zuen, behin berriro ere, pertsona LGTBlen kontrako erasoak eta diskriminazioa direla-eta, eta Amerikako Estatuaren Erakundeko (Organización de los Estados Americanos – OEA) kide diren estatuei dagokie urgentziazko neurriak hartzea diskriminazio eta indarkeria horri aurre egiteko.

---

24. Informazio iturri izan ditugu gaiari buruz argitaratutako txostenak eta diagnostikoak (aipamen zehatza egiten da) baita elkarrizketak eta eztabaida-mahaiak ere.

25. Nazioarteko Justiziaren eta Zuzenbidearen aldeko Zentroa (Centro por la Justicia y el Derecho Internacional-CEJIL), 2013.

## — EAE<sup>26</sup> eta Espainiako estatua



Lehenik eta behin, esan beharra dago Espainiako legerian, Zigor Kodean, ez direla gorroto-delituak berriaz aipatzen eta ez daudela delitu gisa jasota lege-gorputz horretako inongo titulu edo kapitulutan. Ikuspegi kontzeptualetik, ordea, Zigor Kodeko zenbait artikulutan, uler daiteke bilduta daudela lehenago aipatu den gorroto-delituaren definizioarekin bat datozen ekintza eta gertaera batzuk, “Manual práctico para la investigación y enjuiciamiento de delitos de odio y discriminación”<sup>27</sup> liburuan azaltzen den moduan.

Egon badagoena, eta aipagarria da beste testuinguru askoren aldean bereizgarria delako, delituaren inguruabar astungarriaren figura da, eta halakotzat jotzen da delitua sexu-joera edota genero identitateagatik egin izana.

Dauden delituen erreferentziak biltzen, berriz, berrikiago hasi da, eta nahitaezkoa da errealitatearen argazkia eduki ahal izateko. Orain urte gutxi hasi zen Barne Ministerioa gai honi buruzko urteko txostena egiten<sup>28</sup>.

Aipatu behar da EAEn eta Espainiako estatuan bada goela nolabaiteko zailtasuna gorroto-delituak egon badaudela ulertu eta onartzeko. Hori gertatzen da, besteak beste, azken 15 urteotan lege eta arau ugari sortu direlako<sup>29</sup> eta pertsona LGTBlen parekotasun legala erdietsi delako, eta beraz, zailagoa da onartzea

26. Euskal Autonomi Erkidegoa.

27. Aguilar García, Gómez, Marquina, Palacio, Tamarit (2015).

28. Espainiako Gobernu (2016).

29. 2005eko Ezkontza berdinzaleen legea, Genero Identitateko 3/2007 legea, Lagundutako ugalketaren legearen 2006ko aldaketa, Izatezko bikoteei buruzko lege autonomiko ugari eta pertsona LGTBlen bereizkeriaren kontrako lege autonomikoak.

legearen aurreko berdintasuna egon arren sexu-joera edota genero identitateagatiko gorroto-delituak badaudela.

Beraz, esan beharra dago transexualitatearen, homosexualitatearen eta lesbianismoaren onespén juridiko eta sozial osoak, hala nola pertsonen arteko parekotasuna ahalbidetzeko azken urteotan egin diren lege aldaketek, homosexualitatearen, lesbianismoaren eta transexualitatearen onarpen sozial handiagoa ekarri dutela. Horrela, jende gehienarentzat historikoki ikusezinak izan diren errealitateak ikusarazi dira, eta eskubideen parekotasun juridikoa lortu da; hau da, pertsona guztiak legearen aurrean berdinak izatea.

Alabaina, LGTBI kolektibo askok zehaztu dute, baita azpimarratu ere, eskubideak babesten dituen legeria egoteak ez duela berez bermatzen eskubideak errespetatuko direla, eskubideak berdín baliatu ahal izango direla ezta sexu-joera edota genero identitateagatiko gorroto-delituak gertatuko ez direnik. Haien iritziz, aniztasunari dagokionez, jendartearen kontzientzia ez da eraldatu, eta beraz, legezko parekotasunak ez du berarekin ekarri parekotasun soziala.

Testuinguru sozial honetan, Espainiako estatuko autonomi erkidego askok sortu dituzte euren behatokiak, sexu-joera edota genero identitateagatiko gorroto-delituak antzeman eta salatzeko tresna izan daitezzen. Horren adibide ditugu Madrileko Observatorio contra los delitos de odio eta Observatori contra l'Homofobia.

## — Nikaragua


Nikaraguan, 2008ko uztailean arte, sexu bereko pertsonen arteko sexu harremanek kartzela zigorra zuten, zigor kode zaharrak sodomiatzat hartzen baitzituen. Hau da, duela hamar urtera arte, pertsona LGTBIak epaitu eta kondenatzen zizuten halakoak izateagatik. Horri estatu homofobia esaten zaio, eta oso nekez aldatzen den arrastoa da.

2008an, Zigor Kode berri bat onartu zuten Nikaraguan, parlamentuan zenbait urtez eztabaidatu ondoren; 641 Legea izenez ezagutzen da. Lege hori indarrean sartu zenean, deuseztaturik gelditu zen Zigor Kode zaharreko 204. artikulua<sup>30</sup>. Honela zioen aipaturiko artikulua horrek:

---

30. Artikulu hori 1974. urtekoa zen.

“Sodomia delitua egingo du sexu bereko pertsonen arteko koitua bultzatzen, sustatzen, aldarrikatzen edo modu eskandalagarrian gauzatzen duen pertsona orok. Urtebetetik hiru urtera bitarteko kartzela zigorra izango du. Horretan jarduten dutenetako batek, nahiz eta pribatuan jardun, bestearen gaineko nolabaiteko agintera balu (arbasoa, zaintzailea, maisua, nagusia edo nolabaiteko eragin edo agintera moralala duen norbait), legez kontrako sedukzioari dagokion zigorra ezarriko zaio, eta erantzule bakartzat hartuko”.



Lege berriak debekatu egiten du arraza, genero, sexu-joera, ezgaitasun, hizkuntza edo egoera sozialagatiko diskriminazioa. Horrela, homosexualitatea legez zigortzetik, gorroto-krimenetako astungarriztat finkatzera pasatu da<sup>31</sup>.

Diskriminazioa legeetatik desagertu bazen ere, ez zen hala gertatu iruditeria sozialean. Sexu Aniztasunaren Giza Eskubideen aldeko Talde Estrategikoak<sup>32</sup> 2010ean plazaratu zuen “Una mirada a la diversidad sexual en Nicaragua” iker-

31. Lesbiana, gay, bisexual, trans eta intersexen nazioarteko elkarte (Asociación internacional de lesbianas, gays, bisexuales, trans e intersex - ILGA), 2017.

32. Grupo Estratégico por los Derechos Humanos de la Diversidad Sexual - GEEDS.

lanak, non SAFO elkarte lesbikoak parte hartu zuen, agerian utzi zuen LGTBI kolektiboko pertsonen, oraindik ere, diskriminazio egoerei aurre egin behar dietela euren egunerokoan: hezkuntza sisteman, familia ingurunean, lantokietan eta osasun sisteman. Ikerlanean parte hartu zuten pertsonen erdiak adierazi zuen nolabaiteko indarkeria jasoa zuela bere joera edota generoagatik; emakume transen % 80, lesbianen % 50 eta gayen % 45. Arbuioa, esamesa laidogarriak, mehatxuak eta eraso fisikoak egunerokoaren parte dira heteroarautik aldentzen diren pertsonentzat<sup>33</sup>.

Nazioarteko Amnistiaren txostenean, sexu aniztasunaren pertsonen kontrako 53 eraso zenbatu ziren; horietako 26 gayak ziren; 26 trans, eta bat lesbiana. Eraso horietatik 15 erailketak izan ziren. Kolektibo lesbikoek adierazten dute oso azpitik kontabilizatzen dela hildako edo eraso jasandako lesbianen kopurua, feminizidio gisa edo emakumeen kontrako genero indarkeria modura erregistratzen baitira<sup>34</sup>.

Era berean, sexu aniztasunaren erakundeetako zenbait arduradunek adierazi dute ez dela araurik edo jarraibiderik ezarri justiziaren ordezkariak irizpideak izan ditzaten antzemateko noiz gertatu den delitu bat biktimaren sexu-joeragatik eta, beraz, teorian LGTBI kolektiboaren eskubideak babestu behar zituzten lege eta arau haiek ez direla eragingarriak gertatzen. Horren ondorioz, oso demanda eta kexa formal gutxi aurkezten dira diskriminazioagatik, hala eginda ere ez lirakeelako ikertuko edo/eta ondorio kaltegarriak izan ditzaketelako aurkeztu dituzten pertsonentzat. Emakume transak dira poliziarengana hurbiltzeko beldurren daudenak, haiengandik tratatu txarrak eta abusuak jasan izan baitituzte kalean eta polizia etxeetan.

Nikaraguako legeriak ez du inolako onespenerik aurreikusten sexu bereko bikoteentzat, eta legearen arabera “gizon baten eta emakume baten arteko elkartzea da” ezkontza. Ondorioz, ez da inolako arauketarik aurreikusten familia homoparentalentzat (gayek edo lesbianek osatutako bikoteen adopzioa, edo lagundutako ugalketaz baliatzeko aukera-berdintasuna).

Azkenik, aipatu behar dugu Genero Identitatearen legearen zirriborro bat ari direla lantzen, elkarlanean, zenbait trans taldek eta Sexu Aniztasunaren Prokuradoretzak (Procuradoría de la Diversidad Sexual – PDS).

---

33. Murgialday (2017).

34. Idem.

## — Guatemala



Guatemalan dago eskualdeko errealtaterik korapilatsuenetako bat, herrialde horretako oraina erabat baldintzatzen baitute orain gutxira arteko barne gatazka armatuak eta Bake Akordioek (gehienak, oraindik ere, ez dira bete). Biztanleen % 60 indigena izan arren, gaur egun, populazio horrek bazterturik jarraitzen du, eta ikusezina da.

Guatemalako konstituzioan finkatuta dago estatuak eskubide konstituzionalak bermatu behar dizkiola populazio osoari “inolako diskriminaziorik gabe”. Alabaina, elkarrekin adierazten dute arau horiek ez zaizkiola LGBTI kolektiboari aplikatzen; horren eraginez, kolektiboko pertsonak bigarren maila batean daude, eta ez dira herritar osotzat jotzen. Era berean, LGBTI kolektiboaren eskubideak gauzatzeari dagokionez, badago ez onartze inplizitu bat, eta, ondorioz, estatuak etengabe urratzen ditu haien eskubideak erabateko inpunitatearekin. Errealitate hori guztiz loturik dago sinismenekin eta kulturak, erlijioak eta moralak finkatutako estereotipoekin<sup>35</sup>.

Homosexualitatea 1871tik legezkoa bada ere, ez da legerik egon sexu-aniz-

tasunagatiko eta genero-adierazpenagatiko diskriminazioa berariaz debekatzeko. Guatemalako talde LGBTIen erreibindikazioetako da araudi berariazkoak

35. Murguialday (2017).

sortzea kolektiboak pairatzen duen eskubide urraketa ikusarazteko eta, hala, haien eskubideak indartu ahal izateko<sup>36</sup>.

Guatemalako estatuak ez ditu genero indarkeriagatiko kasuak eta hilketak behar bezala ikertzen, ez epaitzen, ezta galarazten ere, eta are larriagoa da egoera LGTBI komunitatearen kontrako erasoei dagokienez. Horren eraginez, LGTBlek tratu anker, gizagabe eta umiliagarria pairatzen dute; besteak beste, etengabeko indarkeria-mehatxuak (eta hori tortura da), behartutako desagertzeak, sexu-indarkeria atxiloketa guneetan eta baimenik gabeko azterketa medikoak.

Guatemalan pertsona LGTBlen eskubideen alde borrokatzen duten giza eskubideetako defendatzaileek mehatxuak, jazarpena, abusuak eta indarkeria fisikoa jasaten dituzte bai estatuaren aldetik baita norbanako zenbaiten aldetik ere. Trans en Tacones taldeko Simonék honako hau adierazi zuen: *“ez dago ni seguru sentitzen naizen tokirik; uste dut nire gelako lau hormek mugatzen duten espazio hori dela bakarra. Kalera irten orduko, hortxe daukat diskriminazioa; egunero jasan behar dut garraio publikoan, zonalde guztietan”*. Guatemalako legeriak urratu egiten ditu LGTBI familien eskubideak, eta beste pertsona batzuei familia bat sortzea debekatzen die euren sexu-joera edota genero identitatea dela eta.

Guatemalan, estatuaren zein norbanakoen diskriminazioa pairatzen dute pertsona LGTBlek, eta homofobia eta transfobia sendo errotuta daude jendartearen. Inkesta nazional batek bildutako datuen arabera, galdeketa egin zitzaizen pertsonen % 70ek uste du homosexualitatea gaixotasun bat dela, eta % 40k baino gutxiago onartuko luke senitarteko homosexual bat. Horri dagokionez, LGTBI kolektiboaren giza eskubideen urraketa etengabeak eta sistematikoak nabarmentzen ditu inkestak, eta agerian geratzen da salaketak eta erregistroak ez daudela inolaz ere sistematizaturik<sup>37</sup>.

Ildo berean, Giza Eskubideen Amerika arteko Batzordeak (Comisión Interamericana de Derechos Humanos – CIDH) ohartarazi du salaketa indizeak oso baxuak direla, ez dagoela mekanismo ofizialik datuak modu xehatuan jasotzeko eta *“ez direla erregistro polizialean dokumentatzen; salbuespenez erregistratzen diren kasuak zigorrik gabe gelditzen dira”*. Salaketa ezaren eraginez zifra zehatzak ezagutzen ez diren arren, argi dago etengabeak direla, Guatemalan, pertsona LGTBlen bizitzeko eskubidearen urraketak, sexu-joera edota genero

---

36. Idem.

37. Sombra txostena (2012).



identitatean oinarriturik. Emakume transak dira, kolektiboaren barruan, arrisku handienari aurre egin behar diotenak, eta zenbait kasutan, estatua bera jo izan dute erantzuletzat pertsona LGBTBlen hilketa estrajudizialen kausetan. Lolitak adierazten duen moduan *“isildutako indarkeria asko dago, ze poliziarengana bazoaz eta esaten badiezu ‘hau dela eta eraso didate’, poliziek, babestu orde, barre egiten dizute, patriarkalak dira, gorroto eta arbuio adierazpenak ere agertzen dituzte, eta badirudi zu egiten zaituztela errudun”*.

Joan den 2014az geroztik, salketa horiek LGBTBlfobiagatiko eraso gisa erregistratzeko aukera badagoen arren eta salaketa kopurua nabarmen igo den arren, errealitatean, komunitateko kide gehienek uko egiten diote Ministerio Publikora salaketa jartzera joateari, ez baitira seguru sentitzen. Kolektiboaren parte baten mesfidantza hori dela-eta, Giza Eskubideen Prokuradoretzak jasotzen eta laguntzen ditu gorroto-krimenengatiko salaketa gehienak, baina, zoritxarrez, kasu guztiak ez dira justizia sistemara heltzen, eta beraz, zigorrik gabe gelditzen dira azkenean.

Kasuistika horren eraginez, ez dago gorroto-delituen benetako kontabilitaterik, eta horri gehitu behar zaionez justiziaren ordezkariak ez dutela gaia ezagutzen eta ez dutela horri buruzko formakuntzarik, kasu gehienak ezkutuan geratzen dira, ikusezin. Horrez gainera, komunitate indigena diskriminaturik dagoenez arrazagatik eta emakumeekiko misoginia nabarmena denez, bereziki zaurgarriak eta babesgabeak dira holakoak LGBTBI kolektibokoak ere badirenean.

OTRANSen arabera *“Guatemala hirian bizi diren LGBTBI biztanleen % 95 jatorrizko komunitate indigenetatik alde egindakoa da”*; horren oso bestelakoa da, ordea, sexu- eta genero-aniztasunaren elkarte eta taldeen errealitatea, mestizajea izaten baita haien ezaugarrietakoa bat, bai osaeran baita begiradan ere.

Errealitate horrek guztiak talka egiten du nazioarteko eremuari dagokionarekin, Guatemala baita Nazio Batuen Sexu-joera eta Genero Identitateari buruzko adierazpena sinatu duen estatuetakoa bat, eta Amerikako Estatuaren Erakundeak giza eskubideei, sexu-joerari eta genero identitate eta adierazpenari buruzko zenbait ebazpen babestu ditu.

LGBTBlen eskubideen aldeko legeria aurrerakoiagoa ez izatea baldintzatzen duen faktoreetako bat da Guatemalako populazioaren gehiengoa eliza kristau bateko kide izatea, erakunde horiek aniztasun sexualarekiko jarrera kontserbatzaile, patriarkal eta heteroaraultzailea izan baitute tradizioz.

Sandra Morán<sup>38</sup> diputatua parlamentura heltzearekin batera, LGTBI komunitatearen eskubideen aldeko erreibindikazioak indarra hartzen joan dira, kalean zein parlamentuan bertan; aurrera egin dute, halaber, “Aurrejuzguengatiko krimenen kontrako legea”ren eta ezkontza berdinzalerako legearen aurreproiektuek. Horren ifrentzua da, aldiz, talde kontserbadoreek hartu duten indarra, eta zenbait lege proiektu bideratu dituzte ezkontza berdinzalearen eta aurrejuzguengatiko krimenen kontrako mugimenduak gerarazteko asmoz; galga nabarmena da hori kolektiboaren eskubideak eta askatasunak lortzeko bidean.

Sexu- eta genero aniztasunaren aldeko ekintzaileek adierazi dute indarkeria areagotu egiten dela hedabideetan ezkontza berdinzalearen inguruko eztabaidak gertatzen direnean. *“Denboraldi horietan –batzuetan egunak dira; beste batzuetan, asteak–, bortxakeria eta gorroto-ekintza ugari egoten dira; kalean erasotzen zaituzte, iraintzen zaituzte, eta jendeak sentitzen du ohi baino baimen zabalagoa duela zu erasotzeko. Oso arriskutsua da”* (María José). Garai horietan, elkarteetako batzuek euren ikusgaitasuna apaltzea erabakitzen dute.

## — Mexiko


Mexiko da, gaur egun, hilketa eta desagertze tasa altuenak dituen herrialdeetako bat. Duen kokapen geografikoaren –AEBra heltzeko pasabideko herrialdea da– eta estatuko erakundearen eta narkotrafikoko sarearen arteko elkar aditzearen eraginez, giza eskubideen defentsan jarduteko tokirik txarrenetakoa da. Sexu- eta genero-aniztasunari dagokionez, nabarmendu behar da azken urteotan, Mexiko hirian gehien bat, lege aurrerapenak egon direla sexu-aukeraren inguruko askatasun eta eskubideen inguruan.

Alabaina, aurrerapauso horiekin batera, ugaritu egin dira sexu-joera edota genero identitateगतिको gorroto-delituak eragindako hilketak, batez ere emakume transenak eta gizon gayenak; gogorarazi behar da, nolahi ere, emakume lesbianen hilketak ez direla apenas zenbatzen, eta ezkutuan geratzen dira feminizidiotzat jotzen direlako. Gainerako herrialdeetan bezala, agerian geratzen da ez dagoela gorroto-delituak zenbatzeko mekanismo eraginkorrik; populazioaren gehiengoarentzat delitu ikusezinak dira, eta haiekiko sentikortasun falta nabaria da. Diskriminazioa Aurreikusteko Kontseilu Nazionalak (Consejo Nacional para Prevenir la Discriminación – Conapred) baieztatu duenez, erronka ugari dago ora-

---

38. Bere burua lesbianatzat jendaurrean agertu duen Guatemalako lehen diputatua.

indik ere, bai giza eskubideen babesari eta defentsari dagokienez, baita hezkuntza alorrean ere.



Mexikoko errealitatea hain zabala eta konplexua denez, lehendabizi esparru federala hartuko dugu kontuan, eta gero, Mexiko DF estatura pasatuko gara.

Esparru federalean, sexu-joeragatiko edo genero identitate eta adierazpenagatiko delituak pairatu dituzten pertsonentzako harrera protokoloak gauzatu dira Errepublikako Prokuradoretza Nagusian (Procuraduría General de la República - PGR) eta Polizia Federalean. Ildo berean, osasun-protokolo bat finkatu da sexu-joera edo genero identitate eta adierazpenagatiko diskriminazioa saihesteko, eta, lehen aldiz, kapitulutan zatiturik dago eta populazioaren multzoak bereizita daude bakoitzaren behar medikuen arabera: gayentzako, lesbianentzako eta bisexualentzako gutun protokolizatuak daude eta jarduteko protokolo bat pertsona intersexualentzat, mutilazioak edota atzera ezineko erabakiak saiheste aldera.

Lola Dejavú ekintzaileak aipatu duenez *"horrez gainera, Biktimen Arretarako Batzorde Exekutiboaren artatze-kartilla lantzen ari da sexu-joera eta genero identitate eta adierazpenagatiko delituak jasandituzten pertsonentzat, eta oraintxe*

*hasi da lantzen sexu-joera eta genero identitateagatiko bihurtze-terapiak saihesteko prozeduren kodea".*

Familiarekin lotura duten legeei dagokienez, Errepublikako 15 estatuk legeztatu dute ezkontza berdinzalearen aukera, eta Lola Dejavúk dionez *"trans garen per-*

*tsonok zuzeneko onura lortzen ez badugu ere, zeharka, bai, estatu gehienetan ezin baitute euren genero identitatea eskuratu". Horrez gainera, herrialde osoan lortzen ari da adoptatzeko eskubidea, babes eskeen bitartez. Dena den, genero identitatea aldatzeko legeak hiru estatutan baino ez daude indarrean: Nayarit-en, Michoacán-en eta DF-n.*

Mexiko Hiriko Genero Identitatearen Erreforma bi lege lokalen aldaketaren bitartez gauzatu zen: Kode Zibila eta Prozedura Zibilen Kodea. Horrez gainera, tokiko gobernuak Trans Pertsonen Eguna ezarri zuen joan den urtean, eta azaroaren 13an ospatzen dute. Mexikoko lankideek adierazi digutenaren arabera, gaur egun lege berri bat ari dira lantzen, Mexiko Hirian, transfeminizidioak tipifikatzeko; pertsona trans bat trans izateagatik erasotzea inguruabar astungarria izatea lortu nahi da lege horrekin.



## ► SJGI gorroto-delituen kontrako erresistentzia eta arintze-espereientzien azterketa

Aurreko kapituluari, ikertutako testuinguruaren argazki txiki bat egin dugu lege-riaren eta elkarrizketetan eta eztabaida-mahaietan bilduriko lekukotasunen bitartez. Horrela, argi gelditu da jendarteak, oro har, heteroarauari bete-betean erantzuten dioten sinesmenetan oinarriturik jarraitzen duela eta desiraren eta generoaren arauak hausten dituztenak baztertzen dituela oraino.

Sexu-joera edota genero identitateagatiko gorroto-delituei aurre egiteko eta erantzuteko beharraren aurrean, ikerlan honetan parte hartu duten pertsonen kontakizunek agerian utzi dute ekiteko eta antolatzekeo modu asko daudela, banakakoak zein taldekoak, eta gai izan direla lehen aipatu diren hiru dimentsioetako estrategiak garatzeko: biziraupenerako, aurre egiteko eta eraldaketarako.

### — Biziraupenerako erresistentziak

Era honetako ekintzek, gehien bat, **erasoei, mehatxuei eta bestelako arrisku hurbilei berehala erantzutekeo eta aurre egitekeo moduarekin** dute zerikusia; banakakoak zein taldekoak izan daitezke. Biziraupenerako erresistentzia gehienak berezkoak, espontaneoak izan ohi dira, aldezturik gabeak, eta sorrarazi zituen gertaerarekin batera amaitzen dira.

Erresistentzia hauek, oro har, erasoan edo eskubide urraketen lekukotasunak azaltzerakoan aipatu izan dira, batez ere ezkutatzeararekin edo kamuflatzearekin zerikusia dutenak, eta LGTBI kolektiboko kide guztiok baliatu dugu, inoiz edo behin, estrategia edo erresistentzia hori.

Parte hartu duten pertsonen kontakizunen bidez, baieztatu ahal izan dugu formula bakarrak ezinezkoak direla, Aniquilar la Diferencia (Desberdintasuna ezabatu) txostenean<sup>39</sup> azaltzen den moduan, “esperientziatik abiatzen diren erreakzioak dira, momentuan berean jardutekeo hartzen diren berehalako erabakietatik”. Errealitate hori kontuan hartuta, taldeetan parte hartu duten pertsona

---

39. Memoria Historikoaren Zentro Nazionala (2015).

gehienek adierazi dute ezen arrisku, mehatxu edo eskubide urraketa baten aurrean erreakzionatu baino lehen garrantzitsua dela egoera eta ondorioak aintzat hartzea eta neurtzea.

*“...zuhurak izan behar dugu. Uste dut jakin behar dugula zein gudu eraman ditzakegun aurrera eta zein ez, garestiegi atera baitakiguke. Beraz, nik estatu hobe bat izan nahi dut, ez dudalako martiria izan nahi; badut bizitza bat, eta zaindu nahi dut, eta baditut neure helburuak ere. Estratega izan behar dut” (Johann, Guatemala).*

Erasoak toki askotatik eta modu askotara etor daitezke, eta, horren arabera, erreakzioa eta erresistentzia aldatu egiten dira. Eragiten duen beste aldagaie-tako bat da zein egoeratan gauden, hau da, ea gertakarien momentuan bakarrik edo lagun gehiagorekin gauden erasotzaileen aurrean, bakarrik egonez gero as-koz handiagoak baitira zaurgarritasuna eta arriskuak. Dena dela, biziraupenerako erresistentzien azken helburua norberaren bizitza eta segurtasuna zaintzea da. Egoera horretan, honelako estrategiak topa ditzakegu: **ihes egitea, buru egitea, ahaltsuagotzat jotzen ditugun pertsonen laguntza bilatzea** segurtasun eta ba-bes sentsazioa sortzeko, **elkarrizketa** eta **arrazoitzea**.

Zarena zarelako jasaten den indarkeriak hautsi egiten ditu bizi ditugun genero eta desiraren arauak, eta oso txikitatik sumatzen da; zehatzago esanda, lehen sozializaziotik (familian eta eskolan) eta nerabegarotik. Bizitzaren etapa horretan hasten gara mundua ezagutzen, eta garen bezala agertzen, edo ez. Beraz, sozialki ezarritako arauetatik guztiz ateratzeak era guztietako eskubide urraketak jasatea ekar dezake.

Hurtzaroari dagokionez, ikerlan honetan parte hartu duten pertsonetako askok aipatu dute **indarkeria maila handia egon ohi den gunea dela eskola**; indarkeria hori gelakideek edo irakasleek erabil dezakete, baita sistemak berak ere, ez due-lako pertsonen sexu- eta genero-aniztasuna kontuan hartzen eta aniztasun hori gaitzesten edota zokoratzen duelako. Halako kasuetan, **indarkeriari ihes egitea** da aukeretako bat, norberaren segurtasun fisiko eta emozionala lehenetsita. “... etxean bazegoen diskriminazioa, nire familiarena... baina esan dezaket... nabar-menena eskolan izan zela. Ze nik beti egin dut borroka gona eramateko eta ez prakak, ilean mototsa egiteko eta ez atzerantz orraztuta eramateko (...) Kontua da... azkenean ikasteari utzi niola ze... leporaino nago! esan nuen. Leporaino nago eta ez ditut nahi hemen dauden zahar horiek guztiak; ezin ditut gehiago eraman, leporaino naukate”. (Juanita, Nikaragua).

Alabaina, pertsona guztiek ez dute gauza bera bizi izan eskola inguruan, eta beste erresistentzia modu batzuk garatu edo erabili dituzte; horien artean, **onespen handiagoa duten beste etiketa batzuk bilatzea**. *“Ikastetxean ni nintzen bikainak ateratzen zituena, ni nintzen azkarra. Gainerakoen gainetik nengoelako, inor ez zelako nire mailara heltzen biziraun ahal izan nuen. Irakasleek izugarri maite ninduten, eta noizean behin, neuk laguntzen nien besteei (...) Nire “pitagorin” etiketa zen, ez “maritxuarena”. Horrek ez ninduen oso jarrera erosoan jartzen, “pitagorinek” ez dutelako sekula oso jarrera erosoak izaten, baina maritxuarena baino askoz seguruagoa zen.”* (Jaime, Euskadi).



Beste pertsona batzuek –adibidez María, Espainiako estatua– aipatu dute erresistentzako euren modua izan zela **talde guztiekin harremana izatea eta guztiekin sozializatzea, hala lagun asko izateko**. Horren guztiz kontrakoa egin zuen Asierrek, Euskadi, zeren, hark esan zuen moduan *“gutziz iheskoa izan zen nire estrategia. Ez nuen batere sozializatorik izan. Nire nerabezaroa, funtsean, logelako lau hormak izan ziren”*. Azpimarratu behar da haurtzaroan garatutako estrategiak, gehienetan, modu inkontzientean gertatzen direla, planifikatu gabe; hala ere, bizirauteko balio izan duten estrategiak dira.

**Familiaren esparruan**, nerabezaroaren aurreko garaian, nerabezaroan eta gaztaroan gertatu ohi dira gatazka eta indarkeria gehienak, dela genero-adierazpenagatik, dela genero-joera edo identitateagatik. Familiak jakiten duenean, edo zenbait liskarren ondoren, ondorioetako bat izan daiteke familiaren etxetik kanpora



bidaltzea. Ez da beti hala gertatzen, baina elkarbizitzari oso baldintza gogorretan eusten zaiola jaso dugu, eta halakoei ihes egiteko modurik ohikoenetako bat **etxetik alde egitea** izaten da, bizitzeko beste toki bat bilatzea; trans diren pertsonekin gertatzen da hori batez ere. Viniciok, Guatemala, zera dio *“etxetik bidali dituzten gazte gehienak kalera heltzen dira, ez dute senitartekoen laguntza, eta lan sexuala dute irtenbide bakarra”*; egoera horrek bestelako gorroto-delituen biktima izatea ekar dezake, dela LGTBIfobiagatik, dela prostituzioan diharduten pertsonen kontrako gorrotoagatik.

Nikaraguako eztabaida-mahaiko lesbianen taldeak hau aipatu zuen: *“geure buruak babesteko modu bat izan daiteke familiarengandik distantzia hartzea. Eta arrazoi ekonomikoak direla medio ezin badugu familiarengandik aldendu, orduan heltzen diogu sentsibilizazio lanari eta gai hauei buruz informatzeari”*.

Testuinguru askotan, **asimilazioa edo kamuflajea** izaten da bizirauteko moduetako bat, eta familian ere antzera gertatzen da. Bereizkeria edota indarkeria saiheste aldera, familiak dituen itxaropenekin bat datorren bizimodua egitea erabakitzen da, liskarrak edo familia-haustura saihesteko asmoz. Ildo horretan, Becky, Guatemala, kontatzen du berak hau pentsatu zuela *“haiek nahi duten bizimodua egingo dut. Ezkondu egingo nahiz, haiek nahi duten moduan, eta senarrarekin jarraituko dut, haiek nahi duten moduan”*, baina denborarekin konturatu zen estrategia horrek ez zuela berarentzat balio; *“saiatu nintzen, baina ez nintzen zoriontsua, eta nik neuk utzi nuen; alde egin nuen”*. Antzeko zerbait gertatu zitzaion Jorgeri; urtetan egon zen emakume batekin ezkondua, eta egoera horren erantzukizuna Guatemalako gobernuari leporatzen dio, sexu- eta genero-aniztasunaren komunitateko pertsonen eskubideak ez bermatzeagatik.

Pertsona askok gogoratzen duten beste erresistentzia modu bat da **“kamikazea” ez izatea, indarrak eta moduak neurtzea, eta eramana izatea**. Zentzu horretan, Viniciok, Guatemala, zera aipatu zuen: *“garrantzitsua da pertsona zaren aldetik ahalduntzea; agian, gurasoei esan baino lehen. Alde horretatik, nik uste dut familiako armairua pixka bat manejatu behar dela. Adinez txikia bazara eta ekonomikoki norbaiten mende bazaude, bada, pertsona horri kontatu behar diozunean ondo dago argudioak ondo barneraturik edukitzea, informazioa biltzea, formatzea; hori gomendatu izan diet nik komentatzen didatenean gurasoei esan nahi dietela. Ondo ahaldundu daitezela, argudioei kontra egin ahal izateko”*.

Zuhurra izatearen kontu hori ez da soilik familiei buruz hitz egiterakoan aipatu; **jendartean, jendaurrean LGTBI kolektiboko kide modura ikusgai egiterakoan,**

beharrezkoa da zenbait segurtasun neurri hartzea. María Josék aipatu zuen Guatemalan beharrezkoa dela *“segurtasun neurriak hartzea. (...) politikoki posizionatzen naizen toki guztietan, nire jarrera agertu aurretik, bertan nor dagoen begiratzen dut: zer adierazten duen, gizona den, emakumea den, lesbiana ote den... Ea arriskuan nagoen begiratzen dut, edo beste lagun batzuk arriskuan jarriko ditudan... Eta orduan erabakitzen dut posizionatuko naizen edo ez”*. Isilik geratzeko aukera hori, kolektiboko kide modura ez agertzea, zalantzan jarri izan du, eta jartzen du oraindik ere, kolektiboaren parte batek. María Josék, alabaina, autozaintza eta defentsa, nork bere burua babesteko modu bat den aldetik erreibindikatzen du.

Nahiz eta sarritan sentitu errepresioa eta indarkeria landa eremuetan zein hiri inguruneetan, bietan gertatzen dela, ikerlanean parte hartu duten pertsonen % 20k jaioterria utzi du beste ingurune batera **migratzeko**.

Era horretako prozesuak, normalean, nerabezarotik aurrera eta helduaroan gertatu ohi dira, baina **sexilio**<sup>40</sup> prozesuetan oso une zailak egoten dira, eta erresistentzia estrategia ugari garatzen dira. Elkarrizketetan eta eztabaida-mahaietan askotan aipatu den estrategia horietako bat da **harreman sozialena eta laguntza taldearena**; Guatemalan esaten duten moduan: sentirte acuerpada. Horrek gune kolektiboai edo elkarteei egiten die erreferentzia, baina baita sare sozialari ere; partekatutako espazioak izaten dira sarritan, baina ez dira nahitaez halakoak izan behar. *“Horrek [kolektibitateak] indar gehiago du, segurtasunerako aukera gehiago ematen du. Hiltzen bazaituzte, jakina, zeu hiltzen zaituzte. Baina hor dago, bederen, eta [erasoa] saihesteko ekintzak ere gara ditzake”* (María José, Guatemala). Era horretako erresistentzia ekintzak nork bere burua ezagutaraztearekin, **ikusgai** egitearekin lotuta daude, bizitza babesteko estrategia modura. Maríak lehen aipatutako beste harekin lot dezakegu erresistentzia hau, zeren Maríak, aurretiaz pentsatu gabe eta kolektiboko kideen artean egin ez bazuen ere, txikitatik aukeratu baitzuen jende askorekin izatea harremanak, eta eskolakideen artean ikusgai izatea.

Biziraupenerako beste estrategia bat da **“radarra”** lehenbailehen **garatzea**, zeren **kolektiboki eraikitako segurtasun guneetatik kanpo**, “radar” hori ondo garaturik edukitzea beste estrategiarik ez baitago inguruko pertsonak mugimenduaren lagunak diren edo ez jakiteko. Horrek berarekin dakar *“beti adi egotea, antzema-*

---

40. Sexu-joerarekin edo genero identitatearekin zerikusia duten arrazoiengatik egiten den migrazioa. Barne migrazioak zein kanporakoak aipatzeko erabiltzen da. Sexilio terminoa Manolo Guzmánek sortu zuen.

*teko zein diren zure moduko pertsonak eta zein diren kontrakoak. Alerta jarrita dugu beti, ea zer ikusten dugun. Radarra. Antzemateko eta jakiteko zer esan halako haren aurrean, zer ez... Ez dugu kezkatu behar radar hori edukitzeko, integratuta daukagu. Funtsezko tresna bat da” (Jaime, Euskadi).*

Norberaren taldeaz gainera, badaude ibiltzen ditugun beste toki batzuk ere, modu kontziente edo inkontzientean ohikoak bilakatzen ditugun **tabernak, plazak edo aldekoak eta seguruak diren espazioak**; sexu-eta genero-aniztasunaren berezko guneak ez badira ere, espazio horietan ez da inolako eraso edo diskriminaziorik onartzen, eta segurutzat hartzen dira.

Sarri askotan, **elkarreak eurak** dira **laguntza ematen** dutenak, edo laguntzeko bitartekoak dituztenak indarkeria edo eskubideen urraketak gertatzen direnean. Nikaraguako SAFO elkarte lesbikoak hiru urtez kudeatu du aterpetxe txiki bat, sexu-joera edo desiragatik etxetik eta famuliatik bidaltzen zituzten emakumeak hartzeko. Eztabaida-mahaietan, beste espazio bat ere lotu dute biziraupenerako estrategiekin, aurre egiteko estrategietarako urrats gisa: elkarrekin sustatzen dituzten **berdinen taldeak**. Testuinguru guztietan agertu dira halakoak, eta talde zehatzak aipatu dira; batzuk LGTBI kolektiboekin lotuta daude (EHGAM-eko Gaztedi Taldea, OASIS, Intifada Marika edo ALDARTEren elkar laguntzarako taldeak), eta beste batzuk, mugimendu feministarekin (Bilgune Feminista, Programa Feminista La Corriente, Guatemalako Lesbiana Feministen taldea edo Emakumeen Munduko Martxa).

Sexu eta genero-aniztasunaren kolektiboaren giza eskubideen alde borrokatzen diren pertsona eta taldeen kontrako arbuio eta indarkeriaren eraginez, taldeetako batzuk klandestinitatean ekin zioten lanari, *“ezkutuan, jendarteak aurki ez gintzan”* (Jorge, Guatemala). Gaur egun, ikerlanean parte hartu duten taldeetako bakar bat ere ez dago egoera horretan, baina Guatemalako Simonék dioen moduan, *“giza eskubideen defendatzaileak oso zaugarriak gara LGBTI+ komunitateko eskubideak defendatzen dituzten elkarrekin kide izate hutsagatik”*.

Ezarritako arauari eutsi nahia eta logika heteroarautzaileetatik kanpo dauden jarrera eta desirak deuseztatzeko guraria izan arren gorroto-delituen eta erasoen oinarria eta abiapuntua, ezinbestekoa da testuinguruak aztertzea eta haien errealitate zehatzak kontuan hartzea. Giza eskubideen defendatzaile izateagatik bizi den zaugarritasun eta arrisku egoerari dagokionez, errealitateak zeharo desberdinak dira. Horri dagokionez, Mexikon eta Guatemalan nabarmendu dute gehien babes beharra, eta are borrokan jarraitu beharra, nahiz eta jakin norberaren

segurtasuna eta bizitza bera arriskuan egon daitezkeela. Guatemalako Jammyk honela adierazi zuen: *“Ba nik uste dut, funtsean, eroarena egiten dugula; ‘ai, ai, ai... jarraituko dugu’ edo horrelako zerbait. Horretan jarraituko dut, eta horretan hil behar badut, ba horretan hilko naiz”*.

Zenbait jarrera daude halako egoerei aurre egiteko. Kolektibo batzuek, OASIS esaterako, **bozeramailetza** eta ekintza publikoak pertsona batengan **zentralizaztea** erabaki dute; hala, **bitartekoak babeserako** ere baliatuz, erasoak saihesten saiatzen dira. Beste alde batetik, María Josék aipatu zuen euren lesbiana feministen elkartean bozeramailetza askoren artean partekatzea erabaki zutela, bozeramaile den pertsona horren esposizioa eta zaurgarritasuna murrizteko asmoz.

**Elkarteen ikusgaitasunari** dagokionez, batzuen ustez, neurtzen jakin behar da kalean zer giro dagoen. Guatemalan eta Nikaraguan aipatu dute hori gehien bat, zeren, erlijioak politikagintzan eta hedabideetan duen garrantziaren eraginez, iritzi publikoa sexu- eta genero-aniztasunaren mugimenduaren kontra jartzen denean areagotu egiten baita kaleko indarkeria. Hori dela-eta María Josék hau aipatu zuen: *“horregatik, elkar-teok, batzuetan, atzera egiten dugu. Ez gara ezertarako irteten. Batzuetan irten egiten gara, baina beste batzuetan esaten dugu: hemen moteldu beharra dago, tentsioa moteldu behar da, jendeak ez dezan sentitu baimena duela gu erasotzeko”*; hori dena, euren burua babesteko.

Pertsona batzuentzat, hizkuntza traba izan daiteke, eta horren eraginez elkar-teek eskaintzen dituzten laguntzetatik aldendu eta babesgabeago gera daitezkeenez, Ametsek kontatu zigun nola, Gasteizko TransMaricaBollo sarean, sexu-joera edota genero identitateagatiko gorroto-delituen aurrean jarduteko **protokoloa** egin zutenean, **zenbait hizkuntzatar**a itzuli zuten. Modu horretan, pertsona gehiagorengana hel daiteke, eta pertsona gehiagok erabili ahal izango du salaketa kolektiboarekin eta laguntzarekin zerikusia duen biziraupenerako estrategia hori. Guatemalako Jorgek beste hau ere adierazi zuen: *“geure buruak babesteko topatu ditugun gauza garrantzitsuenen artean, nazioarteko behaketa dago. (...) 2008an, jasan nuen kriminalizazio kasuan, uste dut ezin izango nuela defentsa eraginkorrik egin Nazioarteko Bake Brigadak eta nazioarteko erakundeak egon ezin ez balira; Nazioarteko Bake Brigadak Guatemalan dauden boluntarioek osatzen dituzte, eta bertan zer gertatzen den behatzen dute”*. Horrekin batera, badaude Giza Eskubideen Amerika arteko Batzordeak (CIDH) ezartzen dituen kautelazko neurriak, eta haiei esker, Jorge babestuta egon da.

Aurreko paragrafoan azaldu diren estrategiak egituratuagoak dira, baina zer gertatzen da egunerokoan gauzatzen diren berehalako erantzunekin? Erresistentzia askotarikoak topa ditzakegu kolektiboko kide diren pertsonen pairatzen dituzten eraso zuzenen aurrean; batzuk banakakoak dira, eta beste batzuk, kolektiboak. Pertsonen arabera aldatzeaz gainera, esan dezakegu desberdintasunak esanguratsuak direla eraso ahazkoak denean edo ahazkoaz gain fisikoa ere badenean.

Lehendabiziko kasuan, ahazko erasoak direnean, erantzuna izan daiteke edo **alde egitea** edo **buru egitea**. Zenbaiten ustez, alde egitea da ahazko erasotzaileei min handiena ematen dien erantzunbidea, eta kalte fisikoak saihesteko modua ere bada, nahiz eta kalte psikiko edota emozionalak ezin saihestu. Halakoetan, norberaren sentimenduak ez agertzea da aukera, dela ezer gertatu ez delako itxura egin eta alde eginez, dela **elkarrizketari edo eztabaidari** ekinez. Nikaraguako Cristinak azaldu zuen nola aldatu zaion kalean bera beldurrarazten duen jendearen aurreko jarrera, eta nola feminismoaren bitartez ahaldundu zen kalean gertatzen zaizkion eraso ez fisikoei erresistentzia aktiboago batez erantzuteko:

*“... **begiradari eustea**, aurrez aurre begiratzea, edo ‘zer esan nahi izan didazu?’ Jendea **kuestionatzea**: zerbait esan nahi izan didazu? Zerbait esan nahi didazu? Ez didazu ezer esan nahi? Zergatik geratzen zatzaitzkit hola begira? Hori izan da nire erreakzioa. Hori, jakina, feminismoak eman zidan. Feminismoak eman zidan hori” (Cristina, Nikaragua).*

Bigarren kasuan, eraso fisiko baten aurrean jarduteko moduei dagokienez, **eraso oharkabea pasatzen ez uztea** da gehientsu erabiltzen denetako bat; horretarako bide bat da **oihu egitea**, inguruan dauden beste pertsona batzuek entzun dezaten, **eta laguntza eskatzea**. Behin, kale erdian, motordun batzuek eraso zutela kontatzerakoan, Viniciok (Guatemala) horren adibide bat eman zigun, ez baitzion oihukatzeari utzi. *“Jo egin ninduten, bultzatu ninduten, ostikoka ibili ninduten, eta nik ez nion oihukatzeari utzi (...) Eta ez dakizue nolako oihuak. Uste dut horrek izutu ere egin zituela. Nik ezin izan nituen jo, ez naiz horretarako iaioa, baina oihukatu, bai. Uste dut horrexek izutu zituela gehien eta horregatik ez nindutela gehiago jipoitu”.*

Beste kasu batzuetan, babesteko beste modurik ez dagoela eta norberaren bizitza arriskuan egon daitekeela ikusita, erresistentzia hori konfrontazio aktiboa bilakatu izan da. Nikaraguako neska batek kontatu zuen auzoko zenbait pertsonen bera eta bere neska-laguna inguratu zituztela behin, eta, erantzuteko, etxean zuen arma erabili zuela. *“Halako batean kalean itxaron ziguten, eta esan ziguten*

*makila bana sartuko zigutela, eta orduan erreakzionatu egin genuen. Nik banuen errebolber bat, eta egun hartan, egoera hartan, bada, erreakzionatu egin nuen; lehenago ez nuen sekula erabili, baina egun hartan, bai. Ez nuen inor zauritu, baina arma erabili nuen”.*

Zuzenean buru egiteko aukera hori **azken aukera** modura bizi da, zeren indarkeriaz erreakzionatuz gero arriskua baitago galtzaile ateratzeko (Luzwika, Nikaragua). Elkarrizketatu ditugun pertsonetako askok aipatu dute gogoeta hori bere egin dutela, urteak pasatu diren neurrian eta LGTBI taldeetara eta feminismoa biltzen joan diren heinean:

*“Defentsiban jartzen nintzen beti; hau da, norbaitek zerbait esaten zidan, eta nik ikaragarri txarto tratatzen nuen. Esan nahi dut orduan ibiltzen nintzela... arrisku gehiegi hartuta, sentitzen bainuen hori zela nire modua babesteko (...) Feminismoak eta beste kide feminista batzuen eskarmentuak lagundu didate ulertzen ez dela beharrezkoa guztiz modu bortitzean erantzutea zerbait esaten dizun horri, pertsona hori kuestionatu egin behar duzula askoz segurtasun handiagoaz, askoz bitarteko gehiagorekin, erantzuteko askoz argudio gehiagorekin, eta ez zeure burua halako arriskuan jarri (Juanita, Nikaragua).*

Honetan ere, berriro geratzen da agerian ez zaiela berdin begiratzen emakume modura irakurtzen diren pertsoneri edo gizon modura irakurtzen direnei; kontuan hartu behar dugu, halaber, kasu bakoitzerako sozialki onartuta dauden rolek eta adierazbideek badutela eragina eta heteropatriarkatuak zeharo baldintzaturik daudela. Juanitak, Nikaragua, generoa aldatu du, eta horrek aukera eman dio bere larruan bizitzeko zer desberdina den besteek emakume modura edo gizon modura irakurtzea; *“aldaketa egin nuen indarkeriaren aurreko babes estrategia modura. Orain, lehen baino askoz lasaiago eta seguruago noa kaletik”*; desberdintasun horiek igarri egiten dira baita eraso LGTBIfobo bati erantzun nahi diozunean ere.

*“Esaterako, ni, orain [itxura maskulinoa], ez naiz sekula, baina sekula santan ere, geratuko gizon batek zerbait esaten badit (...) Ze erantzuten badiot, kriston zaplaztekoa emango dit. Orain kode berean ari garelako biok. Hizkuntza berean, ar batek beste ar bati. Lehen, geratu egiten nintzen! Edozein zela ere, edozein gizon zela ere, geratu egiten nintzen eta esaten nion: Eta zuk zer arazo daukazu? Segurtasun handiaz gainera. Eta ez zidan inolako beldurrik ematen. Orain bai,*

*beldurra ematen dit. Segurtasun falta handia sentitzen dut” (Juanita, Nikaragua).*

Beste eraso mota bat sare sozialetan gertatzen den hori da; eraso horien helburua beldurra piztea da, bai eraso jasaten duen pertsonarengan baita eraso ikustean pertsona horrekin identifikaturik sentitzen diren guztiengan ere. Hori aipatu dute, batez ere, moduren batean edo bestean espazio publikoetan jarduten dutenek, dela euren lanbideagatik, dela erabaki dutelako LGTBI eskubideen alde jendaurrean agertzea.

Ikerlana egin den testuinguru guztietan, badaude zenbait **baliabide instituzional** era horretako erasoak salatzeko (eraso fisikoak, ahozkoak eta sare sozialen bitartez egindakoak), eta administrazioek badute salaketok erregistratzeko eta bizirik ateratzen direnei laguntzeko modua, nahiz eta errealitate horrek ez duen, berez, poliziarengana jo eta gertatutakoaren berri emateko lasaitasun eta konfiantza nahikoa sortzen. Sentitzen ohi dena da ez dela erantzun egokia, ez duela ezertarako balio, berriro ere eraso ditzaketela, berandu helduko direla, etab.; jendearen idearioan indarrean dirauten argudio horien oinarrian, norberak zein beste kide batzuek bizi izandako esperientziak daude. Arrazoiak batzuk zein besteak izan, kontua da bide hori ez dela guztiz baliatzen, eta aurre egiteko orduan edo eraldatzeko orduan zerbait estrategikoa dela pentsatu arren, biziraupenari dagokionez, oraindik ez da erresistentzia fidagarritzat jotzen.

Salaketak ez egiteko zer arrazoi egoten diren aztertu nahi denean, pentsatu ohi da arrazoietakoa bat dela LGTBI kolektiboko kide modura agertu nahi ez izatea, baina ez da hori arrazoi bakarra, ezta elkarrizketetan eta eztabaida-mahaietan gehien agertu dena ere. *“Gertatzen dena da ez dugula sinesten Guatemalako justizia sisteman. Horregatik da, eta ez... ez da nik ez dudalako esan nahi lesbiana naizela eta lesbiana naizelako jipoitu nindutela. Ez da horregatik. Daukagun sistemagatik da. Izatez, uste dut bi salaketa jarri genituela”* (Sesia, Guatemala). Hala eta guztiz ere, partaideetako askok onartu dute garrantzitsua dela salaketak jartzea, salaketa horien erregistroa egin ahal izateko eta datu horiek erabili ahal izateko politikan eragiteko estrategia modura; ideia hori gehiago landuko dugu eraldaketarako erresistentzien atalean.

Erasoak gertatu baino lehen ere, sexu-joera eta genero identitateagatiko gorroto-delituak aurreikusteko eta horiei erantzuteko zenbait erresistentzia modu sortu izan dira; egunerokoan gauzatzen diren erreakzio eta jokamoldeak dira, eta batzuetan aurrez pentsatutakoak dira, baina beste batzuetan, ez. Kalean

agertzeko eta jokatzeko moduan azaleratu daitezke; esaterako, **genero-arauak hausten dituzten jokamoldeak saihestea**: “Ni, ibiltzean, asko kulunkatzen naiz, aldakak asko mugitzen ditut, eta, batzuetan, saiatzen naiz hori ez egiten, bai? Segurtasunagatik eta kontu horiengatik da” (Juanita, Nikaragua). Beste kasu batzuetan, ikusi dugu trans diren pertsona batzuk **ez direla komunera edo aldageletara joaten**, dauden bi aukeretako edozein hautatzen dutela ere erasoak jasateko arriskua baitute. Antzerako zerbait gertatzen zaio Mexikoko Lola Dejavú-ri: hango metroan badago bagoi bat emakumeentzat bakarrik, baina batzuetan ez du hori erabiltzen gaitzespen begiradak saihesteko edo inork esan ez diezaion hori ez dela berari dagokion bagoia.

Estrategia horiek guztiak, berriro ere, alde egiteko ideiarekin edo kamuflajearekin lot ditzakegu, askotan ez baitago alde handirik bataren eta bestearen artean. Lantokietan agertzen dira, sarritan, estrategiok, dela lanpostuaren beharregatik dela enplegua galtzeko beldurrarengatik. Zenbait pertsonak kontatu digute euren estrategia bat dela desira propioez inoiz ez hitz egitea, eta norbaitek galdetuz gero, momentuan erabakitzen dute kontatuko duten edo ez, baina sekula ez dute galdetu gabe kontatzen. Dena den, beste batzuk saiatzen dira lankideen aurrean heterosexualak bailiran agertzen, eta horretarako, azkenean, rol heteroarautzailerak betetzen eta gaindimensionatzen dituzte:

*“nik ukatu egiten dut nire sexualitatea; autodefentsagatik da, ze haiek guztiz baztertzen dituztenez homosexualak, arbuioaren beldur naiz. Heterosexuala naizelako itxurak egiten saiatzen naiz, nire izaera ezkutatzeke. Egia esateko... uste dut homosexualak bagara beti igarriko zaigula, ezkutatzen saiatu arren. Heterosexualen gauzak egiten saiatzen naiz: neskatilak xaxatu, harreman handia izan kirol munduarekin, matxoena diren kontuetan aritu” (Estuardo, Guatemala).*

Hori ez da lantokietan bakarrik gertatzen, baina pertsonen biziraupenerako eta autonomiarako beharrezkoa den espazioa denez, zaugarritasun handieneko guneetako bat dela esan dezakegu, eta beraz, hor sortzen da beldur-kezka handiena, baztertuko ote gaituzten eta are lanpostutik bidaliko.

Ikerlanean ikusi da, halaber, pertsonen bizitzako une, garai, eta alor desberdinetan agertzen den gaietako bat gorpuztasunarena dela, eta nola irakurtzen duten gorpuztasun hori ingurukoek; norberaren irudiak ingurukoengan segurtasuna edo segurtasun eza, bietako zer eragiten duen garrantzitsua da, balizko biktima



izatetik urruntzen eta hurbiltzen baitu horrek. Adibide ugari aurkitu ditugu horri dagokionez.

Ohikoena izaten da **indarra eta segurtasuna erakusten duen gorputza eta jitea** agertzea; gizon modura irakurtzen diren pertsonen kasuan gertatzen da gehien bat, baina ez da beti hala. Bestelako kasuak ere topatu ditugu; Guatemalako mutil batek, esaterako, esan zigun ikasgelako txikiena zenez bera baino handiagoak zirenek beti babesten zutela. *“Inoiz ez nintzen oharkabean pasatu, baina oso adierazkorra ere ez nintzen. Beti izan nintzen txikitxoena, zorte hori izan nuen. Txikiena, tamainaz. Etxean ere, anaiarik txikiena nintzen, eta ikastetxe guztietan 1. edo 2. ilaran jartzen ninduten beti, tamainagatik, eta handiagoak zirenek beti zaindu eta babestu izan naute. Ez ziren nire bizkartzainak, baina kontutxoren bat sortzen bazitzaidan, orduan, bai, esan egiten zuten ni ez molestatzeko. Hortaz, ez nuen halako arbuiorik jasan behar izan”* (anonimoa, Guatemala).

## — Aurre egitea

Aurre egiteko mekanismoak dira **LGTBI kolektiboko kide izateagatik pairatu diren erasoak gainditzeko eta jasandako indarkeriari beste esanahi bat emateko erabiltzen diren taktikak**. Hala, biktimismotik ateratzeko prozesua sorrazten da, eta pertsona horiek euren bizi proiektuen subjektu aktibo bilakatzen hasten dira. Indarkeriari aurre egiteko erabiltzen diren estrategien artean, batzuk bakarka garatu ohi dira –espiritualtasuna, autoezagutza eta autozaintza, lan alorra, hezkuntzako... –, eta beste batzuk, ordea, taldean, hala nola sareetan parte hartzea, lokarri eta babes sozialak, kolektiboetan parte hartzea eta formatzea...

Banaketa hori egin dugun arren, hasieratik azpimarratu behar dugu sarritan ez dela erraz bereiztea zein diren estrategia banakakoak eta zein kolektiboak, banakakoa den horren eta kolektiboaren arteko etengabeko *feedback*-aren bitartez lotuneak sortzen baitira transmutazio eta berreraikitze sare horretan.

Bi esparru horien (pertsonala eta kolektiboa) arteko gurutzaketa lauso horretan kokatu bihar dira zenbait bizipen pertsonal, parte hartzaile batzuek adierazi baitute kolektiboek bultzatu zituztela euren burua errekonozitzera eta onartzera; horren eraginez gauza izan ziren euren bizitzaren aurrean jarrera aktiboa hartzeko eta jendarte heteroarautzaileak LGTBI kolektiboko pertsoneri ezarri nahi dien erruarekin eta arbuioarekin hausteko. Beste lekukotasun batzuek, ordea, adierazi dute euren burua onartzeak eta urtetan pairatutako indarkeriari aurre

egiteak bultzatu dituela kolektibo modura indartu nahi izatera eta laguntza esparruak sortzera.



Modu batean edo bestean, berebiziko garrantzia eman zaio, aurre egiteko mekanismo horietan, **laguntza sareen** gaiari, familiarenak, gertueneko inguruarenak, lagunena zein harreman afektibo-sexualenak. Ahuldade eta zaurgarritasun garaietan, inguruko pertsona horiek eskain ditzakete laguntzarako eta babes fisiko zein emozionalerako behar diren bitartekoak, baita bitarteko materialak ere.

Biziraupenerako erresistentzien atalean aipatu den moduan, familia da sozializazioarako lehen taldea, eta harengandik espero dira zaintza eta arreta oinarritzkoenak; horregatik, pertsona batzuek garrantzi handia ematen diote laguntza horri. Esaterako, Guatemalako Becky hau aipatu zuen:

*“Lehen hesia familia da. Familiak onartzen bazaitu, gainerako guztiak ez dizu jada inporta. Familiak onartzen ez bazaitu, sufrimendu itzela da”. Familiaren garrantziari dagokionez, beste kide batek dio familiari kontatu ziola “bazertu nahi nuelako, eta besarkada bat, maitasuna, onespina aurkitu nituen. Esan zidaten eurek maite nindutela, gainerako guztia gorabehera. Uste dut ez zutela ulertzen zer esaten ari nintzaian, baina bazekiten oso maite nindutela, eta hori zela nagusia. Azkenean, horri esker, familiak maite ninduela jakiteari esker atera ahal izan nintzen guztiz prozesutik “ (Vinicio, Guatemala).*

“Armairutik ateratzeko” orduan, askok aipatu dute inguruan aliatuak bilatu behar diren garrantzia, babesari eman dezaten eta sor litezkeen tentsioak arintzen lagun dezaten. Familiari dagokionez, parte hartzaileetako askok aipatu dute aliatu horiek neba-arrebak izan daitezkeela, eta hortik, apurka-apurka, familiako gainerrakoen zabaldu.

*“Erabili nuen lehen estrategia ahizpari esatea izan zen. Ahizpa kanpoan bizi zen, eta gutun bat idatzi nion. (...) Gutuna jaso zuen, eta erantzuna oso ona izan zen (...) Banekien etxean esaten nuenean amak egingo zuen lehen gauza ahizpari deitzea izango zela, eta nire estrategia izan zen alde aurretik haren laguntza bilatzea” (Elena, Euskadi).*

Alabaina, ez da berdin gertatzen kasu guztietan, eta beste pertsona batzuek aipatu dute lehentasuna eman diotela, familiaren aurretik, euren moduko beste pertsona batzuen babesari, antzeko istorioak eta ahuleziak dituzten pertsona horien babesari; hots, aukeratutako familia esan ohi zaion hori. Euskadiko Aitorrek dioen moduan, ideia horrek hautsi egiten du eskema tradizionala, non familia nuklearraren bitartez bideratzen eta antolatzen den zaintza, eta hori bada, halaber, gertueneko aliantzetatik politika egiteko modu bat.

Lehenago aipatu dugun moduan, aurre egitea ez da beti kolektiboa den esparrutik hasten. Horren harian, Jaimek dio *“taldera [aukeratutako familiara] heldu garenok, bakarka egin diogu aurre alde aurretik egoerari(...) pertsonala den esparru horretan egin diogu aurre, eta hala egiten jarraitzen dugu taldea ez dagoen esparruetan”.*

Guatemalako taldean, eztabaida-mahaian, bikotekidearen garrantzia ere aipatu zen, maitasuna –ez halabeharrez afektibo-sexuala baina bai emozionala– ematen dizun pertsona horren garrantzia. Borrokarako bikotekide hori edozein pertsona izan daiteke, baldin eta kidesuna eta elkar laguntza baldin badago, *“nire lagunik handiena izan daiteke borrokarako bikotekidea, edo nire ama (...). Pertsona horrekin konpartitu nahi dugu, haren laguntza nahi dugu gauzei aurre egiteko”.*

Laguntza sarea eta familia lotzeari dagokionez, Sandrak (Guatemala) argi adierazi zuen berak ez zituela lotzen, alde batetik familia duela eta, bestetik, lagunak eta are erakunde publikoen laguntza; horrela jokatzeko du familia babestu nahi duelako. Horri dagokionez, Nikaraguako Cristinak honako hau adierazi zuen: *“[denborarekin] beste lagun batzuk egiten dituzu, eta beste familia hori sortzen duzu, marikoi guztiek aipatu ohi duten beste familia alterno edo alternatibo hori.*

*Zurekin harremana duten beste tortillera batzuek, beste marikoi batzuek, beste trans batzuek osatzen dute”.*

Errealitate hori testuinguru guztietan eta sexu- eta genero-aniztasunaren kolektibo osoan gertatzen da. Ikerlanean parte hartu duten pertsona gehienek aipatu zuten gai hau, baina azpimarratu behar da lesbianek eta emakume transek berebiziko garrantzia eman ziotela espazio seguruetan eta kidekoak diren pertsonekin antolatzeari. Espainiako estatuko Lidiak honela adierazi zuen: *“normalean, hau izaten da estrategia: areriotasuna sumatzen duzun espazioetatik urrundu, eta segurtasun burbuila moduko horiek sortu, non zaren moduan agertzen utziko dizuten”*. Nikaraguako emakume transen taldean planteatu zuten berdinen arteko artatze hori elkarri laguntzeko bide bat zela, ezagutza partekatzeko, arazoak eta are indarkeria konpontzeko bide bat.

Nolanahi ere, pertsonok ez gara soilik LGTBI kolektiboko kideak, gainerako jendarteak ere inguratzen gaitu, eta harremanak ditugu haiekin. Horregatik, zenbaitentzat, beharrezkoa da bestelako **espazio kolektiboetan edo mugimendu sozialetan** ere parte hartzea, bizitzaren zenbait alorrez, kezkez edo zaletasunez hitz egiteko eta horiek konpartitzeko.

Guatemalako María Josék azaldu zuen haientzat garrantzitsua zela zenbait berezitasun (behar, erronka eta gaitasun) propio dituen talde lesbiko modura antolatzea, eta hala egin zutela:

*“Batzuetan elkartu egiten gara eta hitz egiten dugu, eztabaidatzen dugu, gogoeta egiten dugu, demandan ibiltzen gara batzuetan, beste batzuetan ez, maitasuna ematen diogu elkarri eta holakoak; eta orduan, horrek, espazio-denbora jakin batean sortzen dugun kolektibo horren indarrak laguntzen digu beste pertsona eta talde batzuekin trukeak egiten, zeren konturatu baikara ez dugula nahitaez lesbiana garen aldetik bakarrik antolatu behar, lesbianok beste komunitate batzuetako kide ere bagarelako, herrietako parte gara, auzoetako parte, zaintza-sare askotako parte gara”.*

Elkarteen arteko aliantzak ere guztiz funtsezkotzat jo dituzte norberaren segurtasuna zaintzeko, zeren, alor pertsonalerako lehen esan den moduan, laguntza-sareak oso onuragarritzat jotzen baitira aurre egiteko prozesuetan. Aliantza horiek LGTBI kolektiboen beraien artean gauzatu daitezke, baita gainerako mugimendu sozialekin ere. Prozesuan zehar, sarritan azpimarratu da zein beharrezkoa

den **lagun feministekin harremanetan egotea**. Alabaina, oraindik ere aipatzen da sexu- eta genero-aniztasunaren mugimenduaren beraren baitan dagoen matxismoa, eta horri arrazakeria edota klasismoa gehitu behar zaizkio.

Beste pertsona batzuek garrantzi handia ematen diote nork bere buruarekin duen harremanari, **autozaintza eta autozagutzarako estrategia pertsonalei**, ez hainbeste biziraupen fisikorako, ezpada emozioen eremuan. Hortaz, autozaintzarako erresistentziak eta ekintzak beste alor klasikoagoekin lotuta egon daitezke, esaterako **espiritualtasunarekin** –erlijiotik aldentzea edo beste toki batetik bererarikitzea–, **terapiarekin** edo **ikasketekin**, baina baita hain landuta ez dauden beste eremu batzuekin ere, hala nola antzerki-kabareta, dantza egitea, yoga, norberaren gorputza ezagutzeara, espazio propioak izatea, mendian ibiltzea edo la-saitzen eta norberaren burua ezagutzen laguntzen duen beste edozein jarduera.

*“Antzerki-kabaretarekin harremanetan hasi, eta ikasi nuen geure buruari barre egin behar diogula, barre egin behar diogula... matxismoari, homofobiari, homofobikoei, lesbofobikoei, transfobikoei eta horiei guztiei... Horri guztiari barre egiten ikasi nuen, baita besteei ulertarazten ere... Eta baietz uste dut... Tira, ni, bederen, salbatu egin ninduen” (Cristina, Nikaragua).*

Espiritualtasuna nahiko kontzeptu lausoa eta abstraktua da; modu askotara gauzatzen da, eta desadostasunak sortzen ditu, batez ere Jainkoari eta erlijioei dagozkien kasu zehatzetan. Ikerlan honetan kontzeptu zabalago batetik heldu diogu espiritualtasunari, non tokia baduten espiritualtasun hori sentitzeko eta bizitzeko beste modu asko. Ildo horretan, Lolitak, garrantzi handia ematen baitio espiritualtasunari, gonbita egiten digu espiritualtasuna uler dezagun ondo sentiarazten gaituen zerbait den aldetik, zer handiago batekin loturik gaudela sentiarazten digun zerbait den aldetik. Haren ustez, bakarrik egin daitekeen zerbait da “zeure zeremonia egin dezakezu, bakarrik, eta zeure buruari hitz egin. Eta espazio bat topa dezakezu; espazio eder bat egin dezakezu: landareak jarri, eta kandelatxoak, eta... zuk nahi duzuna! Izugarri polita da. Espazio horiek topatzea da” (Lolita, Guatemala).

Elenak aipatzen du berarentzat zaila zela bere joera eta fede kristaua bateratzea, eta oso garrantzitsua izan zela bateratze hori egin ahal izatea aldi berean kristaua eta LGTBI zen talde batean. “Aldarten bazegoen talde kristau bat [Betania], eta han bat egin zuten militantzia moduko bi horiek; nik ordura arte nahiko bereizita nituen biak, baina gero ezin duzu bereizi ez zure bizitza pertsonala, ez zure

*militantzia bizitza (...) Espazio eroso bat topatu nuen; eroso, dena biltzen zelako (...) baita fedea ere. Ez, ez nekien nola lotu, eta gero, ba bai, gauza biak lotu nahia-edo baneukan” (Elena, Euskadi).*

LGTBI elkarteak eta taldeak bestelako **ekintza sinboliko batzuk** ere sustatzen ari dira. Horien artean koka ditzakegu Guatemala hiriko ODISCEA elkarteak sustatzen dituen lesbianen ezkontzak. *“Ezkontzaren gaia lantzen hasi ginen, eta horretan jarraitzen dugu, gehien eskatzen diguten ekintzetako bat delako. Ezkontza sinbolikoak dira, baina agiria ematen zaie, eta ospakizuna eta hori guztia egiten dugu. Eta gero bazkaria dago, guztiok berriketan-eta geratu ahal izateko” (Sesia, Guatemala).*

Bada autozaintzarako beharrezkoa den beste gauza bat, **nork bere buruari lehenentasuna ematea**. Zenbait pertsonak aipatu dute beharrezkoa dela nork bere burua modu independentean finkatzea eta eraikitzea, botere sozial handiagoa duten pertsonetikiko mendekotasunik gabe, ez mendekotasun materialik ezta emozionalik ere, mendekotasun horiek bidea eman baitezakete erasoak pairatzen jarraitzeko. Euskadiko partaide batek honela azaldu zuen: *“Nire estrategia da ni neu izatea, independentea; badut nire etxea, nik erabakitzen dut janzkera, eta nik egiten ditut erosketak. Ez nago inoren mende, ez naiz ezta haien maitasunaren mendekoa ere. Niretzat, haien maitasuna, haien laguntza, bigarren mailan daude. Ez da nire beharra”.*

Horretara heldu ahal izateko, independentzia eta ahalduntze pertsonal eta kolektibo horretara heldu ahal izateko, eta kontuan hartzen badugu denok sortu eta hazi garela generoaren edota desiraren arau sozialak hausten dituzten pertsonak baztertzen dituen jendarte batean, gehien aipatu den gaietako bat izan da nork bere burua aintzat hartzea, nork bere burua onartzea. Behin hori lortuta, posible izango da autozaintza.

Horri dagokionez, gehien aipatu izan den bitarteko edota tresnetako bat terapia da. Ildo horretatik, Guatemalako Beckyk azaldu zuen psikologia ikasteak psikoterapia bat egitera eramanez zuela, eta kontatu zuen prozesu horrek lagundu ziola bere burua onartzen, eta hala, ohartu zen ez zuela familiak esaten zion guztia egin behar.

Alor psiko-emozional honi dagokionez, beste pertsona batzuk ez dira euren bizipen zuzenetatik mintzo, baina argi utzi dute gai honekiko duten kezka, eraso baten ondoren gera daitekeen traumari edo beldurrari buruz hitz egiterakoan: *“hor*

*geratzen da, baina uste dut norberak apurka-apurka gainditzen duen zerbait dela. Gure buru-osasuna ere, nire ustez, landu beharreko alor bat da, eta horretan ere arreta eman behar diogu sexu aniztasunari; sarritan, oso defentsiban bizi gara, eta ikasi behar dugu indarkeria psikologiko edo fisiko horrek eragindako sufrimendua emozionalki kudeatzen” (Vinicio, Guatemala).*

Beste zenbait pertsonentzat, ordea, autoezagutza hori beste batzuekiko harremanean gertatu da; beste **erreferente** batzuk ezagutu dituzte, eta zabaldu zaie izateko, adierazteko eta desira sentitzeko aukeren iruditeria. Hala, euren burua identifikatzen eta euren **identitatearen** (generokoa, desirarena) **kontzientzia** hartzen doazen neurrian, subjektu aktibo bilakatzen dira, nola biziko diren aukeratzatzen duten pertsonak bilakatzen dira, eta dimentsio politikoa gehitzen diote hartutako erabakiari. Prozesu horretara modu askotara hel daiteke, eta modu askotara bizi daiteke; hona elkarrizketetan eta eztabaida-mahaietan agertu direnetako batzuk:

*“Niretzat, gay giroan sartzea izan zen bizirauteko modua. Kuadrillatik ateratzea mariken giroan sartzea izan zen, aparteko inguru bat edukitzea; aurre egiteko modua izan zen niretzat, horrek bidea eman zidalako nire identitate transexuala garatzeko eta ulertzeko joera politikoa zela nirea, ez sexuala” (Asier, Euskadi).*

*“Taldeek sozialki hazten lagundu zidaten. Espazio horietan, gehiago integratzen lagundu zidaten, ni neu izan ahal izateko” (Vinicio, Guatemala)*

*“Kontzientzia hartu eta gero, lesbiana nintzela eta nire hautu bat zela ere [ohartu nintzen]. Gainera, lesbianaren kontzientzia eta feminismoa niretzako batuta joan ziren, ez zen bakarrik ikustea erabaki pertsonal bat balitz bezala, baizik eta erabaki politiko bat bezala” (Txurru, Euskadi).*

**Gune seguruak** bilatu eta sortzeko ideia hori, lehenago esan dugun moduan, ez da bakarrik berdinen alorrean eta LGTBI kolektiboaren baitan agertzen, gure bizitzako beste eremuekin ere bai baitu zerikusirik; beraz, autozaintzarekin ere lotuta dago. Hala gertatzen da norbera “izan ahal izateko” lan guneak bilatzeko edo sortzeko prozesuan. Simonék (Guatemala) kontatu zigun estetizien modura jardun ahal izateko bidea eta formakuntza bilatu dituela, lan sexualaren alorrean ari zenean zituen arriskuak murriztu eta bizi kalitatea hobetu ahal izateko. Gaur

egun, emakume transexualek osaturiko talde batean ari da lanean, eta horrek aukera ematen dio segurtasun handiagoko espazio batean “izan ahal izateko”. Bestalde, Jaimek adierazi zuen bere estrategia izan zela oposizio bat ateratzeko ikastea, eta funtzionario<sup>41</sup> izan arte ez zela ausartu lantokian esaten gay zela, orduan jada ez baitzuen lanpostua galtzeko arriskurik.

Gune seguruak bizitzaren eremu askoz gehiagotara zabaltzen badira ere, lan esparrua bera izan daiteke horietako bat, esan berri dugunez: lana partekatzeke aliatuak bilatzea, lanpostua segurtatzen saiatzea edo geure lanpostuak sortzea. Sortzen dugun lan mota horrek, agian, beste toki batean jarriko gaitu familiaren edo gertueneko komunitatearen aurrean, eta aukera eman diezaguke alde aurretik dugun zaugarritasun posizio horri beste modu batera aurre egiteko. Juanitak berari gertatutakoa kontatu zuen: *“telebistan ikusten ninduten martxoaren 8ko martxetan, ekainaren 28koetan, azaroaren 25ekotan... Beraz (...), familiaren aurrean, errespetuzko posizioan jarri ninduen lan jardunak”*.

Erasoei aurre egiteko moduak ikasi eta praktikan jartzeko gune seguruei buruz hitz egiterakoan, berdinen arteko guneak aipatu izan dira sarritan. Hau da, egunerokoan bizi diren eraso, bereizkeria edo ahulezia horiek guztiak partekatzeke eta horiei buruzko gogoeta kolektiboa egiteko taldeak. Nikaraguako Safo kolektiboko kideek alde hori azpimarratu dute, eta hau da bilatzen dutena: *“konpartitzeko, jateko zerbait eraman eta tertuliak egiteko taldeak sortzeko moduak... Taldeek lagun dezakete aurre egin ahal izateko loturak sortzen”*. Baina zailtasunak ere aipatzen dituzte, *“zaila zaie taldeetara joatea, zaintzan aritu behar dutelako. Are gehiago ekonomikoki familiaren mende baldin badaude”* (Marta, Nikaragua).

OASISen talde horietako batean parte hartzea nolako esperientzia izan zen kontatu zigun Guatemalako kide batek, baita nola eta zertarako balio izan dion ere:

*“Gazteentzako tailerretara joan nintzen, prebentzio-tailerretara... Beste gay batzuekin elkartzea eta haien historien berri jakitea ere nahiko lagungarria gertatu zitzaidan, neure burua onartzeko eta egoera onartzeko [bere arrebaren arbuioa]. (...) Uste dut nahiko lagundu zidatela tailerrek eta besteekin egoteak. Eta lehenagotik ere harreman ona nuenez nire modukoa zen jendearekin, babes handia sentitzen nuen. Gaztea nintzenez, haiekin ateratzen nintzen, dibertitu egiten*

---

41. Lanpostua denbora mugarik gabe bermaturik duen estatuko edo gobernuko langilea.



*nintzen, eta ez nuen beste horretan pentsatzen, baina zenbait momentutan, bai, kemena galtzen nuen, eta horretan pentsatzen nuen”.*

Elenak, Aldarteren emakumeen taldean parte hartu zuen Bilboko kide batek, taldearen garrantzia aipatu zuen bakartze egoeratik atertzeko, eta aliantzak eta erreferentziak sortzen direla esan zuen:

*“Gune hori non hitz egiten duzun, komentatzen duzun, beste pertsona batzuk, antzeko bizipenak dituzten beste lesbiana batzuk ezagutzen dituzun (...) hau da, prozesu bat, non, hasteko, atera egiten zaren, apur bat, bakartze sentsazio horretatik: “ez naiz ni bakarrik”; aurrejuzgu asko hausten dituzu, erreferentzia argirik ez duzulako buruan dituzun estereotipo asko” (Elena, Euskadi).*

Partaideetako askok mugimendu feminista aipatu dute nork bere burua onesten lagundu duten kolektiboen artean, *“Ahalduntzen du, eta bitartekoak ematen dizkizu barneratzen joateko, argitzen joateko, zuk zeuk estigma eta amaraunak kentzen joateko. Zeure burua kokatzen duzu kideak entzuten dituzunean, haien mina entzuten dituzunean”* (Marta, Nikaragua). Nikaraguako emakume transexualen taldean ere agertu zen ekarpen hori, eta haien esanetan *“nahikotxo ikasi dugu kolektibo feministarengandik; sexu- eta ugalketa-eskubideen gaia lantzen irakatsi zigun, geure gorputzak emakume transexualak garen aldetik ezagutzen, plazeraz gozatzen”* (trans lan-mahaia, Nikaragua).

Espainiako estatuko Lidiak zaintzarako gune horiek sortzearen bi aldeak aipatu zituen, eta azaldu zuen asko eman dezaketela, baina, aldi berean, gainerako mugimendu sozialetatik edota jendartearengandik, oro har, aldentzea ere ekar dezaketela:

*“Azkenean, aurkakoak ez zaizkigun zirkulu feministez inguratzen gara beti. Uste dut horrek baduela alde oso polit bat: zaintzarako, autolaguntzarako guneak sortzea eta hori guztia, baina kezkatzen nauen alde bat ere badu, aukera galtzen baitugu beste esparru batzuetan borrokatzeko. Azkenean gure arteko zirkuluetan geratzen garenez, uste dut zerbait apaltzen dela etengabe egin beharreko borroka hori”* (Lidia, Espainiako estatua).

Estrategia askotarikoak uztartzea eta zeharkatzen gaituzten ahultasunen arteko intersekzioez jabetzea da erronka, gune benetan seguruak sortu ahal izateko; bestela esanda:

*“Indarkeriarik gabeko lurraldeak (...). Guk hemen artikulatu egiten dugu, jakina, denok sortu nahi ditugulako arrazakeriarik gabeko espazioak, klasismorik gabekoak, emakumeen kontrako indarkeriarik gabekoak, feminizidiorik gabekoak, hori guzti hori gabekoak, bai? (...) Nik hor sartzen ditut emakumeentzako laguntza sareak, ez bakarrik lesbianenak. Baita jatorrizko herrienak ere, egungo eztabaidetako bat baita hori. Ez dugu jada geure baitan bakarrik bildu nahi, dauden gainerako talde politikoekin uztartu nahi dugu” (María José, Guatemala).*

Espazio horiei esker “onartu egiten dugu ez gaudela bakarrik, [eta horrek] sendatze prozesu kolektibo batera eramango gaitu; gainean eraman behar izan ditugun eta gure arteko elkarrizketa garatzen uzten ez ziguten zauriak kenduta, elkar ulertzera hel gaitzke eskubideen alorrean lan egiteko (Nikaragua, gay kolektiboaren lan-mahaia).

Horrekin batera, **lorpenak ospatzearen** garrantzia aipatu izan da, ez gelditzea sufrimenduari eta minarekin soilik. Ospakizunei, egindako urratsei, garen horrengatik eskerrak emateari arreta jartzeak indarra ematen du, eta jarraitzeko gogoia pizten du. Beste bide bat **umorea** da, dramatik eta zaurgarritasunetik ateratzeko estrategia modura erabiltzea; iraina geureganatzea, eta gure alde erabiltzea “*geure buruei, lesbianoi, barre eginez, gure amei barre eginez, barre eginez... bueno, ez gure amei, baina bai... haien pentsamoldeei. Erasotzen gaituzten horiei burla eginez eta ikusaraziz zer sentiarazten diguten erasotzen gaituztenean*” (Cristina, Nikaragua).

Azkenik, aurre egiteko tresnen artean **formakuntzak** eta **heziketak** duten garrantzia aipatu behar da. Formakuntza eta heziketa horiek hezkuntza arautuaren baitan eskura daitezke, baita kolektiboetan edo bizitzan berean ere. Ildo horretan, berari ekarri dioten zenbait gauza aipatu zituen Juanitak:

*“Uste dut niri, horrek, La Corrienten lan egiteak, feministekin inplikatzeak, Generoa eta Garapenerako Ikuspegia masterra egiteak, bada... horrek tresnak ematen dizkizu, eta hala, askoz sendoago koka zaitezke oso homofobikoak, lesbofobikoak edo transfobikoak diren jendarteetan... Nikaraguakoan, esaterako” (Cristina, Nikaragua).*

Gainera, parte hartzaile askok adierazi zuten gaiei buruzko ezagutza eskuratzen duzunean, galderei erantzun ahal diezunean, diskurtso argi eta antolatua bat duzunean, argudio sendoez babes dezakezula zeure burua familian zein kalean, baita begirune handiagoa lortu ere.

*“Aktibismoaren barruan pertsona gisa hazten ikasi dut, eragiteko eta zenbait eskubide galdatzeko tresnak eskuratu ditut. Herritarra eta pertsona naizen aldetik nireak ditudan lege batzuk ezagutzen ikasi dut. Hemen ez dugu kolektiborako lege berariazkorik, baina badaude gure eskubideak onartzen dituzten dekretuak, akordioak, xedapenak eta nazioarteko itunak. Horren berri izatea baliagarria gertatu zait eragin ahal izateko eta gure eskubideak galdatzeko” (Luzwika, Nikaragua).*

Azken iruzkin horretan ikus dezakegu nola formakuntzak aurre egiteko estrategia berriak bideratu dituen, eta lotura zuzena dute eraldaketarako estrategiekin, zeren eskubideak gehiago ezagutzen diren neurrian, errazago identifikatzen baitira, eta hala, giza eskubideen ikuspegi horrekin, posible da eragitea eta eskubide horiek galdatzea; hori, jada, eraldaketarako estrategia bat dela esan genezake.

## — Eraldaketa

Eraldaketarako estrategiak, hala banakakoak nola kolektiboak, erresistentzien continuum deitu dugun hori ibili izanaren ondorio dira; haietara heltzeko, biziraupenari eta aurre egiteari dagozkien erresistentzietatik pasatu beharra dago alde aurretik. Hala ere, aurrekoetan ere esan izan dugun moduan, muga horiek ez dira beti guztiz argiak; lausotu egiten dira eta dimentsio batean baino gehiagotan egon daitezke. Oro har, **beste eragile politiko, sozial, kultural eta abarrek, kolektiboki abiatzen diren estrategiak dira, eta horien azken xedea da jendartea eraldatzea, indarkeria heteroarautzailea eta LGTBI direnen eskubideen urraketa –gorroto-delituak barne– gutxitzea eta desagerraraztea.**

Estrategia indibidualen aukera badagoen arren, baita horren adibideak ere, dimentsio honetan kolektibotik abiatutako prozesuak nabarmentzen dira, eta elkarrenganako laguntza sareak sortzen eta indartzen laguntzen dute. Laguntza sareek zuzeneko sinergiak dituzte biziraupenerako eta aurre egiteko estrategiekin, haietan ere aipatu baita berdinen arteko sareak sortzea, aurreko kapituluetan agertu den bezala.

Dimentsio honetan gehien azpimarratu den gaietako bat izan da eraldaketa moduak ez direla bakarrik kolektiboan eta kolektiborako bizitzen eta eraikitzen, ez bakarrik sexualitatearen eta generoaren arau sozio-historiko-kulturaletatik aldentzen dien pertsonentzat. Horregatik, **beharrezkotzat jotzen da**, sarritan, **beste kolektibo eta mugimendu sozial edota politiko batzuekiko harremana**.

Alabaina, LGTBI kolektiboaren beraren baitan ere islatzen dira beste zenbait botere egitura, eta gai hori planteatu egin behar da, gogoeta egin behar da egitura horiei buruz, kolektiboaren baitan ere eraldaketa bilatzeko. Botere egitura horiek gehien salatzen dutenen artean aipa ditzakegu, batetik, lesbianak, mahai gainean jartzen baitute mugimenduan dagoen matxismoa eta sistema patriarkala, eta, bestetik, mugimendu indigenak, jatorrizko herriak eta migrantek, agerian jartzen baitute arrazakeria eta pertsona zurien eta beste arraza baten marka dutenen arteko botere desparekotasuna. Testuinguru guztietako talde eta elkarrizketetan jorratu dira bi gai horiek, sistema global kapitalista, arrazista eta patriarkalaren parte baitira.

Sistema horrekiko jarrera kritikoa barneratu dute Latinoamerikako zenbait lesbiana feministak azken urteotan, eta Abya Ayala sarearen barruan antolatu dira. Guatemalako María José erakunde horretako kidea da, eta azalpen hau eman zuen: *“geure buruak pentsatzen ari gara, geure buruak akzionatzen, jarrera hartzen ari gara, eguneroko bizitza eta ingurukoa eraldatzen saiatzen gara; eztabaidan ari gara jarrera askotarikoak daudelako. Eta, nire ustez, konplexuagotzen ari gara zer suposatzen duen erregimen heterosexualak bakoitzaren bizitzan, edo zer suposatzen duen erregimen kolonialak, esaterako. Horri gehituta militarismoa, horri gehituta politika neoliberalak... Hortaz, uste dut esan dezakegula gehienok sistemaren kontrako jarrera dugula”*. Jarrera hori edota antzekoak dituzten pertsonak erabakitzen dute estatuak, politika publikoak eta gobernuen administrazioak aintzat ez hartzea, pentsatzen baitute horiexek direla sistema honen jasangarritasuna bermatzen duten mekanismoak eta ezinezkoa dela barrutik aldatzea; uste dute beharrezkoak direla tokian tokiko beste antolabide batzuk eta beharrezkoa dela, halaber, antolaketa kolektiboa.

Bestalde, badaude **erakundeekiko elkarlana** bilatzen duten bestelako estrategia batzuk: itunen bidez, lege edo protokoloen bidez...; kolektiboen eta administrazioaren artean finkatutako harremanen bitartez gauza daiteke hori, edo politikaren baitan lan eginez. Guatemalako Simonék jarrera hori defendatzen du, zeren *“izaki guztiok ditugu eskubideak, gu ez gara salbuespena; estatuak bermatu behar ditu eskubide horiek, eta hala egin dezan, exijitu behar ditugu”*.

Exijitzeko modu asko daude; batzuek politikan sartzea erabakitzen dute, adibidez, Sandra: Guatemalan, jendaurrean eta nabarmen, lesbiana modura agertu den lehen diputatua izan da. Postu horretatik, ikusarazteaz gainera, zenbait lege aurreproiektu bultzatu ditu: ezkontza berdinzalearena, genero identitatearena eta aurrejuzguengatik delituena. OASIS elkartean ere saiatu ziren gorroto-delituei aurre egiteko lege aurreproiektu bat sustatzen, baina, elkarteko lehendakari Jorgek azaldu duen moduan, ez zuen aurrera egin, eta erabaki zuten hobe zela taldearen indarra horretan ez jartzea: *“bizpahiru urte behar izan genituen uleritzeko Guatemalako jendartean gorroto-diskurtsoa hain zegoela barneratua eta egoera kulturala hain zela zaila ezen prozesua eten baikenuen, eta utzi egin genion gure baliabide urriak horretara jartzeari”* (Jorge, Guatemala).

Dena den, eraldaketarako estrategia modura administrazioarekin elkarlanean ari diren guztiak ez datoz bat gorroto-delituen kontrako legeak egitearen ideiarekin eta kriminalizazioarekin, uste baitute epe labur-laburrerako estrategiak direla eta ezin zaiela denboran eutsi; era berean, uste dute ez dutela erasoan atzean dagoen errealitatea eraldatzen. Lege horien kontrako beste argudioetako bat da pertsona guztiak ez gaudela posizio berean, eta, beraz, pertsona guztiek ezin dituztela eskubideez maila berean baliatu. Horren adibide bat atera zen Euskadiko eztabaida-mahaian: partaideetako batek azaldu zuen nola, behin, arraza marka ageriko pertsona batek iraindu eta jazarri zuen, kalean, takoiak jantzita ibiltzeagatik, eta berak poliziaren aurrean ez salatzea erabaki zuen, Euskadin jaiotako pertsona izateagatik duen boterea ez baliatzeko.

*Nire ustez, gehienok bultzatzen ari garen kriminalizazioaren estrategia hori ez da estrategia ona. Horrekin oso kritikoa izaten naiz gorroto-delituen kontrako legeetan. Epe oso laburrerako estrategia iruditzen zait, ezin zaio denboran eutsi. Gainera, uste dut eskubideen kontrako taldeak bultzatzen dituztela, eta hori da gaur egun dudak kezkarik handiena. (Lidia, Espainiako estatua).*

Safoko kideek guztiz bestelako esperientzia izan zuten, Nikaraguako Osasun Ministerioarekin koordinatuta jardun baitzuten hiru urtez, emakume lesbianen osasunaren alorrean. Hori lortu ahal izateko Sexu-aniztasunaren prokuradoretzaren laguntza behar izan zuten, eta alde aurretik bildu behar izan zituzten emakume lesbianen datuak eta haien osasun berezitasunak. Hala, presioa egin ahal izan zuten; klinika berezituak zabaltzea exijitu zuten, eta zenbait aldaketa eginarazi zituzten arreta eta jardun ginekologikoaren protokoloan.

Emaitza oso onak ekarri ohi dituen presio moduetako bat da zehatz bildutako estatistikak argitara ematea. Sexu- eta genero-aniztasunaren mugimenduak indarrez eskatzen duen gauzetako bat da. Elkarrizketatu ditugun kolektiboetako batzuek estrategia hau baliatzen dute informazio iturri modura, neurri zehatzak eskatzeko edo giza eskubideen urraketak ikusarazteko. Horren adibide dugu, esaterako, SAFO, Erdialdeko Amerikako zenbait herrialdetan egiten diren hilketak erregistratzen dituzten behatokiaren sare batean baitago; Euskadin, ALDARTEK Eraberean sarean hartzen du parte –tratu berdintasunaren eta diskriminazio ezaren aldeko serea–, eta bertan, sexu-joera eta genero identitateagatiko gorro-delituak ere jasotzen dira.

Nikaraguan eta Guatemalan bereziki, **jarrera kontserbadoreenekin** –gehienak jarrera erlijiosoekin lotuta daude– **elkarrizketa** bilatzeko beharra sortu da. Esparru pertsonal zein kolektiboetan erabiltzen den erantzun eta eraldaketarako argudioetako bat da jarrera kontserbadoreei edota erlijiosoei erantzun behar zaiela giza eskubideen alde agertuz. *“Etengabe esaten ziguten (...) hori ez dela zilegi, hori bekatua dela, eta guk, normalean, ez genien horretan kontra egiten, ez gintuelako inora eramaten. Guk esaten genien gai guztiak giza eskubideen ikuspegitik planteatzen genituela, ez ginela planteatzen ari ez kontu erlijiosorik, ez politikorik, ez halakorik; beti, giza eskubideen ikuspegitik”* (Marta, Nikaragua).

Politikoki eragiteko beste moduetako bat da **kolektibo bakoitzaren edota komunitatearen liderren bitartekoa**; hala, elur bolaren ondorioz, askoz jende gehiagorengana hel daiteke, bai laguntzeko, baita informazioa zabaltzeko ere. Gainera, horrek aukera ematen du errealitate askotarikoak ezagutzeko, elkar trukerako espazioak eskaintzeko eta gune bat sortzeko non kolektiboki jardun ahal den. Asmo horretatik sortu ziren, besteak beste, Nazioarteko Trans Topaketa edo Abya Ayala.

Sareak sortzeko ildo honetan, gertuko sareetan zentratzen dira beste estrategia batzuk, eta LGTBI den horren esparrua gaindituta beste mugimendu sozialekin edo beste kolektiboekin elkarlanean jarduten dute; garrantzitsua da bizitzaren beste esparru batzuetan lesbiana modura, trans modura edo bisexual modura jardutea, egunerokoaren sare horietatik eraginez eta iruditeriak aldaraziz.

*“Ez dugu zertan lesbiana garen aldetik bakarrik antolatu, zeren lesbianak kolektibitateetako parte ere bagara, herrietako parte gara, auzoetako parte gara, zaintza sare askotako parte gara. Beraz, nik, zera, erakunde bat baino gehiago dut, eta antolaturik nago, esaterako, elikaduraren gaietarako; agroekologia bultzatzen ari gara zenbait*

*emakume kakchiquele-rekin, eta hor, lesbiana baten jarrera eta begirada jartzen dut” (María José, Guatemala).*



Nahiz eta halako estrategien aldeko apustu pertsonala egin, berdinen arteko laguntzaren gune seguruan babesteko beharra ere ikusten da, indarrak hartzeko, besteek ulertzen zaituztela sentitzeko azalpenak eman behar gabe edo zeure burua etengabe arriskuan jarri gabe. Aurreko atalean azaldu dugun moduan, estrategia hau aurre egiteko estrategietan ere errepikatzen da.

Gertuko sareek eurek, kideko pertsonen arteko elkarrizketa horiek, desberdinen arteko gogoetek, bestelako planteamenduak partekatzeak, horrek guztiak eraldaketa eragiten du sareetan parte hartzen duten pertsonengan eta kolektiboetan. **Aldaketak eta eraldaketak sustatzen ditu eremu politiko eta ideologikoetan**, baina baita **nork bere buruarekiko harremanean ere, autokontzeptuan, norberaren gorputzarekiko harremanean...** Nikaraguako trans taldean, parte hartzaileetako batek honakoa aipatu zuen: *“sexu-eskubideen eta ugalketa eskubideen aldeko borrokan lagun feministekin sorturiko aliantzek lagundu egin zidaten burutik kentzen emakume transgeneroa naizenez rol femeninoak islatu behar ditudalako ideia, eta nire gorputzarekin nola jokatu behar dudan argitzen ere lagundu zidaten. Ezin dudala nire gorputza ukitu, ezin zaidala tentetu eta gauza horiek”* (Nikaragua, trans taldeko kide bat).

Euskadiko Krisek ere antzeko zerbait aipatu zuen bere orientazioarekiko identifikazio prozesua feminismoarekin batera gertatu zela azaltzerakoan, eta esan

zuen bi eremu horien interrelazioaren ondorioz bere desira politizatu egin dela eta orain bolleratzat jotzen duela bere burua.

*“Niretzat identitate politiko bat da. Hori da lesbianaren eta bollera-  
ren arteko aldea. Niretzat, bollera izatea ez da bakarrik norekin ohera-  
tzen naizen, bada, baita ere, kalera ateratzea eta hori errebindikatzea.  
Niretzat, politikoa ez den jendea lesbiana da, eta politizazio prozesu  
hori egin dugunok bollerak gara” (Kris, Euskadi).*

Krisek aipatu zuen, halaber, politizazio prozesuak eta bollera modura identifika-  
tzeak, bere aitonak bera ulertu eta onartzearekin batera, eman ziola **ikusgai egiteko** bultzada. *“Ezkutatzen saiatu zara, mimetizatzen, zeure burua ukatzen, eta ikusten duzunean badagoela babesten zaituen zerbait, edo zure baitan iraulketa hori gertatzen denean, kontrakoa egiten hasten zara. Ikusi nuenean gure aitonak ulertu egiten zuela, kontrakoa izan zen nire estrategia: etengabe neure burua errebindikatzea, gaia ateratzea, nire andregai ahal nuen guztietan aipatzea”.*

Ekintza politiko bat da **ikusgai egitearen** estrategia, eta bide hori bizitzan luza-  
roan aukeratu duten pertsonak gauzatu ohi dute, baina ez du zertan une oro gertatu. Biziraupeneko atalean ikusi dugunez, zenbait momentutan ezkutatzea hautatzen da, segurtasunagatik, eta hori ere guztiz zilegi eta arduratsua da, bai norberarekiko bai besteekiko ere. Nork bere burua agerian uzteko modu hori –tes-  
tuinguruen arabera, bai estatuen arabera, bai ikusgai egiteko edo kamuflatzeko erabaki pertsonalaren arabera mailakatzen da– berez da iruditeriak eraldatzeko modu bat, beste pertsona batzuentzako erreferentzia berriak sortzeko modu bat, heteroarauaren ustezko nagusitasuna ezeztatzen hasteko modu bat.

*“Nik erreferenteak eduki nahi izango nituzkeen, eta horregatik iru-  
ditzen zait garrantzitsua ikusgaitasuna areagotzen joatea, gazte jen-  
dearen erreferenteak izateko. Nik ez nuenez erreferenterik, arraro sentitzen nintzen, eta ez nekien zer gertatzen zitzaidan; horrela, nola barneratuko duzu? (Meri, Espainiako estatua).*

Ikusgaitasuna areagotzeko estrategia egunerokotik harago doa, eta beste eremu batzuetan gara daiteke; estrategia horren barruan sartzen dira, besteak beste, kalea okupatzea, kolektiboak bizi duen errealitatea ezagutarazteko azterlanak egitea, hedabideak erabiltzea erakutsi nahi den horren alde, eta, jakina, **LGTBI esparruaren barruan ikusezinoak diren kolektiboak ikusaraztea**, bai LGTBI kolektiboaren beraren barruan baita kolektibotik kanpora ere.



Hedabideak aliatu gisa erabiltzearen estrategiari dagokionez, ikusgaitasun handia ekar dezake, baina ez du beti ondo funtzionatzen, zeren, Nikaraguako eztabaida-mahaiko trans taldeak adierazi zuen moduan: *“hedabideetara joan zaitezten nahi dute, baina haiek nahi dutena esan dezazun nahi dute”*. Kasu horietan, bikoitza da estrategia *“horretan, arriskatzen jakin behar duzu, eta hitz delikatu mordo bat jakin behar dituzu zuk nahi duzun horri heldu ahal izateko. Hedabideen kontu hori aho biko ezpata da”*.

Kalea okupatzea diogunean, martxa, manifestazio, elkarretaratze eta halakoez ari gara, baina baita egunerokoan gauzatzen diren beste ekintza batzuek ere, esaterako elkarri maitasun keinuak egitea jendaurrean eta harremanetarako beste modu batzuk ikusaraztea. Guatemalako taldeko mutil batek azaldu zuen bera era horretako ekintzen aldekoa zela *“neure guduak kalean, baina beste jendea inplikatu gabe; nire bikotekideekin maitasun keinuak jendaurrean egiten saiatzen naiz, etab. Ausartagoa naiz. Diskoteka batean banago, nahiz eta gay-friendly ez izan, ez ditut maitasun keinuak ezkututzen, ezta nire mutilarekin kaletik noanean ere”*.

Testuinguru guztietan, ekainaren 28ko martxak eta manifestazioak dira hedatuena daudenak, gehien ikusten direnak. Ikusgaitasun handia ematen dute, baina bertan parte hartzen dutenek ez dute hainbesteko arriskua hartzen, eta horregatik, lantokietan, familian, edo auzoan ikusgai izan nahi ez duten zenbait pertsona ausartu egiten dira deialdi horietara biltzen eta beste LGBTBI batzuekin batera ospatzen edota erreibindikatzeko.

*“Sexu aniztasunaren aldeko desfilea oso garrantzitsua da guretzat; seguruen, gure ekitaldirik hoberena. Denok koordinatzen gara... Bueno, nola edo hala koordinatzen gara, baina esan liteke horretan koordinatzen garela hoberen. Bada, nolabait, jendeari ‘goazen aurrera’ esateko modu bat. Eta uste dut nazioartean martxak eta desfileak jai girokoagoak izaten direla, oso alaiak dira; hemen ere jai girokoa eta alaiak izaten da, baina badu, halaber, erreibindikazio kutsua. Etengabeko borroka bat da, jendeari esateko hazten ari garela. Hemen gaude eta ez gara beldur. Izugarrizko indarra da hori; horrek bultzatzen nau lan honetan segitzera” (Vinicio, Guatemala).*

Ikusi ahal izan dugunez, testuinguru guztietan azaltzen da, nola edo hala, **jai giroaren eta erreibindikazioaren dikotomia** hori: non hasten den bata eta non amaitzen den bestea, eta nola lotzen eta uztartzen diren biak. Ekainaren 28ko manifestazioetan gertatzen da hori gehien bat, eta bereizketa hori da, gaur egun,

talde antolatzaileen eztabaida eta gogoeta gai nagusietako bat, baita hausturetarako arrazoia ere; hala gertatzen da testuinguru guztietan.

Ekainaren 28ko mobilizazioetan eta LGTBI kolektiboak antolatzen dituen beste-lako ekitaldietan planteatzen den beste gaietako bat da sexu- eta genero-aniztasunaren barruan dauden errealitate eta berezitasun guztien ikusgaitasun eza. Emakume lesbianen elkarteek mahai gaineratu dute, gehien bat, errealitate hori, baina trans kolektiboek ere aipatu izan dute. Lesbianen berezitasunen ikusgaitasunaren kristalezko sabai hori hausten joateko asmotan, Guatemalako ODISCEA taldeak, Euskadiko Histeria Kolektiboak taldeak eta antzerako batzuek, emakume lesbianen edota bolleren historiak taularatzeko eta horien garrantzia azpimarratzeko ekintza kulturalak antolatzen dituzte.

*“Guk ez genuen LGBT egin nahi, duela zenbait urtetik hona Guatemalan badagoelako halako bat, baina hartan, astebeteko programazioan, film labur lesbiko bat baino ez dago; ez gaitu ordezkatzeko. Orduan, pentsatu genuen: ‘Egin dezagun lesbiko bat’. Geuk antolatu genuen geurea, zinema lesbikoaren jaialdia antolatu genuen” (Jammy, Guatemala).*

Behin eta berriro planteatzen den kezka bat da ikusgaitasunak, zentzua izango bada eta pertsona LGTBlekin begirunetsua izango bada, kolektibotik beretik atertzen den zerbait izan behar duela. Asierrek, Euskadikoa, horretaz hitz egin zuen aipatzean nola ari diren kolektiboak agertzen kulturaren eremuan, hedabideetan edo telesailetan. Haren usten *“ikusgai egitea aditza ‘nork bere burua’ moduan jokatu behar da. Besteek egiten zaituztenean ikusgai, ez du funtzionatzen”*.

LGTBI kolektiboaren barruan botere txikiagoa duten taldeen ikusgaitasunaren gaia beste alor batzuetan ere jorratzen ari da; adibidez, ikerketaren munduan. Alor horretan, helburua da informazio egokia sortzea sexu- eta genero-aniztasunaren esparruko pertsonen errealitateari buruz, bai eta zenbait hamarkadatan ezkutatu izan den borrokaren historia biltzea ere. Ikuspegi horretatik, kolektiboaren barruan dauden talde, identitate edo sentiera guztien errealitatea ikusgai egiteko mekanismoak eta ikerlanak bultzatu izan dira. Horrekin batera, bestelako zapalkuntza eta zaurgarritasun forma batzuekin interseksionatzeko esfortzua egiten ari da.

Aintzat hartzen badugu ikusezintasuna dela zapalkuntzarik handienetako bat, ze izenik ez duena, ikusten ez dena, besterik gabe, ez da, orduan, nork bere burua

erreibindikatzeko, ikusarazteko, jendaurrean agertzeko estrategia hori bada, berez, eraldatzailea.

*“[kolektiboak] eraman ninduen ikusgai egin ahal izatera, gure artean [lesbianen artean] isiltasunaren kontu hori oso harlauza pisua baita bizitzaren alor askotan; azkenean, erreibindikazio politikoaren puntu horretara eraman ninduen, eta nire kasuan, artearen alorretik gauzatzeko da. (...) Artea, batetik, pilatuta daukazu amorru hori ateratzeko –zuretzako alde terapeutikoa–, baina artea, baita ere, eztabaidarako tresna gisa, iruditeria, erreferentzia, narratiba berriak sortzeko tresna gisa” (Maria, Euskadi).*

Eraldaketarako estrategia gisa erabil daitezke, eta erabiltzen ari dira, artea eta kultura, iruditeria berriak sortzeko, estereotipoak hautsi eta heteroeraketa xaxatzeko, narratiba berriak sortzeko tresna modura planteaturik.

*“[beste iruditeria batzuk edukitzea] eskertuko nukeen hasieran, ze gauza bakarra zegoenez... bada, urte asko eman behar dituzu **jolas moduko horrekin: izartxoak izartxoan sartu, zirkulua zirkuluan, “eta ni, non sartzen naiz ni?, nik ez dakit horretan jolasten”**. Iruditeria berriak sortzea oso-oso kontu luzea da, prozesuak behar dira... (María, Euskadi).*

Beste kolektibo batzuek beste hedabide mota bat aukeratu dute: hedabide propioak, autogestionatuak eta heteroeraketa erakusle izaten jarraitu nahi ez dutenak. Horrelako estrategiak hautatu dituzte OASISen, La Corriente-n edo Safon, eta euren irratsaioak egiten dituzte. Programa Feminista La Corriente-ko Cristinak azaldu zigun duela zenbait urte hasi zirela Cuerpos Sinvergüenzas irratsaioa egiten, eta berak esan bezala, “*ekaina osoko saioak sexu-aniztasunaz hitz egiteko baliatzen ditugu. Eta berebiziko garrantzia ematen diogu lesbianeiz hitz egiteari eta emakume transei buruz hitz egiteari. Hori baita erakunde honetako apustu politikoetako bat*”.

Eraldaketa sozialaren dimentsioan erabiltzen diren estrategiak globalak izan daitezke, nazionalak, edo herri mailan eragitekoak. Irrati komunitarioak zein hedadura gutxikoak tokiko esparruan garatzen dira, baina Internetez eta sare sozialez ere zabaltzen direnez, zabalkunde handiagoa erdiets dezakete, are zabalkunde globala, eta kolektiboko pertsonen artean beste errealtate batzuk, beste testuinguru batzuetako errealtateak ezagutarazten dituzte.

**Tokian tokikotik**, gertuko ingurunetik **eraldatzearen garrantzia** behin baino gehiagotan agertu da ikerlanean, batez ere eztabaida-mahaietan; gainera, modu askotara kudea daitekeen zerbait da, baina egunerokotik egiten denean, eraldaketarako gaitasun oso handia du. Ildo horretan, honako hauek aurki ditzakegu: elkarrizketan jarduteko moduak, gai eta errealtate LGTBlak gertukoei ezagutarazteko moduak, kalean agertzea, jaioterrian edo aukeratutako tokian geratzea eta toki horretatik militatzea, nork bere burua ikusgai egitea bera, etab.

*“Uste dut burua zabaltzen eta gure ingurua aldatzen joateko modu asko daudela. Ezin ditugu xede handiak planteatu ez bagara gauza izan gure lagunaren mentalitatea eraldatzeko. Uste dut guk geuk erakutsi behar diegula nor garen gure familiari, lagunei eta ezagunei. Erakutsi behar diegu LGBTI izateak ez duela esan nahi desberdina izatea” (Iveth, Guatemala).*

Sarri askotan, politikoki eragitea eta lan komunitarioa edota tokian tokikoa bereizi egiten dira azkenean, baina egunerokotik eragindako eraldaketaren ikuspegitik erreparatzen badiegu, jarduteko bi modu horiek lotura komun asko dituzte, eta ia ezinezkoa da bata lantzea bestea jorratu gabe. *“Batzuetan oso gutxi lantzen dugu politikan eragiteko jarduna, baina nik uste dut eskutik lotuta doazela politikan eragiteko jarduna eta guk egiten dugun lan komunitarioa”* (Sesia, Guatemala).

Horren adibidea izan daiteke nola borrokatu zen Juanita, nolako erreibindikazioa bultzatu zuen, eta nola, azkenean, graduazioa berak nahi zuen moduan disfrutatu ahal izan zuen. *“Mugarri bat izan zen Nagaroteko institutuko batxilergoko graduazioetan. Ordura arte, halakorik ez zen inoiz egon, nahiz eta urte bete lehenago beste neska trans bat graduatu zen batxilergoan, hari ez baitzioten utzi emakumeekin desfilatzen. Ezta emakume jantzita ere. Baina nik beti esaten nuen, zera, beti neukan buruan... Nik ezagutza handia dut eta ezin dute nire iritzia guxtiatsi besteekin egiten duten moduan”* (Juanita, Nikaragua).

Laguntza taldeen arteko antolaketa modua ere izan daiteke eraldaketa bat, sozializazioen eta zaintzen gune nagusia familia nuklearra dela finkatzen duen ideiarekin eta heteroerarekin hausten baitu. Antolatzeko modu horri Asierrek, Euskadi, *“la manada”* esaten dio, eta aipatu zuen berarentzat *“politika egiteko eta elkar bizitzeko modu bat dela. Aliantzak gertukoan egin, auzoko bizimodua jorratu, gertuko sareak sortzen joan”*, ez bakarrik kolektiboko kide diren horiekin, ezpada gertuko komunitateko (auzoa, herria, beste kolektibo eta elkarteak) kide diren pertsona horiekin.

Alabaina, aukera horrek ezin du bakartuta funtzionatu, eta ingurune zabalagoak, jendarteak laguntzen ez badu, agian ez da baliagarria izango. Halakoetan, gerta daiteke erasoak inolako oihartzunik ez izatea eta batere zigorrik gabe geratzea; baliteke baita sozialki bultzatzea edo saritzea ere. Horregatik, zenbait kolektibok, adibidez Nikaraguako Safok, ekintzak eta proiektuak sustatu dituzte familiek etxetik bidali eta babesik gabe geratu diren emakume lesbianeiei laguntzeko. Zaurgarritasun egoera horiei erantzuna emateko askoz, Safo elkarteak aterpetxe bat kudeatu zuen –*“elkartasunerako espazio bat lortu ahal izan genuen”*– beste pertsona batzuen laguntzarekin; pertsona horiek altzariak eman zituzten, eta laguntza pertsonala eta emozionala eskaini zieten emakumeei (Marta, Safo taldea, Nikaragua).

Jendartearen eraldaketa lantzeko beste bide bat dira LGTBI komunitateari dagozkion gaiei buruzko eta indarkeria-egoera eta erasoak bizitzeko moduari buruzko **heziketa eta sentsibilizazioa**. Estrategia hau sakona da, eta prozesu modura ulertu behar da, denbora behar baita pertsona lesbiana, gay, bisexual eta transei ezarri zaizkien estereotipoak eta aurrejuzguak aldarazteko eta horiekin hausteko. Guatemalako unibertsitateko irakaslea den Beckyk adierazi zuen hasi dela unibertsitateko geletan homosexualitateaz hitz egiten, baina zaila dela horri ekitea: *“Ez dute ulertzen. Ez dute informaziorik. Horretarako denbora asko pasatu behar da, informatu egin behar dira, irakurri behar dute, ikasi behar dute, ezinezkoa da jendea goizetik gauera aldaraztea”* (Becky, Guatemala).

Berriz ere, beste erreferentzia batzuk ematea eta beste eredu batzuk eskaintzea da kolektiboari buruz dauden estigma sozial horiek aldatzen joateko modua. Nikaraguako Luzwikak garrantzi berezia ematen dio emakume transen beste irudi batzuk ere zabaltzeari, eta ez bakarrik ikasketarik gabeko emakumeenak edo sexu-langileenak; hau da, abokatu, estetizien edo dendari diren trans horiek ere ikusgai egitea. Emakume transak irudikatzeko modu berriak sortu ahal izateko, enfasia jarri behar da pertsona transen formakuntza akademikoan, zeren, hezkuntza sistemak berak ezartzen dituen zailtasunak eta oztopoak direla medio, eskola-porrot handienetakoa duen taldea baitira. Errealitate hori aipatu da, batez ere, Guatemalan, Nikaraguan eta Mexikon.

Beste pertsona eta kolektibo batzuek iradokitzen dute ezen, kanpora begiratu baino lehen jendartearen gainerakoa hezi eta sentsibilizatzeke, kolektiboen berriaren barruan egin behar dela azterketa. Lehenik eta behin, geure buruak hezi –zer da indarkeria?, zer eraso mota daude?–, erasoak identifikatu ahal izateko eta horiei erantzutea (edo ez) erabaki ahal izateko. Gainera, arretaz begiratu behar

diegu dugu gure kolektiboetan eta gertuko ingurunetan dauden botere-harremani, lehenago zehaztasun handiagoaz azaldu den moduan.

**Sentsibilizazioaren** alorreko estrategia ikusgarrienak **gai jakinei buruzko kanpainak eta salaketak** dira; izan daitezke zabalkunde eta publizitate kutsu handiagokoa kanpainak, edo gai horiei buruz formatzeko materialak nahiz lane-rako tresnak eskaintzea. Materialak, kasu askotan, eskoletara, ikastetxeetara eta hezkuntza arautuaren zein arautu gabekoaren esparruara bideratuak izan ohi dira, eta ikasleekin eta irakasleekin jorra daitezke.

Beste kanpaina mota batzuk –afixak, bildutako datuen zabalkundea...– sentsibilizazioaren esparruan kokatzen dira, eta esan dezakegu guztiz lotuta daudela ikusgaitasunarekin, batez ere kolektiboko pertsonak, beraiek hala erabakita, afixetan eta jendaurrean agertu izan diren kasuetan.

Talde eta elkarrizketetako askotan ikusi da garrantzitsua dela zeharkakotasuna lantzea eta tokikoa den horren eta globala denaren arteko lotura lerroa marraztea, *“jakitea zure adierazpen hori justizia adierazpen bat dela, tokiko esparruetan zein eremu globalean justizia eskatzen duen adierazpen bat. Lotura hori egin beharra dago. Zeren, bestela, ba hil egiten zaituzte eta ez da ezer gertatzen”* (Lolita, Guatemala). Horrela, kasuistika zehatzak aipatzen eta horiei buruz gogoeta egiten den aldi berean, aztertu behar da zein den sistema-eredua halako eraso LGTBIfobikoak oraindik ere gerta daitezen, eta zer oinarritan finkatuta dagoen.

Horretarako, eta beste kide batzuek lehenago garatu dituzten borrokekiko koherentziari eta begiruneari eusteko asmoz, ia elkarrizketa guztietan aipatu da beharrezkoa dela **mugimenduaren historia ezagutzea, tokian tokikoa zein nazioartekoa**. Horri beste ideia bat ere gehitu behar diogu: gaur egun mugimenduetan dauden pertsonen atzetik beste batzuk helduko dira, edo heldu berriak dira jada, eta horiei ere tokia utzi behar zaie; ez dira bideak itxi behar. Belaunaldien aldaketak garrantzitsuak ez ezik aberasgarriak ere badirela aipatu izan da, ikuspegi berriak ekartzen baitituzte, ulertzeko eta jendarteari jakinarazteko modu berriak.



## ► Ondorioak

Ondorioak aztertzerakoan, prozesu osoan sortu diren informazio eta gogoeta guztiak modu ordenatuago batean biltzeko xedez, bi atal egiteko beharra ikusi da. Horietako lehendabizikoan, estrategiei buruzko eta haien dimentsioei buruzko gogoetak azalduko dira: zein diren gehien lantzen diren azpiatalak eta nola uzartzen diren euren artean. Bigarren atalean, berriz, zabalagoa izango da ikuspegia, eta kontuan hartuko dira antolaketa moduak, estrategien mapa osoa zeharkatzen duten alorrak eta antzekotasunak edo berezitasun zehatzak, hala nola etorkizunari berrira planteatzen diren galderak; horrek iradokiko digu nondik eta nola jarraitu behar dugun lanean, baita non jarrai dezakegun bilatzen sexu-joera eta genero identitateagatiko gorroto-delituei aurre egiteko moduak.

### — Estrategiei buruzko gogoetak

Aurreko atalean ikusi den bezala, ikerlanean parte hartu duten pertsonak erabili dituzten estrategien eta tresnen bilduma ikusirik, ondoriozta genezake inguruar bar pertsonal eta bizi-egoera bezainbeste estrategia eta tresna daudela, pertsona berak estrategia oso desberdinak erabil baititzake momentuaren arabera.

Horrez gainera, erresistentzia gauzatzeko modua ez da beti alde aurreko planteamendu baten ondorio izango, ez da beti denboran zehar modu jarraituan gauzatzen den zer antolatu bat izango; era berean, ez da, nahitaez, sexu- eta genero-aniztasunaren komunitatearen gaur egungo errealitatea eraldatuko duen aldaketa soziala bilatzen duen jardunbidea izango. Indarkeria egunerokoan gertatzen denez, estrategietako asko eraso jakin bati erantzutera, hura leuntzera edo saihestera bideratuta daude, beraz, eguneroko bizitzaren baitan kokatzen dira, eta erantzun puntuala eta automatikoa emango dute.

Hala ere, azpimarratu behar da erresistentzietako asko, hasieran, iragankorrak direla, une jakin bat leuntzeko bideak, baina, denboran errepikatzen diren neurrian, kolektibizatu egiten dira, eta batzuetan, antolaturiko estrategia ere bilaka daitezke, alde aurretik pentsatuak eta diseinatuak. Horrela, hasieran biziraupenerako erresistentzia ziren ekintza batzuek eraldaketarako edo aurre egiteko estrategia, edo biak batera, bilakatuko dituen haria ehuntzen dute.



Nolanahi ere, hiru dimentsioetako eskema da beti, eta elkarrizketetan eta eztabaida-mahaietan, dimentsio bakoitzean erabiltzen diren estrategia jakin batzuen azpikategoriak antzeman ahal izan dira.

BIZIRAUPENA	AURRE EGITEA	ERALDAKETA
Ikusgaitasuna, ezagutarazteko	Laguntza-sareak sortu eta indartu	Mugimendu sozialetan parte hartu, antolaketa edo parte hartze politikoa
Ikusezintasuna, oharkabean geratzea, migratzea	Parte hartzeko guneak	Ikusgai egin
Negoiazioa, lokarrien bitartez	Autozaintza eta autoezagutza	Kultura eta artea, iruditeria berriak sortzeko
Buru egitea (ahoz edo fisikoki)	Espazio seguruak sortzea eta bilatzea	Tokian tokiko eragina
Espazio-denboren kontrola	Formakuntza eta heziketa	Heziketa, sentsibilizazioa
	Espiritualtasuna	Memoria historikoa

**A. Biziraupenaren dimentsioan**, azpikategorietako batzuk **ikusgaitasunarekin** daude lotuta, eta beste batzuk, ordea, **ikusezintasunarekin**; kontrako jarre-  
rak izan arren, ikerlanean parte hartu duten pertsonetako askok adierazi  
dute biak erabiltzen direla ia aldi berean, unearen eta inguruaren arabera.  
Estrategia horiek harreman estua dute eraso bati erantzutekorakoan **indar-  
rarak neurtu behararekin** eta “radarra” aktibatzearekin, inguruan kideko jen-  
dea dagoen edo ez eta, beraz, gune seguruia izan daitekeen edo ez jakiteko.

Garrantzitsua da azpimarratzea nolako eragina duen etengabeko alerta  
egoeran bizi behar horrek, eta hori da sexu- eta genero-aniztasunaren kolek-  
tiboko kide gehienek mundu osoan bizi behar duten errealitatea. Ikerlan ho-  
netan aztertu ez badugu ere, uste dugu ukaezinak direla pertsonen bizitzetan  
dituen ondorioak. Horietako batzuk aurre egiteko dimentsioak sartzen dira  
jada; esaterako, jarraian aipatuko ditugun biak. Lehena da bestelako estra-

tegia batzuk sortzea, **espazio-denboren kontrola**, adibidez, modu horretan laguntza-sareak sortuz eta indartzuz, eta bigarrena, erasorik gabeko **gune seguruak sortzea**.

**Biziraupenerako estrategia** modura **Ikusgai egitea**, gehien bat, giza eskubi-deen defendatzaileek erabiltzen duten estrategia da, uste baitute zenbat eta ikusgaiago izan orduan eta babestuago egongo direla haien kontrako erasoetatik, inguruak berak babes ditzakeelako, eta, Guatemalan esaten duten moduan *“acuerparse con ellas”*. Gainera, Lolitak dioen moduan, era horretan, eraso batean hiltzen baldin badituzte, hilketaren berri zabalduko da, eragina izango du komunitatean, eta euren erreibindikazioei ahotsa emateko balioko du: *“jakin dadila zergatik hil nauten, ez dadila nahastu krimen pasional batekin”*. Estrategia hori guztiz loturik dago, halaber, beste honekin: **ikusgai egitea, eraldatzeko**, hots, ikusgai egitea, erreferentzia izateko, besteak sentsibilizatzeko eta hezteko.

**Lokarrien bitartez negoziatzearen** strategiak garrantzi berezia du, eta eraso pairatzen duena erasotzailea baino egoera okerragoan dagoenean erabiltzen da gehien bat; zenbait kasutan, mendekotasun ekonomikoa edo emozionala ere egon daiteke. Horren adibide ditugu familiaren baitan egon ohi diren negoziazioak, elkarbizitza ezinbestekoa denean; esaterako, gaiaz ez hitz egitea, janzkera eta adierazteko moduak kontrolatzea edo adostea... Horri dagokionez, Guatemalako Beckyk kontatu zuen nola, halako batean, bere bikotekideak planto egin zuen eta amari esan zion iloba ikusi nahi baldin bazuen Becky ere haiekin egotea onartu beharko zuela. Umearen amamak onartu egin zuen bere alabaren neska-lagunarekin –umearen beste amarekin– egotea harremanari eutsi ahal izateko.

- B. **Aurre egiteko dimentsioan**, norbera den hori izan ahal izateko espazio eta gune seguruak bilatu eta sortzearekin lotuta dauden strategiak daude, eta, horiekin guztiz lotuta dago **berdinen arteko edo kideen arteko laguntza sarean** estrategia. Modu horretan, posible gertatzen da une jakin batzuetan ihes egitea LGTBIfobiaren eraginez eguneroko bizitzan pairatzen diren etsaikeriari eta erasoei. Azterketaren atalean aipatu dugun moduan, gai hau emakumeen taldeek aipatu zuten gehien bat (bisexualek, lesbianek zein trans direnek), eta azaldu zuten LGTBIfobiari aurre egiteaz gainera, sistema patriarkalaz eztabaidatzen dutela, eta aztertzen dutela nola eragiten dien horrek bai jendartean, oro har, baita sexu- eta genero-aniztasunaren talde eta elkarteetan ere. Ildo berean, baina estrategia indibidualagoen alorrean, **au-**

**tozaintzarako** estrategiak aipa ditzakegu; hots, nor bere burua ezagutzeko, nor bere buruari plazer emateko eta une bereziak eskaintzeko garatzen diren estrategiak: ibiltzea, irakurtzea, dantzatzea edo antzerki-kabareta egitea, bai eta norberaren gaineko kontrola eta indarkeria sortzen duten pertsona, toki edo egoerei mugak jarri ahal izatea ere.

Alde horretatik, bereziki bultzatzen da ekonomikoki beregaina izatea, eta lanpostu finko eta seguru bat izatearen garrantzia aipatzen da. Ideia hori es-tuki loturik dago **heziketarekin**, zenbait kasutan heziketa kasik ukatzen baitzaie LGTBI kolektiboko pertsoneri; hala gertatzen da, batez ere, Nikaragua, Mexiko eta Guatemalako emakume transekin, eta horiek dira estrategia honi garrantzi gehien eman diotenak.

- C. **Eraldaketaren dimentsioari dagokionez**, testuinguru guztietan azpimarratu da kolektiboetara biltzearen garrantzia, antzeko errealitateak bizi dituzten edo bizi izan dituzten pertsonekin **batera jarduteko guneak** bilatzearen garrantzia. Partekatze guneak, erreferentziarako guneak, non besteeiko elkarlanak eta esperientziak trukatzeko tresna gehiago eskuratzeko bidea emango duen. Estrategia mota honek, alde batetik, aurre egiteko balio du, baina, bestetik, eraldaketaren eremuan sartzen da. Lehenago esan dugun moduan, gorroto-delituei aurre egiteko moduak bakarka garatzen has daitezke, baina, partekatzen diren heinean, indarra hartzen dute, eta erantzun puntualak izateari utzita, hausnartutako tresnak bilakatzen dira; hala, **gertuko ingurunea eraldatzeko apustuaren** parte bilakatzen dira. Gainera, talde batera biltzeak, kasu askotan, politizazioa edo **kolektiboaren barruan militatzea** ekarri ohi du, eta hori bada **mugimendu sozialetan eta elkarteetan** parte hartzeko modu bat.

Eraldatzeko beste modu bat iruditeria berriak sortzea eta LGTBI pertsonen gaineko estereotipoak eta aurrejuzguak gainditzea da. Erreferentzia berri horiek ere modu askotara gauzatu eta landu daitezke: dela **kulturari eta arteari** darien iruditeriaren eta subjektibotasunaren bitartez, dela **pertsona jakinak ikusgai** egitearen bitartez edo **sentsibilizazio eta heziketa** programen bitartez

Beraz, ondorio orokor gisa esan daiteke gorroto-delituei aurre egiteko estrategiek eta tresnek lerro jarraitu bat osatzen dutela, erresistentzien *continuum* bat, eta lerro horrek dimentsio batetik bestera egiten du, zeren, María Teresak

Nikaraguako eztabaida-mahaiko gogoetetan adierazi zuen moduan: “*uler-tzen laguntzeko daude eskemak, baina bizitza ez da eskematikoa*”.

## — Ondorio orokorrak, etorkizunerako galderak

Sexu-joera eta genero identitateagatiko gorroto-delituei dagokienez, jarraian aurkeztuko ditugun gai hauek azaldu ziren:

### 1. “Sexu-joera edota genero identitateagatiko gorroto-delitua” terminoaren konplexutasuna

Eraso baten aurrean jarduterakoan topa dezakegun lehen zailtasuna da batzuetan ez dugula ezta erasotzat hartzen. Zenbaitetan, indarkeria hain dugunez barneraturik, batez ere eguneroko bizitzan gertatzen den indarkeria hori, ez dugu ezta halakotzat jotzen.

Indarkeriaren eta erasoen normaltze horren ondorioz, ez zaie aurre egiten, ezinezkoa da kontaketa egitea, eta beraz, ez da haiek eragindako kaltea zuzentzen. Horrez gainera, gerta daiteke sexu- edo genero-joeragatiko erasoak pairatu duten pertsonak ikusgai egin nahi ez izatea, eta salaketa jartzen ez ausartzea edo hori egin nahi ez izatea.

Zein dira indarkeria ikusezinenak? Nola hel daiteke ahalik eta jende gehiagorengana diagnostiko eraginkorrago bat egiteko? Guztiok eta testuinguru guztietan berdin ulertzen dugu gorroto-delitua terminoa? Nola interpretatzen dugu kasu bakoitza? Zer egin dezakegu irizpideak bateratzen joateko? Tokia egiten al diegu euren burua ikusgai egin nahi ez duten pertsonari errebindikazioak eta salaketak egin ditzaten? Nola txerta dezakegu errealitate hori?

Konplexutasuna are handiagoa da gorroto-delitua definitu nahi dugunean, zeren terminologia hori, nazioartean kontzeptualki zedarrituta egon arren estatu bakoitzaren lege eta arauen arabera zehazten denez, modu jakin batean ulertzen baita testuinguru bakoitzean. Hasteko, terminoa bera ez da testuinguru guztietan erabiltzen. Batzuen begiradaren arabera, hilketak bakarrik dira gorroto-delituak, eta beste toki batzuetan, ordea, espazio publiko batek bidaltzen bazaituzte, gorroto-delitua izan daiteke. Beste toki batzuetan, bestelako termino batzuk erabiltzen dituzte, esaterako, aurrejuzguengatiko krimenak.

Eraso eta diskriminazio guztiak ez badira gorroto-delitutzat hartzen, termino horrek diskriminazio eta eraso errealtate zenbait ezkuta ditzake? Ikuspegi global batetik ari gara, termino horretara mugatzen bagara? Ikuspegi euro-par-anglosaxoia ote da? Errealtate horiek aipatzeko beste modu batzuk asmatu ahal izango ditugu, diskurtso askotarikoak elkartzeko?

## **2. Legeen bidea ote da sjgi gorroto-delitueterako bide bakarra?**

Legeena ote da sexu-joera eta genero identitateagatiko gorro-delituei aurre egiteko bide bakarra? Legeen bidea aipatzen dugunean, lehenik eta behin, bide judiziala ekarri nahi dugu gogora, hau da, Zigor Zuzenbideak esku hartzea gaitzespen penala merezi duen jokaera bati erantzuteko, hots, zuzenbidezko estatuak erantzuna ematea, erantzun mota hori baliatzeko bezain larriak diren gertaera batzuei ihardesteko. Hori izan da ikerlanean zehar gehientsu eztabaidatu den gaietako bat, eta iritziak askotarikoak izan dira. Alde batetik, zenbait pertsona eta kolektibo zigor mailako lege ingurune bat finkatzearen aldekoak dira, sexu-joera eta genero identitateagatiko gorroto-delituak arautzeko eta horien kontra jardun ahal izateko. Iritzi horiek, testuinguru guztietan agertu badira ere, nabarmenagoak izan dira gaur egun gorroto-delituei erantzuteko batera lege-esparru finkaturik ez duten errealtateetan. Azaldu behar da testuinguru horietan egon ohi dela etsaikeria giro handiena eta horietan pairatzen dela indarkeria gehien, beraz, beharrezkotzat jotzen da lege inguru bat egotea gertaera larri horiek zigorrik gabe gera ez daitezen eta pertsegituak izan daitezen.

Horrekin batera, adierazi behar dugu beste testuinguru batzuetan –EAEn edo Espainiako estatuan, esaterako– asko kuestionatu dela sexu-joera eta genero identitateagatiko gorroto-delituei erantzuteko bidea, nagusiki, legeen/justiziaren bitartekoa izatea, horrek ez baitu indar eraldatzailerik ezta jendartea sensibilizatzeko indarririk ere; zigorra eta errepresioa baino ez ditu baliatzen. Ildo horretan, gorrotoaren diskurtsoei dagokienez, kuestionatu egiten da zigor bidetik jotzea, buruz buru egiten baitu talka adierazpenerako askatasunarekin. Askoren ustez, zenbait jarrera judizializatzeak eta zigortzeak ez du jendartearen eraldaketa bultzatzen, ezta LGTBI pertsonen gaineko aurrejuzuak eta estereotipoak ezabatzen laguntzen ere.

LGTBI kolektiboko kideak sexu-joera eta genero identitateagatiko gorroto-delituetatik babestuko dituen lege ingurune bat egotea beharrezkoa eta guztiz funtsezkoa da. Beste kontu bat da hori ote den era horretako gorroto-delituei aurre egiteko bide bakarra.

### 3. Elkarlana, sarean

Testuinguru bakoitzak bere ezaugarri eta inguruabarrak ditu, beraz, modu desberdinean gauzatzen dira kolektiboen arteko harremanak. Alabaina, antzekotasun bat azaldu da testuinguru guztietan: LGTBI elkarten arteko sare handiena ekainaren 28aren inguruan sorstzen da, sexu- eta genero-askatasunaren eguneko<sup>42</sup> manifestazio eta martxak antolatzeko; hori dela eta, zenbait pertsonak sarea indartzeko beharra aipatu dute, nork bere testuinguruan ez ezik, nazioarteko aliantzak eta sareak sortuz.

Beraz, aliantzak garatzeko ideiari heldu diogu, eta online lan egiteko sare bat bultzatzea erabaki dugu, bertan elkartrukatzeko jardun egokiak, gure esperientziez gogoeta egiteko eta gertatzen diren gorroto-delituak salatzeke, errepika ez daitezen.



42. 'Harrotasunaren eguna' izena ere eman ohi zaio.



## ► Bibliografía

- Aguilar García, M.A., Gómez, V., Marquina, M., Palacio, M.R., Tamarit, J.M. (2015). *Manual práctico para la investigación y enjuiciamiento de delitos de odio y discriminación*. Lotura honetatik hartua: [http://www.empleo.gob.es/oberaxe/ficheros/documentos/manual\\_investigacion\\_delitos\\_odio.pdf](http://www.empleo.gob.es/oberaxe/ficheros/documentos/manual_investigacion_delitos_odio.pdf)
- Berdintasunerako Zerbitzua, Alkatzaren eta Erakunde Harremanen saila, (2018). *Desirak Plazara. Gasteizko LGTBI herritarren errealitateei buruzko diagnostikoa*. Vitoria-Gasteiz: Gasteizko Udala.
- Butler, J. (2001). *El género en disputa. El feminismo y la subversión de la identidad*. Mexiko: Paidós.
- Carroll, A., Mendos, L.R. (2017). *Homofobia de Estado 2017: Estudio Jurídico mundial sobre la orientación sexual en el derecho: criminalización, protección y reconocimiento*. Geneva, Lesbiana, Gay, Bisexual, Trans eta Intersexen Nazioarteko Elkarte (ILGA).
- Centro Nacional de Memoria Histórica (Memoria Historikoaren Zentro Nazionala) (2015). *Aniquilar la diferencia. Lesbianas, gays, bisexuales y transgeneristas en el marco del conflicto armado colombiano*. Bogota: CNMH-UARIV-USAID-OIM.
- Centro por la Justicia y el Derecho Internacional - CEJIL (2013). *Diagnóstico de crímenes de odio motivados por orientación sexual e identidad de género en Costa Rica, Honduras y Nicaragua*. Lotura honetatik hartua: [https://www.cejil.org/sites/default/files/legacy\\_files/Diagnostico%20LGBTI%20completo\\_0.pdf](https://www.cejil.org/sites/default/files/legacy_files/Diagnostico%20LGBTI%20completo_0.pdf)
- COLL-PLANAS, G. (2012). *El circo de los horrores. Una mirada interseccional a las realidades de lesbianas, gays, intersex y trans*. En *Intersecciones: cuerpos y sexualidades en la encrucijada*, (pp. 255-276). Barcelona: Bellaterra.
- COLL-PLANAS, G. (2013). *Dibujando el género*, Barcelona: 96.
- Comisión Interamericana de Derechos Humanos (Giza Eskubideen Amerika arteko Batzordea) - CIDH (2015). *Violencia contra Personas Lesbianas, Gay,*



*Bisexuales, Trans e Intersex en América*. Lotura honetatik hartua: <http://www.oas.org/es/cidh/informes/pdfs/ViolenciaPersonasLGBTI.pdf>

- Espainiako gobernuak (2016). *Informe sobre la situación de los Incidentes relacionados con los Delitos de Odio en España*. Lotura honetatik hartua: <http://www.interior.gob.es/documents/10180/5791067/ESTUDIO+INCIDENTES+DELITOS+DE+ODIO+2016.pdf/c5ef4121-ae02-4368-ac1b-ce5cc7e731c2>
- Europako Segurtasun eta Lankidetzako Antolakundearen 4/03 erabakia, Maastrich, 2003ko abenduak. 2. ESLaren Ministroen Batzordea (2003).
- Eusko Jaurlaritza, Enplegu eta Gizarte Politiketako saila (2017). *Informe 2016 de actividad de la Red Era Berean*. Lotura honetatik hartua: [http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eraberean\\_materiales/es\\_observat/adjuntos/eraberean2016\\_es.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eraberean_materiales/es_observat/adjuntos/eraberean2016_es.pdf)
- FAUSTO STERLING, A. (2006). *Cuerpos sexuados*. Bartzelona: Melusina.
- FOX KELLER, E. (1991). *Reflexiones sobre género y ciencia*. Política y sociedad 4. Valencia: Alfons el Magnámin.
- González Pérez, J. (2016). Hablemos sobre las violencias machistas. *Viento Sur*, 146/Ekaina, 74-81.
- GREGORI, N. (2015). *Encuentros y des-encuentros en torno a las intersexualidades/dsd: narrativas, procesos y emergencias*. Tesis Doctoral. Lotura honetatik hartua: <https://core.ac.uk/download/pdf/71050991.pdf>
- Harding, S. (1987). Introduction: Is There a Feminist Method?. IE *Feminism and Methodology*, 1-14. Indianápolis: Indiana University Press.
- Mujika, I. (2008). *Visibilidad y participación social de las mujeres lesbianas en Euskadi*. Euskadi: Ararteko.
- Mujika, I., Altamira, F. (2017). *La diversidad sexual y de género en Honduras (Tegucigalpa y La Ceiba)*. Euskadi: ALDARTE e INCYDE. Lotura honetatik hartua: [https://kooperaldarte.org/wp-content/uploads/2018/02/Informe\\_Honduras\\_CAS.pdf](https://kooperaldarte.org/wp-content/uploads/2018/02/Informe_Honduras_CAS.pdf)

- Mujika, I., Villar, A. (2009). *La diversidad sexual y los Derechos Humanos*. Euskadi: ALDARTE.
- MURGIALDAI, C. (2017). *La situación de la comunidad LGTB en 4 países centroamericanos: El Salvador, Guatemala, Nicaragua y Honduras*. Hemen jasota: <http://mugengainetik.org/es/noticias/247-diagnosticolgtbicas>
- NAHIA, Taldea (2013). *LOS DESEOS OLVIDADOS*. Euskadi: ALDARTE.
- NAHIA, Taldea (2014). *LURRERATUZ*. Euskadi: ALDARTE.
- NAHIA, Taldea (2016). *Documento marco de las XI Jornadas de Estrategias Positivas de desarrollo, Resistencia al modelo dominante desde la diversidad Sexual y de Género*. Bilbo: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia eta Bilboko Udalaren Berdintasuna, Lankidetzeta, Bizikidetzeta eta Jaiak.
- OACNUDH (2011). *Informe Leyes y prácticas discriminatorias y actos de violencia cometidos contra personas por su orientación sexual e identidad de género*. Lotura honetatik hartua: <http://ow.ly/iAao30jEd20>
- OACNUDH (2012). *Nacidos libres e iguales: Orientación sexual y de género en las normas internacionales de DDHH*. Lotura honetatik hartua: [https://www.ohchr.org/Documents/Publications/BornfreeAndEqualLowRes\\_SP.pdf](https://www.ohchr.org/Documents/Publications/BornfreeAndEqualLowRes_SP.pdf)
- Observatori Contra l'Homofòbia (2015). *El estado de la homofobia en Catalunya 2014*. Bartzelona: UAB, Departamento de Psicología Social. Lotura honetatik hartua: <http://www.lambda.cat/images/CDAF/Actualitat/2015/EstatHomofobiaCat2014ESP.pdf>
- Observatorio Madrileño contra la LGTBfobia (2016). *Informe 2016 sobre Incidentes de Odio por LGTBfobia en la Comunidad de Madrid*. Lotura honetatik hartua: [http://contraeliz.cluster005.ovh.net/informes/2016/informe\\_obs-mad\\_2016.pdf](http://contraeliz.cluster005.ovh.net/informes/2016/informe_obs-mad_2016.pdf)
- OTRANS, RED LACTRANS, IGLHRC, TheHeartland Alliancefor Human Needs& Human Rights, Clínica de Derecho Internacional de los Derechos Humanos de la Facultad de Derecho de la George Washington University (2012). Giza Eskubideetako Batzordearen 104. aesioren aurkeztu zen, bertan aztertzeke. *Violaciones a los Derechos Humanos de las personas Lesbianas, Gays,*

*Bisexuales y Transgénero (LGTB) en Guatemala: Informe Sombra*. Nueva York. Lotura honetatik hartua: <http://www.iglhrc.org/sites/default/files/567-1.pdf>

- Platero, R. (koord.) (2008). *Lesbianas discursos y representaciones*. Bartzelona: Melusina.
- Stryker, S. (2017). *Historia de lo trans*. Madrid: Continta Me Tienes.
- Villar, A., Mujika, I. (2009). *La diversidad sexual y los Derechos Humanos*. Euskadi: ALDARTE.
- Zenbait egile (2015). *Lesbianas con Recursos*. Euskadi; ALDARTE.

# ► Eranskinak

## — Metodologia

Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea (IEP) den proiektu hau ALDARTE elkarteak eta haren inguruko pertsonak eta kolektiboek sumatutako behar batetik abiatu da. Elkarrekin eta bertara biltzen diren eta laguntza jasotzen duten pertsonak osatzen duten errealitate horretan, interesa piztu zen sexu-joera eta genero identitateagatiko gorroto-delituen inguruan elkarrekin gogoeta egiteko, horrela delitu horiek LGTBI kolektiboan duten ondorioez jabetu ahal izateko.

IEP<sup>43</sup> bat egitea erabaki genuen uste dugulako ikerketa mota horrek ikerlanaren eta prozesuaren subjektu aktibotzat hartzen dituela parte hartzaileak; taldearen erritmoak errespetatzen ditu, eta parte hartzaileen beharretatik eta errealitate sozialetik abiatzen da. Hala, ezagutza talde lanaren ondorio dela onartzen da, eta hautsi egiten dira akademiak ezarritako botere-hierarkiak.

Sarreran aipatu dugun moduan, ikerlan honen abiapuntuan dagoen begirada, ikuspegia, feminista da, ez etnozentrikoa eta intereszkionala, eta onartzen dugu objektibitatea ez dela existitzen, ezagutza ez baita, sekula, baliorik gabekoa, eta balio horiek islatu egiten dira bai ikerlanaren prozesuan baita emaitzetan ere. Beraz, txosten honek ez du helburu EAEn, Espainiako estatuan, Guatemalan, Mexikon eta Nikaraguan dagoen LGTBI aniztasun osoa islatzea; hurbilketa bat da, testuinguru bakoitzean garatzen ari diren estrategietara eta erresistentzietara hurbiltzeko bide bat, non nabarmendu egiten diren norbanakoen eta taldeen esperientziak. Hala, zenbakietatik harago, pertsonen ahotsak kontuan hartzea erabaki da, eta beraz, informazio bilketarako erabili diren tresnak, nagusiki, kuantitatiboak izan dira.

Hala bada, eta kontzientzia, jakintza eta gogoeta maila askotarikoetara heltzeko xedez, zenbait tresna metodologiko erabili dira; haietako batzuk, tradizionalak (banakako elkarrizketak, adibidez), eta beste batzuk, berritzaileagoak (esaterako, eztabaida-mahaiak).

---

43. Fox Keller (1991) eta Harding (1987).

## **Banakako elkarrizketak:**

Banakako elkarrizketetarako, elkarrizketa erdiegituratuaren modalitatea erabili da: solasaldia modu naturalean garatzen da, eta giro egokia sortzen da elkarrizketatuak askatasunez mintza daitezen jorratu beharreko gaiez; aldi berean, pertsona horien esperientzia, erresistentzia, pentsamendu eta diskurtsoei buruzko informazioa bil daiteke. Badago gidoi bat non sailkatuta dauden jorratu nahi diren gaiak, eta elkarrizketatzaileak gidoi hori hartuko du gogoan landu beharreko gaiei buruzko galderak planteatzeko, baina badago aukera, halaber, solasaldiaren harian sortzen diren eta esanguratsuak diren beste gai batzuk aztertzeko.

Elkarrizketetarako, ordezkari diren pertsonak aukeratu dira, testuinguru bakoitzean laguntzaile izan diren elkarrekin batera; guztira, 21 elkarrizketa egin dira. **Elkarrizketatu guztiak dira, edo izan dira, kolektiboren bateko kide**, edo antolaturik egon dira, nahiz eta ez izan LGTBI talde batean. Hala, beste mugimendu batzuetako jendearengana ere heldu nahi izan dugu, eta kontuan hartu nahi izan dugu zer biladura sortzen diren (edo ez) giza eskubideen defentsaren aldeko borroken artean. Garrantzitsua da argi uztea elkarrizketatu bakoitzaren bizipen pertsonala dela elkarrizketen abiapuntua. Ikuspuntua, beraz, ez da erakunde edo elkarrekin izan, ezpada norberaren pertzepzioarena; hau da, bakoitzaren ustez nola lagundu duen, edo ez, antolamendu horrek SJGI gorroto-delituei aurre egiteko banakako estrategiak eta tresnak garatzen. Elkarrizketen batez besteko iraupena 40 minutukoa izan da, eta aukeran eman zaie elkarrizketatuei erantzunak anonimoak izatea edo benetako izenarekin agertzea.

## **Eztabaida-mahaiak:**

Testuinguru bakoitzean eztabaida-mahai bat osatu da, eta bertan bildu dira zenbait kolektibotako<sup>44</sup> ordezkariak, SJGI gorroto-delituen egoerari buruz eta horiei aurre egiteko erabiltzen ari diren tresna eta estrategiei buruz eztabaidatzeko. Aldi berean, eta partekaturiko jakintzetatik elikatzeko xedez, eztabaida zabalatzeko eta egungo egoera birpentsatzeko balio izan dute, eta saiatu gara identifikatzen zein diren geureganatutako ikaskizunak, antzemandako jardun egokiak eta landu beharreko erronkak eta aukerak. Beti ere, tokian tokikoaren eta globala den horren artean dagoen *continuum* horretan arreta jarrita.

---

44. Hauek dira parte hartu duten kolektiboak: Adisnit, Aldarte, ANIT, Casa de los Colores, CSM, Fundación Triángulo, EHko Bilgune Feminista, EHGAM-Bizkaia, Artemisa talde lesbikoa, Safo talde lesbikoa, Histeria Kolektiboa, La Cuerda, Lumagorri, Medeak, Nuevos horizontes, Oasis, Odiscea, Otra Guatemala Ya, Programa Feminista La Corriente, Trans en tacones.

Eztabaida-mahaiak, tokian tokiko elkarte kolaboratzaileekin<sup>45</sup> diseinatu eta adostu dira. Mahai horietan, lehendabiziko partearen helburua izan da gorroto-delituarekin zerikusia duten gertaera historiko garrantzitsuenak ezagutzea (ez bakarrik instituzionalak edo legalak, kontuan hartu baitira, halaber, kolektiboen iritziak eta haien ekintzak), eta jakitea zer elkar eragin dagoen beste mugimendu edo eragile sozialekin. Eztabaida-mahaien bigarren partean, gorroto-delituei aurre egiteko erabili diren estrategietan jarri da arreta, eta zenbait maila edo ikuspegi hartu dira kontuan: segurtasun fisikoa bermatzeko banakako estrategiak, erasoak gainditzera bideratutakoak eta jendartea eraldatzeko estrategia kolektiboak.

Oso interesgarria gertatu da eztabaida-mahaietan talde eta kolektibo askotarikoek parte hartu izana, horren ondorioz estrategia ugari antzeman ahal izan baitira, eta posible izan da ahalik eta jakintza zabalena partekatzea. Guztira, 14 kolektibo eta taldetako 34 pertsonak hartu dute parte mahaietan. Mahairen batean azpitaldeak sortu dira, parte hartzen zuten taldeek eurek hala eskatuta, lesbianen, gayen eta transen berezitasunak ikusarazteko.

Parte hartze modu bietan –elkarrizketak eta eztabaida-mahaiak– egon dira euren burua identifikaturik agertzea nahi izan ez duten pertsonak. Kasu horietan, “anonimoa” jarri dugu haiek aipatzen direnetan. Gainerako kasuetan, ponteko izena erabili dugu, abizenak kenduta, identifikatzen zailagoak izan daitezten. Pertsona guztiekin berdin jokatzeko erabakia hartu dugu, nahiz eta haietako batzuk pertsona ezagunak ziren eta agertzeko prest zeudela adierazi zuten; modu horretan garrantzi bera ematen zaie lekukotasun guztiei.

---

45. Nikaraguan, Programa feminista La Corriente; Guatemalan, OASIS, eta Euskadin, Aldarte.



## — Elkarrizketa erdiegituratuaren gidoia

- Aurkezpena
  - o Izena
  - o Adina
  - o Testuingurua (hiria-herria)
  - o Gaiarekiko harreman mota
  - o Zein taldetako kide den
  - o Orientazioa/generoa
  - o Bere burua feministatzat ote duen
- Pertsonala
  - o Nolakoa izan den bere esperientzia LGTB den aldetik
  - o Estrategiak, gertuko ingurunean:
    - Familia
    - Lagunak
    - Ikastetxea
    - Lantokia
  - o Zein izan diren, bere iritziz, erabili dituen estrategia pertsonalak
  - o Nola bizi duen salaketa jartzeko aukera
  - o Ikusgaitasuna
- Kolektiboa
  - o Ibilbidea
  - o Noiz – zenbat denbora
  - o Zergatik bildu zen kolektibo batera
  - o Zer eman dion
  - o Zailtasunak
  - o Antolamendu modua
  - o Bereizketarik, taldearen barruan?
  - o Estrategia kolektiboak: zeintzuk?, zer eman dizute?
  - o Nola antolatzen zarete aurre egiteko?
  - o Ikusgaitasuna kalean



- o LGTBI kolektiboen arteko sareak eta harremanak
- o Mugimendu sozialekiko sareak eta harremanak
  
- Instituzional-politikoak
  - o Gorroto-delituaren ikusgaitasuna
    - Kopurua eta kasuak
      - Nor
      - Nola
      - Ofizialak
  - o Administrazioaren inplikazioa
  - o Aurrerapenak
  - o Atzerapenak
  - o Zein mahaitan hartzen duten parte
  
- Erreibindikazioak
  - o Komunitatean, herritar modura
  - o LGTBI kolektiboa
  - o Mugimendu sozialak
  - o Nazioartean

#### **OHARRAK:**

- Elkarrizketatzen den pertsonaren ibilbidearen arabera, gehiago sakonduko da eremu bat edo beste bat (pertsonala, kolektiboa, instituzionala), baina elkarrizketa guztietan eremu guztiak sartzen saiatu behar gara.
- Elkarrizketak audioan grabatuko dira beti, eta, ahal bada, bideoan, etorkizunean ikus-entzunezko materialen bat landu ahal izateko.
- Elkarrizketak Aldarte elkarteko Udane Hermosilla Fernándezek edo/eta Eider Pérez de Heredia Goñik egingo dituzte.

